

# Norena da natura?

Gizarte-ekintzaren eta baliabide naturalen gaineko hiru esperientzia



Argitatzaila:

**ALBOAN**

Aita Lojendio 2, 2. • 48008 Bilbo  
Tel.: 944 151 135 • Faxe: 944 161 938  
alboanbi@alboan.org

Barañain Etorbidea 2 • 31011 Iruñea  
Tel.: 948 231 302 • Faxe: 948 264 308  
alboanna@alboan.org

Erronda kalea 7, 4. Ezk. • 20001 Donostia  
Tel.: 943 275 173 • Faxe: 943 320 267  
alboangi@alboan.org

Estenaga Monsinorea, 1 • 01002 Gasteiz  
Tel.: 945 202 676 • Faxe: 945 202 676  
alboanar@alboan.org

[www.alboan.org](http://www.alboan.org)

Egilea: Alicia Aleman Arrastio

Itzulpena: Elhuyar

Diseinu eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimaketa: Lankopi, S.A.

Lege gordailua: Bi-895-2012

---

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, beti ere  
helburu komertzialik ez badu eta iturburua apaizten baldin bada.

Ezer gabe iritsi nintzen mundura  
Ezer gabe -maitasuna izan ezik-  
joango naiz mundutik.

Gainerako guztia, maileguz hartutakoa da.

Llegué al mundo sin nada  
Me iré del mundo sin nada,  
excepto amor.

Todo lo demás es prestado.

Ixcánen, Katangan eta Gujaraten beren bizia arriskuan jartzen duten gizon-emakume zintzo guztiei eskainia, haiek baitira *“egiaren eta arrazoiaren jabe, hondar modura bada ere”*. Mirespen eta errespetu handiz.

## Esker ona

Jesuita batek dioenez, esker onaren sentimenduak bultzatzen gaitu justiziaren eta nazioarteko elkartasunaren alde tinko borrokatzera. Horrexek bultzatzen gaitu lan egitera, frustrazio eta kontraesan ororen gainetik, lehenago edo geroago horiek ere beti iristen baitira. Esker onaren sentimendu hori izan dugu ikerketa honetan akuilu. Esker on sentimendu hori hain da sakona, nekez adieraz eta azal baitaiteke hitzez.

Eskerrik beroenak, bada, Ixcán, Katanga eta Gujaraten beren jakintzak, datuak, gogoetak eta esperientziak gurekin partekatu dituzten gizon-emakume eta erakunde guztiei. Eskerrik asko, gu ezagutu gabe ere, doakotasun hutsez gugan uste osoa edukitzeagatik. Eskerrik asko elkarrizketatu ditugun pertsona guztiei, erakutsi duten ausardiagatik, beren lurraldeetako baliabideak bidezketasunez eta zentzu onez kudeatzeko moduak bilatzeko tinko baitihardute lanean eta hausnarketan. Eskerrik asko Euskadin, Guatemalan, Indian eta Kongoko Errepublikan Demokratikoan (Kongo ED) paregabeko ausardia erakutsi duten guztiei, adorea izan baitute galdera zail bati erantzuna emateko eta esperientzia biziki zail, konplexu eta gatazkatsuei aurre egiteko. Hortaz, gure eskerrik beroena, gure miresmena eta errespetu guztia duzue, jardun horietan emateagatik zuen denbora, gorputz eta arimaz, adorez eta duintasunez.

Mundu kolpatu honetan zer ari den gertatzen ulertzeko, partekatze eta azaltzeko saiakera umil eta xalo honen bidez, opari jaso dugun horren guztiaren ordaina eman nahi dizuegu.

Kongoko Errepublikako Demokratikoko ikerketari dagokionez, berriz, eskerrak ematen dizkiegu Mateo Aguirre apaiz jesuitari, Christian Bwendari, Didier de Faily apaiz jesuitari, Bruno Kaiwari, Marcos Ibáñezi eta Ferdinand Mughiriwa apaiz jesuitari.

Indiako ikerketari dagokionez, eskerrak ematen dizkiegu Lucía Aranari eta Robert Arockiasamy, Jimmy Dabbhi, Lancy Lobo, Stany Pinto, Amalraj Sebastian eta Anthony Vedam apaiz jesuitei.

Euskadira itzulita, azkenik, gure eskerrik beroenak Deustuko Unibertsitateko Xabier Etxebarriari, Giza Eskubideen Institutuko Felipe Gómezi eta Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatuaren Zentroko Javier Arellanori eta boluntario guztiei, uste on osoa izan baitute gudan eta laguntza handia eman baitigute azterlan hau hezurmamitzeko eginkizun guztietan. Eskerrik asko, bada, Anabel Cañóni, Celsa Hierrori, Maria Andrea Melori, Elena Ochoa de Eriberri eta Pedro Royri.

Gure eskerrik beroenak, halaber, **ALBOAN** eko arlo anitzeko taldea osatu dutenei, gure asmoak lortzeko akuilu eta gidari izan baititugu. Eskerrik asko Miryam Artolari, Sandra Delgadori, Nacho Eguizabali, Álvaro González, Cristina Maoñori eta Jon Sagastagoitia apaiz jesuitari.

Azkenik, gure eskerrik beroena eta besarkada handiena Ana Eguía, Marlen Eizaguirre eta Mary Tere Guzmáni. Bihotz-bihotzetik, esker mile.

# Aurkibidea

<b>1. Sarrera</b>	<b>7</b>
1.1. Metodologiari eta errealitatearen ikuspegiari buruzko oharra	10
<b>2. Ixcán, Guatemala: indigenen erresistentzia eta kontsulta egiteko eskubidea</b>	<b>13</b>
2.1. Testuingurua aztertzen: herrialdea eta eskualdea	14
2.1.1. <i>Guatemala: herri kolpatua</i>	14
2.1.2. <i>Ixcán: aniztasuna eta borroka</i>	18
2.2. Atzoko eta gaurko arazoak	20
2.2.1. <i>Etengabeko gabetzea eta nekazaritzaren auzia</i>	20
2.2.2. <i>Bi garapen-ereduren arteko gatazka</i>	21
2.2.3. <i>Xalaláko presaren kasua eta CIFCAren txostena</i>	23
2.3. Komunitateen gizarte-ekintza: indigenen erresistentzia	26
2.3.1. <i>Maien nortasuna: lurra eta lurraldea</i>	26
2.3.2. <i>Erresistentzia-estrategiaren erronka nagusiak</i>	28
2.3.3. <i>Ixcángo erresistentziaren baliabide nagusiak</i>	33
2.4. Gizarte zibilaren eginkizuna	36
2.5. Ondorioak	38
<b>3. Katanga, Kongoko Errepublika Demokratikoa: artisau-meataritzaren fenomenoak</b>	<b>41</b>
3.1. Testuingurua aztertzen: herrialdea eta eskualdea	42
3.1.1. <i>Kongoko EDko testuingurua: berpizte-aldi tirabiratsua</i>	42
3.1.2. <i>Eskualdeko testuingurua: Katanga bidegurutzean</i>	45
3.2. Katangako artisau-meataritza	48
3.2.1. <i>Hedadura handia</i>	49
3.2.2. <i>Ekoizpen- eta merkaturatze-kate luzea</i>	51

3.3. Artisau-meatzaritzari lotutako legeak eta politikak	54
3.3.1. <i>Meatzaritzza-kodearen sorrera, 2002an</i>	54
3.3.2. <i>Meatzaritzza-politika: egintzen politika, ez agiriena</i>	56
3.4. Gizarte-ekintza: erronkak eta estrategiak	57
3.5. Gizarte zibilaren eginkizuna	60
3.6. Ondorioak	62
<b>4. Gujarat, India: baso-eskubideen legearen ezarpena</b>	<b>65</b>
4.1. Testuingurua aztertzen	66
4.1.1. <i>India: askotariko trantsizioak</i>	66
4.1.2. <i>Gujarat: hazkunde handiko estatua</i>	69
4.1.3. <i>Trantsizioko tribuak: Gujarateko adivasiak</i>	70
4.2. Indiako Baso-Eskubideei buruzko Legea (BEL)	73
4.2.1. <i>Historia eta edukiak</i>	73
4.2.2. <i>Legearen balorazioak</i>	77
4.3.2. <i>Aurkitutako oztopoak: interes ekonomikoak eta mentalitateak</i>	81
4.3.3. <i>Ahultasun isilak</i>	82
4.4. Gizarte-ekintza konbinatua	84
4.4.1. <i>Oinarrizko erakundeak, ekintzaileak eta Adivasi Mahasabhā</i>	84
4.4.2. <i>Gizarte-ekintzako estrategiak</i>	85
4.4.3. <i>Lidergoaren eta sareko lanaren kontua</i>	87
<b>5. Ondorioak eta askotariko ikasketak</b>	<b>93</b>
<b>6. Zenbait hausnarketa etikaren eta justizia sozialaren ikuspegitik</b>	<b>99</b>
<b>Bibliografia</b>	<b>103</b>

## 1. Aurkezpena

Gizarte guztietan, elkarri gogorki loturik daude gizarte-bizitza eta ingurune naturala. Horren erakusgarri, natura-baliabideak nola kudeatu diren –edo, zehatzago esanda, baliabide horien jabetza nola zehaztu den eta baliabideak nola erabili diren–, hala egituratu izan da gizartea, eta halaxe jarraitzen du izaten gaur egun ere. Azken hamarkadetan indartu egin da globalizazio-prozesua, eta luze eta zabal hedatu munduko ekonomia; testuinguru horretan, bada, gero eta garrantzitsuagoa bilakatu da natura-baliabideen kontrola izatea.

Duela hogeita hamar urte ekonomialariek iragartzen zuten ekonomia desmaterializatzeko-bidean zela eta jakintza bilakatuko zela lehentasun, natura-baliabideen kontrolaren gainera. Haatik, ez da izan hori joera nagusia; izan ere, jakintzaren eta informazioaren garrantzia garatu ahala, horiekin batera natura-baliabideen eskaera ere inoiz ez bezala hazi da. Historiaren beste une batzuetan ere gertatu den bezala, baliabideekiko presioak berehalako ondorioak ekarri ditu baliabide horiek ustiatzeko eta erabiltzeko arauetan. Testuinguru horretan, bada, ezinbestekoa zaigu galdera bat egitea: nola eragiten diete natura-baliabideen kontrolean eta erabileran izandako aldaketek betidanik baliabide horiek erabili dituzten edo baliabide horien ustiaketa-eraginaren mende dauden herrialdeei? Azterketa hori, bestalde, zuzenean kaltetutako herrialdeen ikuspegitik egin behar da.

Izan ere, mundu zahar eta aberatsaren hiri-giro hiperteknifikatuetan eta gorabidean diren herrialdeetako klase pribilegiatuetan ere, gero eta gehiago ari da hedatzen ahanzturarako joera eta tentaldia, hau da, pertsona guzti-guztien bizitzaren funtsezko oinarria natura dela. Ingurunea da ekonomia materialaren funtsa, natura-baliabideak ezinbesteko baititu, garatu ahal izateko. Aitzitik, gizartearen

eta natura-ingurunearen arteko mendekotasun hori bizi-bizirik dago, materialki, kulturalki zein espiritualki bizirauteko nagusiki natura-baliabideen mende dauden guztiengan. Dokumentu honek, bada, bereganatu egin du pertsona horien ikuspegia. Hala, ikuspuntu horretatik landuta daude argitalpen honetako gai nagusiak: pertsona horiek zer-nolako arazoei egin behar dieten aurre; nola antolatzen diren beren lurraldea defendatzeko, beren eskubideak eskatzeko eta jabetzari buruzko beste ikuspegi batzuk proposatzeko, eta nola kudeatzen dituzten “natura-baliabideak”<sup>1</sup>.

Historian zehar beste batzuetan ere gertatu den moduan, gaur egun gatazka latzak daude, natura-baliabideak eskuratzeko eta erabiltzeko eskubideengatik eta baliabide horiek dituzten lurraldeen kontrola lortzeagatik. Oraingoan, baina, planeta osora zabaldu da gatazka hori, eta tira-birak hain dira latzak, eutsiezinezko muga arriskutsura ere hurreratzen ari baitira<sup>2</sup>. Azterlan honetan langai hartu diren hiru kasuen bidez, gaur egun nazioarteko ekonomiaren hedakuntzari lotuta garatutako gatazka-fenomeno horren alderdi garrantzitsu eta nabarmenatariko batzuk jorratuko ditugu: (i) lurra eta baliabideak intentsiboki darabiltzaten industriak (erauzte-industriak, hidroeletrikoak, baso-industriak, nekazaritza eta abeltzaintza estentsiboko industriak) irrikaz eskuratu nahi dituzten lurraldeak (ii) gero eta presio handiagoak jasotzen dituzten herrialdeak, babesik gabeak, eta (iii) lurralde horietako sare kriminal edo kuasikriminal indartsuak (narkotrafikatzaileak eta era guztietako “mafia”).

Hiru kasuak baliagarriak dira, orobat, testuinguru horietan gizarte-ekintza nola antolatzen ari den ikusteko: Katangako meatzarien ekimenen ahulezia, batetik, Ixcángo lurraldearen defentsa- eta erresistentzia-planteamenduak eta hango herritarren nortasun eta mundu-ikuskerak, bestetik, eta, Gujarat adivasi herria baso-eskubideak aldarrikatzeko egiten ari den “borroka selektiboa”, azkenik. Arazo horiei aurre egiteko erabiltzen ari diren gizarte-ekimenak asko eta askotarikoak direla erakusten dute hiru kasuek, eta aniztasun horrek baditu zenbait zergati: (i) herritarrak zer jarduera ekonomikotan diharduten eta zer baliabideri uztartuta, (ii) zer interes geopolitiko dauden jokoan, (iii) estatuak nolako indarra edo ahulda-dea duen lurralde horretan, eta (iv) kaltetutako herritarren artean nolako batasuna edo talde-sentimendua dagoen.

---

<sup>1</sup> Gai honi buruzko zertzelada batzuk jasotzeko, ikusi ALBOANek 2011n aurkeztutako bideo hau: *¿Tiene dueño la naturaleza?*

<sup>2</sup> Etorbizuneko gatazken nondik norakoan berri izateko, ikusi “*La conflictividad que viene*” dosierra (hainbat idazle, Madril, 2011), Fuhem/ CIP-Ecosocial.



Elkartasunaren alde lanean dihardugun erakundeon egitekoa da baliabideak kendu zaizkielako bizibidea kolokan duten herritarrei laguntzea. Horra gure konpromisoa. Horretarako, ezinbestekoa da jakitea zer faktorek indartzen duten herritarren antolamendu-gaitasuna, beren burua defendatzeko eta lurraldea eta baliabideak modu zuzen eta jasangarriagoan kudeatzeko bideak proposatzeko. Hala, garapena eta nazioarteko justizia sustatzen duten erakundeak gero eta maizago ari dira parte hartzen ingurumenaren justizia eta jasangarritasuna giza eskubideen sustapenarekin eta giza garapenarekin lotzen dituzten ikerlan eta proiektuetan<sup>3</sup>. Parte-hartze hori berria ez bada ere, bestelako ñabardura batzuk ari da hartzen, klimaren krisia gogortu ahala eta gizarte-ingurumenaren arloko gatazkak laztu heinean.

Nazioarteko laguntza-erakundeak gero eta interes eta konpromiso argiagoa ari dira hartzen nork bere lurraldeko natura-baliabideak kontrolatzeko eta modu jasangarrian baliatzeko eskubidea defendatzen duten herriekin. Argitalpen hau, da, besteak beste, horren erakusgarri. Konpromiso horretan aurrera egiteko, erakundekook artatzen ditugun herrien arazoak eta erronkak ahalik eta hobekien ulertzen saiatzen gara **ALBOAN**eko kideok, uste osoa baitugu horri esker zerbitzu hobea eman ahal izango diegula munduan han eta hemen artatzen ditugun herrialdeei, eta gure inguruan aldaketak sustatu ahal izango ditugula, herrialde horietako baliabideekiko presioa murrizte aldera.

Argitalpen honek Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso du, 2009ko deialdiko garapenaren aldeko hezkuntza-proiektuen sailaren barruan. Proiektu horretan, ikerketa-jarduerak, sensibilizazio-saioak eta elkarrizketa eta hausnarketa gu- neak antolatu dira, natura-baliabideak gizarte-justiziaz gobernatzeko erronkak langai hartuta. Txosten honetan jasotako hiru kasuak erronka horien eta sortzen diren gainerako arazoen isla dira, baita zuzenean egoera horren mende dauden herrien erantzunaren erakusgarri ere.

---

<sup>3</sup> Hona hemen parte-hartze horrek berriki emandako zenbait fruitu: Giza garapenari buruzko 2011ko munduko txostena “*Iraunkortasuna eta ekitatea: Etorkizun hobea guztiontzat*” izenburukoa, NBGP; Social Watch erakundeak “*Desarrollo sustentable: El derecho a un futuro*” izenburupean 2012an egindako txostena; Oxfamek 2012ko urtarrilean kaleratutako 157. txostena, “*¿Olvidados por el G-20? Cómo la desigualdad y la degradación medioambiental amenazan con excluir a las personas pobres de los beneficios del crecimiento económico*” izenburukoa, eta ekologiarene gaineko lantaldeak “*Sanar un mundo herido*” izenburupean ekologiarri buruz egindako txosten berezia, 2011n Jesusen Lagundiko Gizarte Justiziaren eta Ekologiaren Idazkaritzak kaleratutakoa. Txosten horiek, dena den, Lurrari buruzko Goi-bileraren 20. urteurrenaren prestaera-testuinguruaren barruan ere ulertu behar dira; izan ere, 2012ko ekainean egingo da goi-bilera hori (Rio + 20 jardunaldia ere esaten zaio) Rio de Janeiroan.

Lehenik eta behin, Guatemala iparraldeko Ixcángo komunitateen kasua aztertuko dugu; ondoren, Kongoko Errepublikako Demokratikoko hegoaldean dagoen Katanga eskualdeko artisau-meatzarien kasua, eta, azkenik, India mendebaldean dagoen Gujarat estatuko adivasi herrien kasua. Kasu bakoitza lantzeko, hiru alderdi hauek izan ditugu kontuan: 1.a, estatuaren eta eskualdearen nondik norakoak; 2.a, natura-baliabideak eskuratzeko eta erabiltzeko arazoan azalpena, eta, 3.a, komunitateek eta herritarrek arazo horiek gainditzeko egiten dituzten ekintzen azterketa. Ondoren, hiru kasuen alderaketa txiki bat egin da. Alderaketa horretan, hiru kasuen arteko antzekotasun eta desberdintasun nabarmenenak aipatzen dira, eta ikerketan sakontzeko zenbait gidalerro ematen. Azkenik, etikaren eta gizarte-justiziaren ikuspegitik egindako zenbait gogoeta azaltzen dira, aztergai hartutako hiru kasu horietan oinarrituta.

## 1.1. METODOLOGIARI ETA ERREALITATEAREN IKUSPEGIARI BURUZKO OHARRA

Argitalpen honek ikerketa praktikoa baten laburpena ematen digu, dokumentu bakarrean. Ikerlan horretan, Ixcán, Katanga eta Gujarat hartu dira aztergai, 2009ko abuztutik 2011ko ekainera<sup>4</sup>. Landa-lan horrekin batera, literaturaren azterketa txiki bat egin dugu, eta informatzaile trebatuekin egiaztatu dugu informazioa, lekuan bertan. Landa-lanean, teknika bat baino gehiago baliatu dugu informazioa jasotzeko: (i) txostenak eta agiri ofizialak berrikustea, (ii) banakako zein taldekako elkarrizketak egitea (iii) egoerak kaltetutako herritarren foku-taldeak eratzea (ahal izan denean), (iv) kaltetutako gunetara landa-bisitak egitea (Ixcángo urrutiko baserri eta komunitateak, Katangako artisautza-meatzeak, baso-lur gehien duten Gujarateko barrutiak)<sup>5</sup>.

Kasu-azterketak egiteko, **ALBOAN** erakundearekin hiru herrialde horietako bakoitzean lankidetzan estuan aritzen diren beste erakunde batzuen laguntza jaso dugu. Alabaina, trabak ere izan ditugu landa-lanaren prozesuan; izan ere, hautatutako eskualdeetan handiak dira militarizazio- eta indarkeria-maila (batik bat Katangako meatzeetan eta Ixcángo zenbait eremutan); gainera, zailtasun handiak izan ditugu dokumentuak, zenbait estatistika ofizial eta agintarien eta ordezkari-

---

<sup>4</sup> Landa-ikerketa data hauetan egin zen: 2010eko abuztuan (Ixcán, Guatemala), 2011ko urtarrilean (Katanga, Kongoko ED eta 2011ko ekainean (Gujarat, India).

<sup>5</sup> Honako erakunde hauek izan dira proiektuko partaide, ALBOAN fundazioaren koordinaziopean: Asociación Puente de Paz del Ixcán (Guatemala), Centre Pour l'Action Social – CEPAS- Katangako antena (Kongoko ED) eta Behavioural Social Center- BSC- Gujarat, India.

rien iritziak lortzeko. Bestalde, hizkuntza asko erabili behar izan dira (frantsesa, gaztelania, swahilia, gujaratera eta q'eqchi'era), eta horrek ere korapilatu egin du ikerketa-prozesua. Arazo hori konpontzeko, ingelesa erabili dugu lanean esku hartu dugun guztion artean komunikatzeko eta lehenengo zirriborroak idazteko.

Horrela, bada, ikerketa honek zenbait ekimenen berri ematen du, laburki, praktikaren ikuspegitik, aztergai hartuta lurralde horietako herritarrek aurrera daramatzaten gizarte-ekintzarako eta gizarte-mobilizazioko zenbait esperientzia eta baliabide naturalak eskura izateko eta haien erabilera kontrolatzeko saiakerak. Azterketa hau egiteko, geure egin dugu gurekin lanean diharduten erakundeen ikuspegia, baita erakunde horiek artatzen dituzten komunitateei hitza eta boterea emateko duten interesa ere.



## 2. Ixcán, Guatemala:

### Indigenen erresistentzia eta kontsulta egiteko eskubidea

Ixcángo (Guatemalako iparraldea) komunitateen kasuak ondo islatzen du gaur egun jazotzen ari den fenomeno bat: gero eta presio handiagoa ezartzen baitzaio lurralde horri, eta herritarrek natura-baliabideak ez galtzeko erresistentzian baitihardute, militarizazio-testuinguru batean. Lurraldea defendatzea da Ixcángo komunitate laborari eta indigenen gizarte-ekintzaren ardatza; izan ere, hainbat eragileren oldarren mehatxupean bizi da lurraldea: erauzte-industriak, megaproiektuak, nekazaritza-industria eta narkotrafikoa. Komunitateak egoerari aurre egiten eta gizarte-partaidetzan oinarritutako prozesua eraikitzen saiatzen dira. Prozesu horrek, bestalde, ingurunea eta giza baliabideak garatzeko eta haiekiko orekan bizitzeko eredu jakin bat proposatzen du, bestelako premisa batzuetan (“alternatiboak”) funtsaturik.

Txosten honek, bada, Ixcángo komunitateek mehatxu-andana horri aurre egiteko abian jarri duten gizarte-ekintzaren ezaugarriak deskribatzen ditu. Lehenik eta behin, **interpretaziorako begiratu** bat emango zaie bai herrialdeari (Guatemalari), bai eskualdeari (Ixcáni), haien testuinguruaz jabetzeko, bereziki aintzat hartuta “etengabeko gabetzearen”<sup>6</sup> ikuspegitik herriek eta herritarrek jasaten duten egiturazko diskriminazioaren nondik norakoak.

Bigarrenik, gaur egun Ixcángo lurraldeari etorri zaion mehatxu-andanak eragindako arazoak hartuko dira langai; izan ere, zentral hidroelektrikoak eraikitzeko

---

<sup>6</sup> Liza Grandía autoreak “etengabeko gabetzea” esamoldea darabil, Q’eqchi’ herriak Espainiaren inbasiotik bizi izan duen lurrekiko kontrol-galeraren prozesu historikoa adierazteko.

proiektuak egiten dira; erauzte-industriak ezartzen eta hedatzen ari dira –petrolio-industria, bereziki–, eta nekazaritza-industria ere sustatzen ari dira; segurtasunak, bestalde, okerrera egin dute herrialdean<sup>7</sup>.

Hirugarrenik, egoera horrek **kaltetutako komunitateen gizarte-ekintza** aztertuko da; horretarako, hasteko, q'eqchi' herriaren nortasun maiari buruzko zertzeladak emango dira, eta luraren eta lurraldearen aldeko borrokarekin duten lotura estua azalduko dira. Hala, hiru erronka edo eremu handitan egituratzen da lurraldea eta bizibidea babesteko gizarte-ekintza: norbanakoek zein herritar-taldeek lurra eta lurraldea baliatzeko duten eskubideak bermatzea, ekintza politikoa sendotzea eta modernotasunari aurre egitea. Bestalde, Ixcángo komunitateek mehatxuei aurre egiteko abian jarri dituzten gizarte-ekintzako estrategia nagusien berri ere emango da: kontsultak antolatzea, mobilizazioak egitea, eta komunitatean lurraldeari lotutako nortasuna indartzeko ernatu berri den ekintza politikoa sustatzea. Azkenik, **gizarte zibilak** eta eskualdean dauden gobernuz kanpoko erakundeek izan duten rolari buruzko irakurketa egingo da, Ixcángo komunitate eta herri horiei lurra eta lurraldea defendatzeko erresistentzia- eta borroka-ekintzetan nola lagundu dieten azaltze aldera.

Amaitzeko, zenbait **ondorio eta gomendio** emango dira, komunitateen eta gizarte zibilaren ekintzak indartze aldera, gizarte- eta ingurumen-alorretako justizian oinarrituta hobeto gobernatu ahal izan ditzaten naturaren eta lurraldearen baliabideak.

## 2.1. TESTUINGURUA AZTERTZEN: HERRIALDEA ETA ESKUALDEA

### 2.1.1. Guatemala: herri kolpatua

Guatemalaren historia moderno eta garaikideari eta gaur egungo errealitateari erreparatzea aski da herrialde horrek zer-nolako zauri sakonak dituen ohartzeko, Espainiako inbasioaren garaitik dirauen egiturazko desoreka-baldintzek eraginda; izan ere, zauri horiek birsortzen aritu dira etengabe, urratsez urrats, noiz bortitzago noiz leunago, Guatemalako historian barrena.

---

<sup>7</sup> Azaldu dezagun nola egin duen okerrera segurtasunak Guatemalan. Izan ere, Ixcánen, Guatemalako beste zenbait udalerritan bezala, narkotrafikatzaile-talde boteretsu eta entzutetsuak daude (Zetak, adibidez), eta, horiekin batera, Guatemalako armadaren eliteko taldeak ere, hots, “kaibileak”.



Iturria: CIA. World Factbook.

### 1. Taula. Guatemalako oinarrizko indikatzaiek

Biztanleria	14.713.763
Giza garapenaren indizea – GGI (munduko sailkapena)	0,574 (131/187)
Biztanle bakoitzeko diru-sarrerak (2005eko USD konstantetan)	4.167
Gini koefizientea	53,7
Bizi-itxaropena	71,2
Hezkuntza (eskolaratze-urteen batezbestekoa)	4,1
Genero-desberdintasunaren indizea	109/187
Alderdi anitzeko pobrezia (biztanleria osoaren %)	25,9
Muturreko pobrezia (biztanleria osoaren %)	14,5
Aztarna ekologikoa (hektareak, biztanle bakoitzeko)	1,8

Iturria: Txosten honetarako propio eginda, oinarritzat hartuta bai Guatemalako Erroldaren datuen proiektzioa (Guatemalako Errepublikaren Estatistika Institutua), bai Giza Garapenari buruzko 2011ko Mundu Txostenaren datuak.

Hala, bada, 2012. urtearen hasieran, 14 milioi biztanle ditu Guatemalak, eta etnia ugari barne hartzen ditu. Giza Garapenaren Indizea (GGI) 0,574 puntura iristen da; hala, tarteko mailan dago giza garapenaren munduko sailkapenean (Maroko

eta Iraken artean). Egoera eskualdez eskualde aztertuta, ordea, ilunagoa da errealtatea; izan ere, Amerikako herrialdeetatik azkena da Guatemala (Haiti alde batera utzita), eta hurbil-hurbil ditu Nikaragua eta iparreko triangeluko herrialdeak, hots, Honduras eta El Salvador.

Nazioarteko zenbait erakundek, Guatemalako Gobernuak eta GGKEk emandako adierazleen eskualdez eskualdeko azterketa xeheagoa eginda<sup>8</sup>, Guatemalari buruzko ezaugarri hauek dira azpimarragarri: indarkeria gogor pairatzen duen herrialdea da Guatemala; egiturazko desberdintasunek nabariak izaten jarraitzen dute, eta gizarteko zenbait talderen ahulezia larria da.

Guatemalakoa da mundu osoko indarkeria-tasarik handienetako bat, gerran ez diren eremuen barruan: indarkeriazko 42 heriotza 100.000 biztanleko; alegia, indarkeriazko 6.000 heriotza urtean –EBko 27 herrialdeek batera duten kopuru bera, gutxi gorabehera<sup>9</sup>–. Konplexua da Guatemalako indarkeriaren fenomenoak, eta interpretazio sakona behar du, kontuan hartu beharrekoak baitira bai herrialdearen historia gorabeheratsua eta horrek utzitako orbanak, bai historia horren testuinguru geoekonomikoa eta politikoa. Bake-hitzarmenetatik 15 urte besterik igaro ez direla, gero eta gehiago ari da hazten indarkeria. Batetik, lurraldearen egoerak okerrera egin du, eta, bestetik, Guatemalako estatua eta erakunde demokratikoak oso ahulak dira. Zirrikitu hori baliatu du narkotrafikoak (eta hari uztarturiko kriminalitateak eta segurtasun-ezak) herrialdean barneratzeke eta muturreraino hedatzeko, eta, testuinguru horretan, estatuak –eta Guatemalako iritzi publikoaren zati handi batek ere– egoera horri aurre egiteko modu bakarra ikusten du; hain zuzen ere, militarizazioa areagotzea<sup>10</sup>.

Bigarrenik, testuinguruari erreparatuta hautematen denez, desberdintasunak indartsu jarraitzen du. Halaxe erakusten du Gini koefizientearen maila altuak, baita beste adierazle garrantzitsu batzuetako emaitzek ere, hala nola Guatemalako muturreko pobrezia-aren mapak edo herrialde horretan haurren malnutrizioak oraindik dituen portzentaje kezkarriak<sup>11</sup>.

---

<sup>8</sup> Gizarte-adierazle nagusien alderaketa bat ikusi nahi izanez gero, jo obra honetara: Morales, H. (2010). *Cooperación internacional en Centroamérica. Mirada crítica desde los sujetos políticos regionales*. Guatemalako Hiria: Movimiento Tzuk Kim-Pop. Sector Mujeres. Centro América por el Diálogo (CAD).

<sup>9</sup> International Crisis Group. (2011). *Guatemala: Drug Trafficking and Violence*. Latin America Report. 39 zk.

<sup>10</sup> Horren erakusgarri, Guatemalako presidentziarako azken hauteskundeetan, indarkeriaren eta narkotrafikoaren aurkako borroka- eta garaipe-mezuak eta -aldarriak izan ziren nagusi, eta Otto Perez Molina jenerala hautatu zuten presidente.

<sup>11</sup> Ikusi Palmieri Santisteban, M. & Delgado Valenzuela, H. L. (2009/2010). *Análisis situacional de la malnutrición en Guatemala: sus causas y abordajes*. Cuaderno de Desarrollo Humano. Munduko Bankua. Desnutrizioaren eta malnutrizioaren gaia kazetaritzaren ikuspegitik jorratu nahi izanez gero, ikusi Fernando Martín Llorenteren “*Primero Dios*” dokumentala.



Hainbat faktorek elikatzen dute egiturazko desoreka hori, eta, beraz, interpreta- zio zabal eta konplexua behar da, historia eta nazioarteko ekonomia politikoaren prozesuak ere barne hartuta. Nolanahi ere, iturri askok bi faktore hauek jotzen dituzte desberdintasunaren giltzarritzat: “Nekazaritzaren auzia” batetik, eta jabetzaren egitura eta lurraren edukitza desorekatua, bestetik, batik bat Gua- temalako landaguneetan<sup>12</sup>. Bake Hitzarmenez geroztik nekazaritzaren auzia bi- deratzen saiatu badira ere, lurraren erregularizatze-prozesu korapilatsuaren emaitzak, gutxienik ere, zalantzarriak gertatzen ari dira. Nekazaritzaren auziak funtsezko afera izaten jarraitzen du Guatemalako gehiengo indigena eta laborari handien borroka sozial eta politikoetan.

Kultura eta hizkuntza askok egiten dute bat Guatemalan: lau herri bizi dira elka- rrekin (maiak, xinkak, garifunak eta mestizoak); 22 hizkuntza hitz egiten dira, eta biztanleen % 40 baino gehiago indigenak dira. Herrialde indigenak aspalditik baz- tertu eta zanpatu dituen sistema arrazistaren ondorioa da egungo gizarte-desber- dintasuna, eta giza garapenaren hainbat adierazletan islatzen da hori. Pobreziak, esate baterako, herritarren % 71,9ri eragiten dio Guatemalan, familiaburua in- digena bada, eta % 44ri, familiaburua indigena ez bada. Alfabetatze-tasan ere aldea handia da batzuetatik besteetara; indigena ez diren biztanleen % 79,6 da alfabetoa, eta portzentaje hori % 52,3raino murrizten da indigenen artean<sup>13</sup>.

Azpitarratzekoa da, bestalde, Guatemalako herritarren artean badirela gizarte- dinamismoa sustatzeko eta beren kasa antolatzeko ekimenak; azken batez, ba- dago egoerari aurre egiteko kemena. Guatemalako landa-eremuan gertatzen ari diren bi fenomeno dira dinamismo horren isla. Bi fenomenoak aldi berean ger- tatzen ari dira, nahiz eta itxura batean kontraesankorrak eman dezaketen, batek barrurantz begiratzen baitu eta besteak kanporantz. Batetik, nortasun indigena indartzen eta beren kasa antolatzeko bideak sustatzen ari dira, herri indigenak beren lurraldean bermatzeko eta beren balioak sendotzeko<sup>14</sup>, eta, bestetik, modu eta tankera askotako migrazioa garatzen ari da, bai epe luzekoa, bai behin-be- hinekkoa, eta haren barruan, barne- zein kanpo-migrazioak ari dira izaten, Ame- rikako iparraldera, batik bat (Mexikora eta Estatu Batuetara, bereziki).

---

<sup>12</sup> Nekazaritzaren eta indarkeriaren arteko lotura labur aztertzeko, ikusi *Memoria de Silencio* txostenaren I kapitulua. CEH. (1999). Guatemala. *Memoria del Silencio*. UNOPS.

<sup>13</sup> Ikusi, NBGP Guatemala. (2005). *Diversidad étnico-cultural y ciudadanía en un Estado plural*. Giza Garapenari buruzko Munduko Txostena.

<sup>14</sup> Ikusi “*Li qana’aj: Li b’e re xtawb’al li qaxe’*”. Territorio: El camino a las raíces bideoa. Seva Fundazioa. Pro-Petén Funda- zioa. Popo No’j elkarte. El Observador elkarte. Oxfam International.

Laburbilduz, gorabehera handiko iragana eta indarkeriari eta desberdintasunei katigatutako historia izan ditu Guatemalak, eta halaxe iritsi da 2012.era, herri kolpatu eta ahuldu bilakatuta. Orogen gainetik, baina, bizirik dirauen herria da.

Guatemalako egungo testuinguru geoeconomiko eta politikoak areagotu egin du indarkeria, narkotrafikoa barneratu baita herrialdean, eta, horrekin batera, militarizazioa itzuli. Egiturazko desberdintasunak eta pobrezia ez dute etenik, eta Guatemalako nekazaritzaren auzi korapilatsuari lotuta daude. Egoera horrek eragin berezia du herri indigenetan.

### 2.1.2. *Ixcán: aniztasuna eta borroka*

Quiché departamentuko ipar-iparrean dago Ixcán, Mexikoko Chiapas eskualdearekiko mugan. Gaur egungo Ixcán hobekien definitzen duten bi ezaugarriak aniztasuna eta borroka dira. Aniztasun handia du Ixcánek, bai ekologiarri, bai gizaritari dagokienez, eskualdearen kokapen geografikoagatik eta orografiagatik, batetik, eta udalerrri horren “populatze-prozesu gorabeheratsurengatik”<sup>15</sup>, bestetik, lurrik gabeko laborariek kafe-lursailetatik ihes egin zutenean populatu baitzen Ixcán, maizter-nekazaritzan oinarritutako bizi-baldintza hobegoen bila.

Mugako lurraldea da Ixcán, eta era askotako jendea bizi da haren 1.575 kilometro koadroetan, zazpi mikroeskualdetan zatitutako 186 komunitatetan banatuta<sup>16</sup>. Ixcán 1985ean eratu zen<sup>17</sup> (eratutako azkenaurreko udalerrria izan da), eta Guatemalako batezbestekotik gora ditu pobrezia-, analfabetismo- eta desnutrizio-indizeak, baita ama-haurren heriotza-tasa ere. Nahiz eta lurraldearen jarduera nagusia, zalantzarik gabe, basogintza izan (lurraldearen % 20 baino gutxiago erabiltzen da nekazaritzarako), Ixcángo herritarrek ezinbestekoak dituzte nekazaritza-jarduerak biziraun ahal izateko: artoa hazten dute, etxeko kontsumorako nagusiki, eta kardamomoa, diru-iturri bat izateko, eta basora jotzen dute behar duten egurra biltzeko.

Gaur egun 78.000 biztanle ditu, eta horietatik % 63 emakumeak dira. Izan ere, gizonezko askok Estatu Batuetara jo dute, hobeto ordaindutako lanen bila, eta

<sup>15</sup> Vallejo Real, I. (2000). Ixcán. *Configuraciones de una región multi-étnica: identidad, relaciones interétnicas y conflicto*. CIRMA. Centro de Investigaciones de Mesoamérica. Pastoral Social/IBIS.

<sup>16</sup> [www.actioaidguatemala.org](http://www.actioaidguatemala.org)

<sup>17</sup> Ikusi <http://www.sjmcenroamerica.org/guatemala> eta [[http://ciesas.edu.mx/proyectos/relaju/cd\\_relaju/Ponencias/Mesa%20Su%C3%A1rez%20y%20Sorensen/UgaldeGonzalezMiguel.pdf](http://ciesas.edu.mx/proyectos/relaju/cd_relaju/Ponencias/Mesa%20Su%C3%A1rez%20y%20Sorensen/UgaldeGonzalezMiguel.pdf)]

faktore horrek eragin du, nagusiki, genero-portzentajeen arteko desoreka hori. Indigenen % 88 q'eqchi', mam, qanjob'al, akateko, kiché, kakchikel, chuj, p'omchí, ixil, poptí, achí taldeetakoak dira. Herritarren % 10, berriz, ladinoa da (mestizoa). Izan ere, lekualdaketek eta diaspora-dinamika behartuak egituratu dute Ixcán, eta horrexegatik bat egin dute han horrenbeste etniak eta hizkuntzak.

Hastapenetan, laborantza-lurren bila joan zirenek kolonizatu zuten lurraldea; batik bat, Ixcánen ondoan dagoen Alto Verapaz eskualdeko q'eqchi'ek. Ondoren, gatazka armatuaren garaian, borroka-leku nagusi bilakatu zen Ixcán, eremu geostrategikoa izan baitzen, bai inturgentziarentzat, bai kontrainturgentziarentzat, eta erresistentzia-esparru eta herritarrentzako “mendiko babesgune” ere bilakatu baitzen. Borrokak gogortu ahala, herritarrak Mexikora eta Guatemalako beste lurralde batzuetara irten ziren, behartuta, andanaka. Azkenik, itzulera-aldia iritsi zen. Hainbat erataria egin zen itzulera: lehenik, 80ko hamarkadan, gobernuaren babespean, lurrak esleitu ziren berriro, kontrainturgentziako estrategia modura; ondoren, 1987 eta 1988 bitartean, borondatez itzultzeko aukera eman zen, eta 1993tik 1995era, azkenik, modu antolatuan itzultzeko prozesua egin zen.

Gaur egun, mehatxatuta jarraitzen du Ixcánek, eta natura-baliabideak lortzeko eta lurraldea defendatzeko borroka bizien lekuko izaten jarraitzen du. Energiaren sektoreko enpresa handiek, petrolioaren sektoreak eta nekazaritza-industriak gutiziaz begiratzen diete eskualdeari eta haren baliabideei. Lurralde hori, gainera, oso militarizatuta<sup>18</sup> egon da, eta halaxe jarraitzen du; narkotrafikoa ere gero eta gehiago ari da hedatzen, eta lege-anabasa handia da lurren jabetza-tituluak direla eta; indarkeriaren eta autoritarismoaren kulturak sustrai sakonak ditu, eta oraindik osatu gabe daude iragan hurbileko zauriak<sup>19</sup>.

Bertzalde, oihanaren azalera nabarmenki ari da murrizten, legez zein legez kanpo gogotik mozten baitira basoetako zuhaitzak. Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren mugak, aurrera egiten jarraitzen du, sastatze- eta erretze-teknika badaezpadakoaren bidez (*slash & burn*). Faktore horiek guztiek, beroketa globalaren prozesu konplexuei lotuta, asaldura handiak eragin dituzte bai lurrean bai prezipitazioetan, eta kolokan jarri dituzte Ixcángo giza oreka eta ekologikoa.

---

<sup>18</sup> Izuardo, F. (2002). *Militarización en el Ixcán: delgadas líneas rojas*. Guatemala: Envío aldizkaria.

<sup>19</sup> Giza Eskubideen arloan legez ekiteko zentroa (Centro para la Acción Legal en Derechos Humanos – CALDH). Guatemala: *Pronunciamientos de las organizaciones sociales del Ixcán: no a la remilitarización*. Ixcán, 2009ko urriaren 2a. 35 gizarte-erakundek eta mugimenduk sinatua.

Hala eta guztiz ere, komunitateek beren kultura eta nortasunarekin bat dato-  
rren bizi-eredua garatu dute arian-arian, eta, erresistentzia horren fruitu, neka-  
zaritza-kooperatibak<sup>20</sup> eratu dituzte eta garrantzi handiko altxamendu eta auto-  
antolakuntzako prozesuak sortu; hala nola Xalaláko zentral hidroelektrikoaren  
eraikuntzari buruzko 2007ko komunitate-kontsulta.

Laburbilduz, hogeita hamar urte luzez gerra sufritu eta beste ha-  
markada batez itzulera- eta berreraikuntza-prozesuetan murgilduta  
egon ostean, aniztasun handiko lurraldea bilakatu da Ixcán, ekologia-  
ren zein gizartearen arloetan, historia eta nortasun berezia egituratu  
baitu denbora horretan. Aldi berean, natura-baliabideen ustiaketa  
lortzeko borroken eszenatoki latz ere bilakatu da, eta, ondorioz, lu-  
rraldea eta bizimodu jakin bat defendatzeko borrokaren lekuko.

## 2.2. ATZOKO ETA GAURKO ARAZOAK

### 2.2.1. *Etengabeko gabetzea eta nekazaritzaren auzia*

Gizarte-prozesu orok jatorri eta garapen zehatz bat ditu, eta haiek interpretatze-  
ko zenbait modu. Halaxe gertatzen da aztergai dugun indigenen erresistentzia-  
prozesuan ere. Ahots eta agiri ugari ematen dute azterlan honetan barrena  
aditzera Ixcángo indigenen erresistentzia-prozesu historiko zabalago baten  
barruan kokatu behar dela eta interpretazio eta lanketa zehatz bat eman behar  
zaiola, dagokion genealogia bereziari kontu eginda<sup>21</sup>. Nolanahi ere, “etengabe-  
ko gabetzearen” eta Ixcángo indigenen erresistentziaren gaur egungo ikuskerak  
“nekazaritzaren auzi” gatazkatsuen bidez berrazaleratu den prozesu historiko  
horretan ditu erroak.

Hala, bada, Bake Hitzarmen bidez, 1996tik aurrera bake-aldia ezarri eta adis-  
kidetze-prozesuari ekin zitzaion, hasiera batean gizarte ekitatiboago baten oina-  
rriak ezartzea zuelarik xede. Norabide horretan aurrera egiteko asmoz, funtsezko

<sup>20</sup> Ixcango nekazaritza-kooperatibei dagokionez, zenbait azterlanek ondorioztatu dutenez, garapen ekonomiko indartsua gertatu zen lurralde horretan 70eko hamarkadan, kooperatibisten bultzadari esker (Ikusi Vallejo, I. (2000). *Ixcán: Configuraciones de una región multi-étnica: identidad, relaciones interétnicas y conflicto*. CIRMA. Centro de Investigaciones de Mesoamérica. Pastoral Social/ IBIS Danimarka (36. orrialdea).

<sup>21</sup> Grandia, L. (2009). *Tz'aptz'ooqueb': El despojo recurrente del pueblo q'eqch'*. Guatemalako Hiria: Avancso.

bi erreforma proposatu ziren: nekazaritza-erreforma eta zerga-erreforma. Alabaina, akordioetatik 15 urte igaro direla, aurrerapausoak urriak izan dira; areago, atzerako bideari ekin zaiola ere hasi da entzuten, eta egoera horrek gabetzearen bertsio arriskutsuenera ere eraman lezake.

Indigenak nagusi diren landaguneetan –Ixcáñen, kasu–, Guatemalako gobernuak, Munduko Bankuak sustatuta, batez ere norbanakoei ematen die lurren jabetza-titulua, titulazio-modu horrek familiei ematen dien segurtasun juridikoak haien uneko egoera eta seme-alaben etorkizuna hobeto kudeatzeko aukera emango dielakoan. Aitzitik, ez da arretarik jartzen ez mekanismorik bilatzen eskubide kolektiboak sustatzeko edo titulazio-modu egokiagoak topatzeko, ez baita kontuan hartzen familiak eta komunitateak nola aritu diren orain arte lurraldea eta natura-baliabideak kudeatzen eta auziak konpontzen.

Areago, lurren jabetza-titulua norbanakoei emateko prozesu horrek gabetzearen beste bertsio bati bide egin dio, aspaldiko teknika batez baliatuta: “Txikien nahaste, handien irabazte”. Familiek, orain, lurrak saldu edo hipotekatu egin ditzakete. Familia txiroek nekez euts diezaiokete halako tentaldiari; esaterako, gaixotasunik edo zorrik izanez gero. Nekazaritza-industriaren eta abeltzaintzaren sektoreko interes korporatiboak (indartsuak) dira prozesu horren lehen onuradunak; izan ere, familia behartsuek dagoeneko landuta, ebakita, laboratuta eta garbituta dituzten lurrak erosteko eta metatzeko aukera ematen die prozesu horrek enpresei, trukean lurrengatiko ordaina esku-dirutan emango dietela agintzen baitiete familiei<sup>22</sup>.

### *2.2.2. Bi garapen-ereduren arteko gatazka*

Bi garapen-eredu eta lurraldea zein natura-baliabideak kudeatzeko eta usiatzeko bi modu daude Ixcáñen, elkarren aurkako lehian. Ereduetako batek teknologia eta ekonomia kapitalista ditu oinarri, eta erauzte-industria, nekazaritza-industria eta proiektu hidroelektrikoak ditu sustatzaile. Eredu horrek lurraren eta baliabideen erabilera “arrazionalagoa” bultzatzen du, irabazi gehiago lortze aldera.

Garapen-eredu hori kapitalismoan funtsatzen da, bete-betean, eta Guatemalako gobernuak 70eko hamarkadatik sustatzen duen proiektu zabal batean du isla:

---

<sup>22</sup> Ikusi Hurtado, L. (2008). *Las plantaciones para agrocombustibles y la pérdida de tierras para la producción de alimentos*. Actionaid.

Iparraldeko Zehar Errepidea da proiektu hori (Franja Transversal Norte - FTN)<sup>23</sup>, zeina Erdialdeko Amerikako istmorako Puebla - Panama Planaren (PPP) proiektuaren hedakuntzari ere lotuta baitago<sup>24</sup>.

Iparraldeko Zehar Errepidearen proiektuak errepide bat eraikitzea du asmo, haren bidez garapena sustatzeko, inbertsioak erakarriz eta eskualde horretan horren oparoak diren natura-baliabideak ustiatuz (petrolio, zura, mineralak, ura, lurra...), inbertsioek eta natura-baliabideak kudeatzeko eredu berriek (baliabide horiek behar baino gutxiago ustiatzen direla jotzen dute) modernizazioa eta aurrerabidea eramango dituztelakoan. Herrialdearen iparraldea garatzeko Guatemalako gobernuaren<sup>25</sup> plan hori 70eko hamarkadako da, gatazka armatuaren garaian etenda geratu baitziren Iparraldeko Zehar Zerrendaren proiektuak. Alabaina, goeko hamarkadan lanei berrekin egin zitzaizkien, natura-baliabideak (ura, mineralak, petrolio, nekazaritza-erregaien laborantza estentsiboa...) bete-betean ustiatzeko asmoz. Lurraren erabileraren gaineko liskarrak sortu ziren herritarrekin, lurra baitute haiek bizibide eta arbasoengandik jasotako garapenari buruzko ikuspegi arabera lantzen baitute. Petrolio-ustiapenak eta eskualde horretan ezarri den nekazaritza-erregaien laborantzak ez du herritarren bizi-maila hobetu.

Bestalde, begi-bistakoa da badagoela bai lurraldea bai hari ezinbestez uztarturiko natura-baliabideak aintzat hartzeko beste modu bat eta bizimodua, bizitza-sistemak eta aukerak egituratzeko beste era bat. “Eredu” horixe da, hain zuzen ere, laborariek –indigenak, gehienak– darabiltena, eta horixe da, neurri batean, beren ekintza politikoaren bidez aldarrikatzen dutena. Laborarien eredu<sup>26</sup> ustiategi txikitari antolatuta dago; usadiozko jakintzetan oinarritzen da, eta autosufizientzia ekonomikoa lortzera bideratuta dago, batik bat familiaren elikadurari

---

<sup>23</sup> Iparraldeko Zehar Errepidea Guatemalako iparraldean dagoen lur-zerrenda bat da; 362 kilometro bider 40 kilometro ditu, gutxi gorabehera, eta Izabal, Alta Verapaz, Quiché eta Huehuetenango departamentuak zeharkatzen ditu. Herrialdearen natura-aberastasunik handienetarikoa bat du lur-eremu horrek, eta altuera txikiko baso tropikaleko ekosistemaz josita dago. Klima epela da nagusi. Zerrenda horretan zenbait herrialde indigena daude, eta q'eqchi'ak dira nagusi –XIX. mendeko garai liberallean iritsi ziren lurralde horretara–. Herrialde indigena horietako askok komunitatean antolatzen jakin dute, ingurumena ahal beste babeste aldera. Eskualde horretan dago, halaber, Rubelsanto petrolio-gunea, Guatemalako bigarren petrolio-ustiatze gune handiena.

<sup>24</sup> Proiektu horrek hainbat ekimen hartzen zituen barne: errepideak eraikitzea, meatze-ustiatzeak irekitzea, baso- eta ur-baliabideak ustiatzea, miaketak egitea, petrolio ustiatzeko lizentziak ematea eta palma afrikarra nekazaritza-erregaitzat haztea, besteak beste.

<sup>25</sup> “Guatemalako Gobernuak Xalaláko presa hidroelektrikoaren proiektua sustatzen du, energia-premia asetzeko –gero eta handiagoa baita–, eta aldameneko herrialdeetara energia esportatzeko aukera izateko”. Infopress Centroamericana, 1723 zk., “Hidroeléctrica a licitación”, Guatemala, 2007ko iraila.

<sup>26</sup> “Inperioaren” ereduak eta “laborarienak” bizimodu-antolara dituzten desberdintasunei buruzko eztabaidan sakontzeko, ikusi Douwe van der Ploeg, J. (2010). *Nuevos campesinos. Campesinos e imperios alimentarios*.artzelona: Icaria argitaletxea.

dagokionez. Garapen-eredu edo -ikuspegi hori, edo, bestela esanda, bizitza onaren ikuspegi hori, mundu-ikuskerara jakin bati dagokio. Ikuspegi horren arabera, osotasun bateratu eta bereiztezin baten osagai dira bai bizitza bera, bai bizirau-pen-baliabideak.

Bi eredu horiek elkarren kontra talka egiten hasi dira Ixcáñen. Alabaina, bi ereduak ez daude maila berean, ez botereari, ez indarrari dagokienez. Horren erakusgarri da, esate baterako, Iparraldeko Zehar Errepidearen afera, haren aldekoek botere, diru eta teknologia gehiago baitute; gainera, estatua, ideologia jakin bat eta iritzi publikoa ere alde ditu proiektu horrek, haren bidez atzerapena, pobrezia eta zailtasunak gainditzeko aukera ikusten baitute, komunitate horietako herritarren iritziei eta aurreikuspenei entzungor eginda. Beste aldean daude laborarien komunitateak, inoren sostengurik gabe eta proiektu horrek kinka larrian utziak.

### *2.2.3. Xalaláko presaren kasua eta CIFCAren txostena<sup>27</sup>*

Proiektu hidroelektriko bat da Ixcángo gabetze-prozesuaren oldarraldi berrieneraiko bat: Xalalá presa, hain zuzen ere. Ez da proiektu bakartu bat, ez eta historiaren istripu bat ere, baizik eta Guatemalako estatuaren berriazko borondatearen beste adierazpide bat, eta Ixcángo natura-baliabideak ustiatzeko dauden interes korporatiboaren eta nazioarteko zein nazio barruko interesen isla. Bereziki uraren ustiaketa dute helburu interes horiek, energia bihurtzeko eta negozio hidroenergetiko bilakatzeko.

Azken oldarraldi horren atzean testuinguru jakin bat dago; izan ere, batetik, legehutsuneak daude Ixcáñen, luraren titulartasunari dagokionez, eta, bestetik, es-tutasun ekonomiko eta sozial larriak bizi ditu lurraldeak, baita giza ziurgabetasun handia ere. Azken batean, familia eta komunitate indigenen ahulezia dago egoera horren atzean. Dena dela, Xalaláren proiektuak begi-bistan jarri du, nazioarte-ko iritzi publikoaren aurrean, herrialde horretan bizi duten arazoa. Hori dela eta, nolabaiteko presioa egin ahal izan da Guatemalako boterearen aurrean; besteak beste, arazoa azaleratu eta gomendioak ematen dituzten txostenak kaleratu dira (CIFCAren txostena, esaterako), eta Guatemala barruan nahiz nazioartean auzi hori ezagutzera ematea lortu da, neurri batean behintzat.

---

<sup>27</sup> CIFCA. (2008). *Xalalá ¿Desarrollo para todos? Impactos y obligaciones en derechos humanos del Estado de Guatemala en la planificación y construcción de la hidroeléctrica y represa de Xalalá..* Brusela. Amerika Erdialderako eta Mexikorako Kopenhageko ekimena da CIFCA.

## 1. Koadroa. Chixoy presa. Zoritzarreko aurrekaria

Xalalá presak eta zentral hidroelektrikoak **Chixoyko zentral hidroelektrikoa** du **aurrekari**. Xalalá baino kilometro batzuk gorago dago Chixoyko zentrala, eta enpresa-talde pribatu batek (LAMI) eraiki zuen 1975-1983 urteetan, diktadura militarren garaian. Herrialde kaltetuenei, trukean, ur edangarria eta elektrizitatea izango zutela zin egin zitzairen, baina errealitatea oso bestelakoa izan zen, presak 23 herrixka urperatu baitzituen, eta **6.000 indigena maia achí** eragin zizkien galerak: lurrak galdu zituzten, komunikazio bideak hondatu eta arbasoen eremu sakratuak desegin.

Presaren kalteak jasango zituzten herritarrei aurretiaz informaziorik eman gabe eta inolako kontsultarik egin gabe, hasi ziren Chixoy presa eraikitzen. Herritarrek beren herrixketatik alde egin behar izan zuten, derrigorturik eta ezintasun-sentimendu latzarekin, bizia herrestan zeraman proiektu horren aurrean, aurretiaz inork ez baitziren haren gaineko informaziorik eman eta, are gutxiago, kontsultarik egin. Birkokatzeen eta konpentsazioen gaineko negoziazioa ustelduta zegoela eta herritarrak presio handiak jasotzen ari zirela hautemanda, kaltetutako komunitateen zenbait buruk erresistentzia antolatzeari eta **negoziazioak hobetzeko saiakerari** ekin zioten<sup>28</sup>. **Zanpatu** egin zituzten, baina. Armadak eta autodefentsa zibileko patruilek<sup>29</sup> **sarraskiak egin zituzten** herritarren kontra (Río Negro, 1982 eta 1983), eta bizirik iraun zutenek borrokan jarraitzen dute, oraindik ere zor dieten diru-ordaina eman diezaieten eta agindu zizkieten konpromisoak bete ditzaten, hots, agindutako errepideak eraiki ditzaten eta elektrizitatea erabiltzeko bide eman diezaieten.

Iturria: Txosten honetarako propio eginda, CIFCAren txostenean oinarrituta (2008). *Proyecto Xalalá ¿Desarrollo para todos? Impactos y obligaciones en derechos humanos del Estado de Guatemala en la planificación y construcción de la hidroeléctrica y represa de Xalalá*. Guatemala, 2008ko azaroa.

Guatemalako gobernua Xalalá proiektu hidroelektrikoa eraiki asmo du Chixoy eta Copón ibaien elkargunean, q'eqchi' komunitate maien bizileku den oihan-inguru batean, herrialdearen iparraldean. Egiten bada, instalazio hidroelektriko horrek 181 MW-eko kapazitate instalatua izango du, eta Guatemalako bigarren instalazio garrantzitsuena izango da. Proiektua Guatemalako Elektrifikazio Institutuak (INDE)

<sup>28</sup> Acción Contra el Hambre, “Memoria de la represa Chixoy Río Negro. Una investigación participativa del Asentamiento Pacux, Rabinal, Baja Verapaz”. Guatemala, 2005.

<sup>29</sup> “1982ko martxoaren 13an, Guatemalako armadak eta autodefentsa zibileko patruilek 70 emakume eta 107 haur hil zituzten Río Negroko herrixkan, eta 18 haur geratu ziren bizirik. Haur horiek gainera, beren familiak hil zituzten patruiletako kideekin batera bizitzera behartu zituzten bi urtez ia. Bi komunitateak, Xococ eta Río Negro (Baja Verapaz), achí etniakoak dira”. Historia argitzearen aldeko batzordea, *Memoria del Silencio* I. liburukia, I. eranskina, VI. kapitulua, 10. adibidea, Guatemala: 1999.



2001ean argitaratutako Guatemalako elektrifikazio-plan nagusiaren barruan jaso zen, eta sorkuntza-sistemaren 2008-2022 hedapen-planean berreskuratu zen (**Plan de Expansión Indicativo del Sistema de Generación 2008-2022**). Bai Energia eta Meatze Ministerioak bai Guatemalako lehiakortasun-programak jo eta su dihardute proiekturako inbertitzaileak erakartzeko sustapen-kanpaina egiten. Madre Selva erakunde ekologistak egindako azterlan baten arabera, baina, urtegiak 42 kilometro koadro hartuko ditu urpean, eta zuzeneko eragina izango du Cobán, Uspantán eta Ixcán udalerrietako 49 komunitate q'eqchi'ren laborantza-lurretan.

Xalaláko<sup>30</sup> proiektu hidroelektrikoari dagokionez, Guatemalako Elektrifikazio Institutuak (INDE) eta Energia eta Meatze Ministerioak proiektua lehiaketan ateratzea erabaki zuten, 2007an, “giltza eskura” modalitatean, eta % 80 atzerriko kapitala eta % 20 Guatemalako zuten partzuergoei zuzendu zitzaizen lehiaketa. Lehiaketa irabazten duen partzuergoak, zentral hidroelektrikoa eraikitzeaz gain, egin beharreko azterlan guztiak egin beharko ditu (azterlan teknikoak, egingarritasun-azterketak, ingurumen-eraginari buruzko ikerketak), baita obraren eraginpeko herriekiko negoziazioak bideratu ere. Ordainetan, 30 urtez edukiko du zentral hidroelektrikoa ustiatzeko baimena, eta INDEri salduko dio sortzen duen energia. Epe hori igarota, INDE bera egingo da zentralaren kargu. Nahiz eta zenbait enpresak eskaintza egiteko interesa azaldu (Estatu Batuetako AES, Kolonbiako Insagen, Espainiako Unión Fenosa, Iberdrola eta Endesa, Taiwango Taiwan Power Co., Brasilgo Odebretch, Italiako Enel eta kapital mexikarra), azkenean inork ez zuen eskaintzarik aurkeztu.

INDEk eta Energia eta Meatze Ministerioak mundu osoko krisi ekonomikoari eta nazioarteko merkatuen likidezia-faltari leporatu diote eskaintza-falta hori. Era berean, adierazi izan da zenbait enpresak “ez zutela gobernuaren aldetik behar beste laguntzarik jaso komunitateek zentralaren aurka duten jarrerari aurre egiteko” eta “arriskuak hautematen zituztela gizarteari, ingurumenari eta tarifei zegokienez”, eta horregatik ez zutela eskaintzarik aurkeztu<sup>31</sup>. Egoera hori ikusirik, gobernuak esan zuen beste modalitate batzuk aztertzen ari zela, hala nola berriz ere eskaintza-lehiaketa antolatzea edo, bestela, proiektua bankuren baten esku uztea (Erdialdeko Amerikako Integrazio Bankua, Amerika arteko Garapen Bankua edo Munduko Bankua), hark finantzatu eta, ondoren, azpikontratazio bidez kudea dezan.

---

<sup>30</sup> Proiektu horren barruan instalazio hidroelektriko bat egitea da asmoa. Instalazio horrek 181 megawatt-eko kapazitate instalatua izango du, eta urtean 886 GW sortzeko aurreikuspena; alegia, Guatemalan sortutako kapazitate instalatuaren % 9 eta energiaren % 12. Aurrekontua 312 milioi dolarrekoa da. Ikusi INDE, *Situación del subsector eléctrico*, Guatemala, 2007ko urria, 33-38. orr.

<sup>31</sup> *Siglo XXI*, “Xalalá ez zaie interesatzen inbertitzaileei”, Guatemala, 2008ko azaroaren 7an; *Prensa Libre*, “Hutsik geratu da Xalaláko zentral hidroelektrikoaren lizitazioa”. Guatemala, 2008ko azaroaren 7a.

Xalaláko proiektuaren gaineko zalantza- eta liskar-testuinguru horretan, CIFCA txostena argitaratu zen, giza eskubideen ikuspegitik azterketa independente bat egite aldera, zehazki jakiteko Xalaláko zentral hidroelektrikoa eraikitzeak zer-nolako eragina izango lukeen eremu horretako komunitateetan eta haien bizimoduan, biziraupenean, elikadura-iturrietan, ura eskuratzeko aukeretan, etxebizitza-eskubidean eta lurraz baliatzeko eskubidean, besteak beste. CIFCAren txostenak, antzeko beste txosten batzuek bezala<sup>32</sup>, eremu horretako herritarren ezintasuna azpimarratzen du, baita proiektu horrek sortzen duen interesen arteko talka ere (energia sortzeko aukera, batetik, eta lurraldearen eta hango ekonomiaren defentsa, bestetik), eta gomendio-sorta bat ematen du, lurralde horretako herrien eskubide oinarrizkoenak bermatze aldera.

Izan ere, Xalaláko proiektua gauzatu asmo den eremuan herrialdeko egitura-arazo askok egiten dute bat: herriek eta komunitateek ez dute lurraldearen titular-tasunaren gaineko ziurtasun juridikorik, eta liskarrak daude lurra eta natura-baliabideak direla-eta; izan ere, herri indigenen bizibidearen, ekoizpenaren eta mundu-ikuskeraren oinarri dira lurra eta natura-baliabideak, baina,aldi berean, baita garapen-eredu zehatz baten jomuga ere, zeinak multinazionalen interesak lehenesten baititu pertsonen premien gainetik eta ez baitu laborarien eta indigenen ekonomia babesten esportaziorako nekazaritza-ekoizpenetik.

## 2.3. KOMUNITATEEN GIZARTE-EKINTZA: INDIGENEN ERRESISTENTZIA

### 2.3.1. *Maién nortasuna: lurra eta lurraldea*

Ixcángo komunitateen lurraldea eta natura-baliabideak defendatzeko gizarte-ekintzaren funtsa estu lotuta dago komunitate horien biziraupenari eta mundu-ikuskerari, lurraldea eta haren natura-baliabideak ulertzeko, kudeatzeko eta zaintzeko bestelako modu bat proposatzen baitu.

**“Natura-baliabideen aldeko borroka da indigenen azken lubakia. Lurra defendatu, ala indigena izateari utzi”.**

Máximo Ba Tiul, antropologo eta abokatu guatemalarra.

<sup>32</sup> Ikusi Botón, S. (2007). *¿De qué sirve la luz para quienes no quieren ver la luz? Un primer acercamiento para conocer el proyecto hidroeléctrico Xalalá y la identificación de las comunidades que posiblemente quedarían en el área de influencia directa*. Ixcán: Pastoral Social eta FGARDA. (2009). *Informe de situación general sobre violaciones a los derechos colectivos de pueblos y comunidades indígenas afectadas y amenazadas por la construcción de hidroeléctricas en Guatemala*. Victor Abramovich komisioidunaren aurrean aurkeztua. Victor Abramovich Amerikako herrialdeen arteko giza eskubideen batzordearen (CIDH) errelatorea da, herrialde indigenen eta Guatemalako auzien gainean.

Defentsa hori du ardatz lurraldea mehatxatzen duten oldarrei aurre egiteko erresistentziaren gizarte-ekintzak. Hala egiten zaie aurre, besteak beste, zentral hidroelektrikoen eraikuntzari, petrolio-miaketa eta -ustiatetari eta erauzte-industriei edo palma afrikarra ustiatzeko industriei. Gizarte-ekintza horrek erresistentzia aldarrikatzen du garapen-eredu zehatz bati eta natura-baliabideen ustiaketa ulertzeko modu bati aurre egiteko. Izan ere, eredu horrek (i) talka egiten du maien bizitza-ulerkerarekin eta haien mundu-ikuskerari lotutako naturarekiko harremanekin, (ii) zuzenean mehatxatzen du maien bizimoduaren funtsa, lurraren eta baliabideen jakintza eta erabilera tradizioaletan oinarritzen baitira haien ekoizpen-eta kontsumo-moduak, “nekazaritza-ekologiaren” eta laborantza-ekonomiaren planteamenduetatik hurbil<sup>33</sup>.

Horrela, bada, Ixcángo komunitateetako indigenen erresistentziak bitariko osagaiak ditu: ideologikoak (ideia jakin batzuen eta nortasun zehatz baten defentsa) batetik, eta materialak (baliabide batzuen defentsa), bestetik. Lurraren eta lurraldearen defentsari, nortasunaren eta mundu-ikuskeraren defentsa ere gehitzen zaizkio. Landa-lanean jaso diren zenbait kontakizunetan, herri indigena modura bizirauteko borrokaren eremuan kokatzen dute elkarrizketatuek ekintza. Alabaina, Guatemalako nortasun indigenaren auzia ere korapilatsua da, eta azterketa sakonagoa eskatzen du. Maien nortasunak zenbateraino eta zer baldintzarekin bultzatzen ditu Ixcánen bizi diren etniak eta komunitateak borroka eta erresistentzia bateratua egitera?

Ixcánen elkarren ondoan bizi diren herrialdeek nahiko nortasun indartsua dute, haien arbaso maiengandik jaso eta belaunaldiz belaunaldi iraun duen mundu-ikuskeran oinarrituta.

Maien mundu-ikuskeraren eta espiritualtasunaren osagai asko gorde dituzte komunitate horiek, nahiz eta bost mendean baino gehiagoan ekonomikoki, politikoki zein kulturalki azpiratuta egon. Garrantzi berezia ematen diete familia edo komunitate barruan laborantza-aldi edo bizitzaren une jakin batzuetan ongizatea eskatzeko edo jasotako uzta eskertzeko egiten dituzten ospakizunei. Maien espiritualitatea, beraz, eguneroko bizimoduan irmoazaleratzen da, naturaren zikloi eta osagaiei estu lotuta. “Bizitza onaren” nozioa maila espiritual, sozial eta fisikoaren

---

<sup>33</sup> Gai honi buruzko zertzelada batzuk jasotzeko, ikusi, errate baterako, Gómez-Baggethun, E. (2011). “Perspectivas del conocimiento ecológico local ante el proceso de globalización”, in Álvarez Cantalapiera, S. (koord). (2001). *Convivir para perdurar. Conflictos ecológicos y sabidurías ecológicas*. Bartzelona. Icaria argitaletxea.

arteko orekaren bilaketan datza, hiru alderdi horiek bat egiten baitute gizabako bakoitzaren nortasunean. Bestalde, mundu-ikuskeraren arabera, bizitza ona familiarentzat eta komunitatearentzat erabilgarria den bizitza da; horrenbestez, bizitza onaren muin-muinean dago komunitatearen edo taldearen osagaia.

Alabaina, nortasun hori ez da guztiz zurruna, eboluzionatzen ari baita izaera maia berrietarantz. Nortasunaren eboluzio hori ulertzeko, ezinbestekoa da kontuan hartzea Ixcángo bizitzaren oinarri izan den migrazioaren eta lekualdatzeen fenomenoak. Askotariko eraginak jaso dituzte, belaunaldiz belaunaldi, Ixcángo herri-tarrek: gerra-garaiko babesguneak, erresistentzia eta barne-desplazamenduak, baita Mexikora eta Estatu Batuetara egindako migrazio ekonomikoak ere. Eragin horiei, bestalde, nagusi den Mendebaldeko kulturak ezari-ezarian inposatutakoa ere gehitu behar zaie.

Ixcángo komunitateen gizarte-ekintza, azken batean, erresistentzia indigenaren ekintza da. Komunitate horien iritziz, enpresa hidroelektrikoak, erazte-industria edo nekazaritza-industria ez dira inondik ere onuragarri izango Ixcángo komunitateentzat eta familientzat; aitzitik, haien bizi-baldintzen pobrezia, eskasia eta narriadura areagotu egin ditzake. Bestalde, begi-bistakoa da erresistentzia-ekintza horri lotutako nortasun-osagaia; hau da, ezarri nahi den garapen-ereduak talka egiten du herri horien mundu-ikuskerarekin, haren baitan, begirunez baliatzen eta zaintzen baitira natura-baliabi-deak, “bizitza onaren” ikuspegi bateratu eta bateratzailea ardatz hartuta, eta edukiz hornitzen baita herri-nortasuna.

### *2.3.2. Erresistentzia-estrategiaren erronka nagusiak*

Landa-lanaren fruitu, hiru erronka nagusi zehaztu dira erresistentzia indigenaren barruan, eta, hain zuzen ere, erronka horietara bideratzen ari dira bai komunitateen bai lurraldean laguntzaile diharduten elkarten gizarte-ekintzaren ahalegin nagusiak. Lehen erronka lurraldearen gaineko eskubide indibidualak eta kolektiboak bermatzea da, ezinbestekotzat jotzen baita Ixcángo familien eta komunitateen segurtasun juridiko ezak eragindako arazo larriari aurre egin ahal izateko. Bigarren erronka komunitateen batasuna indartzea da, Guatemalan antzeko arazoak dituzten beste mugimendu batzuekin antolatuta ahal izateko, eta beren lurraldeetan ezarri asmo dituzten garapen-planei buruz askatasunez erabakitze eskubidea

aldarrikatzeko. Hirugarren erronkak bi adar ditu: nortasuna eta mundu-ikuskera defendatzea, batetik, eta batasuna sendotzea, bestetik –“modernotasunari aurre egitea” izena eman zaio bigarren erronka horri<sup>34</sup>.

### **A. Lurraren gaineko eskubide indibidual eta kolektiboen bermea**

Populazio-prozesu gorabeheratsuak bizi izan ditu Ixcánek: diaspora behartua, errefuxiatuen itzulera. Horrek guztiak are gehiago gaiztotu du Ixcángo antzina-antzinako gatazka. Izan ere, eragile gutxi batzuen eskuetan (familia edo enpresa gutxi batzuen eskuetan) metatzen da lurraren jabetza Ixcánen, eta, beste muturrean, herritar gehien-gehienek segurtasun juridikoaren gabezia ikaragarria pairatzen dute. Egoera hori da, azken batean, hango gatazkaren muina.

Ixcánen, bada, familia eta komunitate batzuek, lurra lantzen aritu arren eta han bizitzen badihardute ere, ez dute lur horren jabetzarekiko segurtasun juridikorik; alegia, ezin diote estatuari frogatu lur horren jabe direnik. Bada beste gatazka-iturririk ere; izan ere, gerta liteke bi aldeek lur beraren jabetza aldarrikatzea: lur hori landu eta hartan bizi diren familiek edota komunitatek, batetik, eta jabetza hori frogatzeko argudio juridiko eta/edo frogagiriak dituzten eragileek, bestetik –azken horiek, bada, auzitegira eraman dezakete kasua<sup>35</sup>.

Ziurgabetasun juridikoari, sarri askotan, defentsa-gabezia ere gehitzen zaio, eta egoera horrek herstura eragiten die lurralde horretako biztanleei. Horixe da, hain justu ere, Ixcángo gatazkaren sorburu nagusietako bat. Egoera horri, gainera, beste osagai bat ere gehitu behar zaio; izan ere, Guatemalako estatuaren aspaldiko erakunde bat, INTA (nekazaritza eraldatzeko institutua), bi hamarkadaz aritu zen nekazaritzaren auzian esku-hartzen, kontraintsurgentzia zuelarik helburu. Egoera horrek are gehiago gaiztotu zuen arazoa, indarkeriak Ixcánen sorrarazitako polarizazio politiko eta ideologikoa areagotu eta herritar-taldeak elkarren kontra jarri baitzituen.

---

<sup>34</sup> Landa-lanean barrena egindako elkarrizketa eta tailer gehienetan hauteman denez, lehen erronka ondo zehaztuta dago, eta argi eta garbi jabetzen dira hartaz; bigarren eta hirugarren erronken kasuan, aldiz, herritar batzuk hobeto jabetzen dira horietaz, hain zuzen ere, gizarte-mugimenduekin, akademiarekin eta mugimendu politikoekin edota ikerketarekin lotura handiagoa dutenak.

<sup>35</sup> Guatemalako nekazaritza-gatazkaren adierazpide berriak sakonago aztertzeke, ikusi Martínez Anioarte, J.C. & Villagran García, C. (koord.). (2009). *Conflicto por el uso de la tierra. Nuevas expresiones de la conflictividad agraria en Guatemala*. Guatemala: Instituto de Transformación de Conflictos para la Paz (INTRAPAZ).

2000ko lehen hamarkadan, Guatemalako estatuaren FONTIERRAS erakundeak ahalegin handia egin du lurra erregulatzeko eta eskriturak legeztatzeko, auzi latz horri konponbidea ematearren (ordezkaritza du Ixcáñen FONTIERRAS erakundeak). Lurra titularizatzeko prozesuan aurrerapausoak egin badira ere, oso ahul jarraitzen dute familiek eta komunitateek; hala, bada, lurra baliatzeko eskubidea da oraindik ere Ixcángo erronka nagusia eta udalerrriaren gizarte-ekintzaren katalizatzaile garrantzitsu bat.

Izan ere, FONTIERRASek Ixcáñen duen ordezkaritzak lurren jabetza-titulua norbanakoei emateko prozesua bultzatu du nagusiki. Galdegindako iturrien arabera, ez da ia aurrerapausorik egon lurraldearen eskubide kolektiboak onesteko prozesuan, nahiz eta eskubide hori jasota dagoen Guatemalako Konstituzioaren 67. eta 68. artikuluetan, baita Lanaren Nazioarteko Erakundearen 169. Hitzarmenean eta Herrialde Indigenen Eskubideen 2007ko Adierazpenean ere. Elkarrizketatutako zenbait lagunek adierazi dute ezinbestekoa dela eskubide kolektiboen onespeneraren alde borroka egitea. Horretarako, beharrezkotzat jotzen dute nazioartean zein Guatemalan bertan eskubide kolektibo horiek babesten dituzten zuzenbide-esparruak hobeto ezagutzea eta eskubide horiek erabiltzeko bide eta baldintza guztiak arakatzea. Eskubide kolektibo horiek onesteko bidean aurrera egiteko premia nabarmendu duten horiek berek erakutsi dute, halaber, “aniztasun juridikoari”<sup>36</sup> lotutako joeretatik gertueneko jarrera.

Zenbait ikertzailek eta gizarte-erakundeak diotenez, eskriturak norbanakoei emateko prozesua lehenestek arazo ugari ekar ditzake Ixcáñen eta haren antzeko testuinguruetan, eta ez die babes juridiko handiagoa ematen familia eta komunitate gehienei; aitzitik, baliteke prozesu horren ondorioz lurra eragile gutxiagoren esku geratzea, salerosketaren bidez. Hala, bada, eskriturak norbanakoei emateak ez du ezinbestean jabetza familien esku geratuko denik bermatzen, familiek lurra saltzeko erabakia har baitezakete gero; izan ere, familiek kanpoko presio handia jasotzen dute maiz (enpresa batzuen eskutik, esate baterako), ezintasun larri eta muturrekoan daudela baliatuta.

---

<sup>36</sup> Aniztasun juridikoa, nolabait esatearren, lurralde berean aldi berean bi zuzenbide-sistema edukitzea da: zuzenbide indigena, batetik, eta estatuaren zuzenbidea, bestetik. Jarrera hori hainbat ikertzaile ari dira aztertzen, hala nola Máximo Ba Tiul, Antropologia Juridikoaren Latinoamerikako Sareko kidea.

Laburbilduz, lurraren gaineko eskubideak lortzeko borroka funtsezko ardatza da Ixcángo gizarte-ekintzan, mobilizaziorako eta ekintza kolektiborako katalizatzailea baita. Iraganeko gertakizunek oinordetzan utzi duten egungo egoera izugarri zaila da, nahiz eta azken hamarkadan FONTIERRAS programak zenbait saiakera egin dituen lurren izaera eta jabetza araupetzeko, lurren jabetza-titulua norbanakoei emateko prozesua hartuta jardunbide nagusitzat. Ez da ia aurrerapausorik egon lurraren eta lurraldearen gaineko eskubide kolektiboen aitortzan. Lurraren gaineko eskriturak banan-banan emateak ez du ezinbestean lurraldearen babesa bermatzen, jardunbide horrek banan-banako salmentari bide ematen baitio ezintasun handiko tes-tuinguru horretan.

### ***B. Batasuna, mugimenduen uztardura eta autogobernua sendotzen.***

Lurraldearen alde borroka egiteko familien eta komunitateen batasuna indartzea funtsezko erronkatzat jo da Ixcángo gizarte-ekintzan. Komunitateek nortasun bera dute (maia) eta mundu-ikuskerara bera. Horiexek dira, hain zuzen ere, batasun hori sendotzeko indarguneak.

Alabaina, batasun hori ahultzeko presio indartsua ere hauteman da. Hainbat ekintza-modu baliatzen dituzte horretarako: liderrak kooptatuzetik eta lidergoak banatuzetik hasi eta lurren jabeei presioa egiteraino, lurrak banaka saldu eta/edo laborantza tradizionalak ordeztu ditzaten. Esate baterako, landa-lana egin denean izugarri arriskutsutzat jo da olio-palma (palma afrikarra) ereitea, nahiz eta horixe sustatu gobernu-programek; izan ere, laborantza horrek lurren kalitatea hondatu egiten du, eta zorpetu egiten ditu familiak, haziak eta ongarriak hornitzen dituzten enpresen mende jarrita; alegia, murriztu egiten du haien autonomia. Barne-batasunari dago-kionez, berriz, kezka azaldu da, orobat, “modernotasunari aurre egiteko” erronka-ren nondik norakoak direla eta. Oro har, hausnarketa kolektiboaren maila areagotzeko premia handia dagoela hauteman da, baita zenbait arriskuz –hala nola, elikadura-egoera okertzeko arriskuaz– ohartarazteko beharra ere, arrisku horiek galbidera eraman baitezakete lurraldea eta Ixcáneko lur-erabilera tradizionalak.

Bestalde, Guatemalako beste herrialde batzuetan ere antzeko arazoei aurre egiteko (zentral hidroelektrikoen eraikuntzari, esaterako) komunitateek egiten dituzten borrokekin eta erresistentziarekin hobeto bat egiteko premia ere azaleratu

da. Lurraldeen eta komunitateen borroka antolatzen borondate horren beste adibide bat Guatemalan presek kaltetutako eta mehatxatutako herritarren eta uraren aldeko frontea da (**Frente Guatemalteco de Afectados y Amenazados por las Represas y en Defensa del Agua – FGARDA**)<sup>37</sup>. Fronte hori funtsezko helburutzat jotzen da komunitateen arteko batasuna eta elkartasuna lortzeko, baliabideen pribatizazioari aurre egiteko, herri indigenen eskubideak defendatzeko eta bestelako aukera batzuei bide emateko.

Elkarrizketatutako zenbait lagunek, azkenik, tokiko boterea indartzeko ezinbesteko erronkatzat jo dute kontsulta-eskubidea eta erabakitasun askea errespetatzea –betiere Lanaren Nazioarteko Erakundearen 169. Hitzarmenean jasotako baldintzen pean–, baita autogobernu handiagoa aldarrikatzea ere. Alabaina, elkarrizketatutako lagunek, tokiko boterearen auziaz dihardutela, hainbat ñabardura adierazi dituzte, bakoitzak aniztasun juridikoaren gainean duen jarreraren arabera (alegia, zenbateraino dauden indigenen botere-egitura eta estatuarena elkarrekin bizi ahal izatearen alde). Nolanahi dela ere, Komunitatearen eta Udalen Garapen Kontseiluen bidez (COCODE eta COMUDE) ahotsa bideratzeko eta herritarren parte-hartzea indartzeko beharra azpimarratu da.

### ***C. Modernotasunari aurre egiten***

Indigenen erresistentzia-estrategiara bideratutako gizarte-ekintzaren hirugarren erronka handia “modernotasunari aurre egitea” da. Erronka horri estu lotuta daude egungo globalizazio-garaietan batasuna sendotzea eta maien nortasunari eta mundu-ikuskerari eustea.

Erronka hori deskribatzean, elkarrizketatuek kezka berezia azaldu dute herritarren sektore zehatz baten gainean. Sektore hori gazteek osatzen dute nagusiki (ez, baina, gazteek bakarrik), eta ez du lurraldea defendatzeko grinarik erakusten, ezta baliabideak eta nortasuna babesteko premiarik ere; izan ere, bestelako bizimodu batzuk, bizimodu “kontsumistagoak”, dituzte helburu.

Erronka hori are handiagoa da, kontuan hartuta gaur egungo testuinguruan jori-joriak direla mota guztietako mezuak eta propaganda, zeinetan Mendebaldeko bizimoduaren onurak azpimarratzen baitira eta maien mundu-ikuskerarekin eta indigenen erresistentziaren ikuspegiarekin talka egiten duten garapen- eta aurre-erapen-nozioak sustatzen.

---

<sup>37</sup> Fronte honi buruzko informazio gehiago jasotzeko (historia, aurrekariak, helburuak eta planteamenduak), jo orrialde hauetara: <http://fgarda.wordpress.com/> eta <http://frentenacionalcontrarepresas.wordpress.com/fgarda>



### 2.3.3. *Ixcángo erresistentziaren baliabide nagusiak*

Beren lurraldea babesteko indigenen erresistentzia erabiltzen ari den hiru baliabide nagusi zehaztu dira Ixcángo kasuan. Horietako bat komunitateari egiten zaizkion kontsultak dira, horretarako eskubidea ematen baitute bai Lanaren Nazioarteko Erakundearen 169. Hitzarmenak, bai Herrialde Indigenen Eskubideen 2007ko Adierazpenak. Bigarren baliabidea Ixcánen abian jarritako ekintza politikoaren barruan egiten diren mobilizazioak, salaketak eta memorialak dira. Hirugarren baliabidea, berriz, ez da horren begi-bistakoa, eta helburu zehatz batzuk ditu: komunitateen barne-batasuna indartzea, haien lurraldetasuna aitortzea eta komunitateei beren ahalaz jabetzeko ekimenak, *komunitate-diagnostikoak* izenekoak, lantzea.

#### **A. Kontsultak komunitateari**

Komunitateari kontsultak egitea du ekintza politikoaren baliabide nagusietako bat indigenen erresistentzia-estrategiak. Kasu honetan, zentral hidroelektrikoen edota erauzte-industrien (petrolio eta meatzea) gainean hausnarketa eta kontzientziazioa sustatzeko baliabide garrantzitsua izan dira.

Kontsulta-mota horiek berreskuratu egiten dute maia herriaren ibilbide garrantzitsu bat eta betiko jardunbide bat, Guatemalako zein nazioarteko zuzenbide-esparruaren babespean, gainera; izan ere, legeek lehentasunen eta garapen-erduen gainean askatasunez erabakitze eskubidea onesten diete herriei; aitortu egiten dute, orobat, estatuek herriei galdetzeko betebeharra dutela, lizentziak esleitzeko, legeak onartzeko edo garapen-obra egiteko, baldin eta jardun horiek indigenen bizimoduari edo lurraldeari eragin badietzaiokete. Nazioarteko zuzenbidearen barruan, Lanaren Nazioarteko Erakundearen 169. Hitzarmenak, Herrialde Indigenen Eskubideen 2007ko Adierazpenak eta Giza Eskubideen Amerika arteko Auzitegiaren Jurisprudentziak babesten dute, zehazki, kontsulta-eskubidea. Guatemalako zuzenbidearen esparruan, berriz, Konstituzio Politikoan, Udal Kodean, Komunitateen Garapeneko Batzordeen Legean eta Herrialde indigenen nortasunari eta eskubideei buruzko akordioetan jasotzen da kontsulta-eskubidea.

Ixcánen 2007ko apirilaren 20an egindako fede oneko komunitate-kontsultan, Xalaláko zentral hidroelektrikoaren eraikuntzari buruz eta petrolio-esplorazio eta -ustiaketari buruz galdetu zitzaion komunitateari. 21.155 lagunek hartu zuten parte kontsultan, eta emaitzek “ezezko” garbia eman zieten bai zentral hidroelektrikoei, bai petrolio-esplorazioari eta -ustiaketari (botoen % 89,73 ezezkoak izan ziren). Herritarren % 8,65 jarduketa horien alde agertu zen, eta % 1,63 abstenitu

egin zen, berariaz. Kontsula hori nahiko ezaguna izan zen Guatemalan zein Guatemalatik kanpo (batik bat CIFCaren txostenaren bidez), eta funtsezko mugarriztat jo da Ixcángo erresistentzia indigenaren estrategian. Eredu ere bilakatu da Guatemalan ondoren izan diren beste kontsulta batzuetan.

Izan ere, Ixcángo kontsultaren ostean, beste kontsulta batzuk ere egin dira hurbi-leko udalerrietan, hala nola Santa Cruz del Quichén (2010eko urriaren 22an) eta haren ondoko Uspatán udalerrian (2010eko urriaren 29an), eta Ixcángo emaitzen antzeko emaitzak izan dira horietan ere, proiektuaren alde zein kontra.

Berrogeita hamar komunitate-kontsulta baino gehiago egin dira Guatemalako udalerrietan, eta Nazioarteko eta Guatemalako legeen babesa izan arren, Guatemalako estatuak ez die lotura-indarririk onartu<sup>38</sup>. Komunitate-kontsulten balio juridikoa oso gatazkatsua da Guatemalan, eta ebatzi gabe dago oraindik ere. Herrialdean barrena han eta hemen kontsultak ugaltu egin direla ohartuta, Guatemalako estatuak kontsultak egiteko prozedura araupetzeko prozesu bat sustatu du, baina elkarte eta mugimendu indigena gehienek uko egin diote prozedura horri<sup>39</sup>. Auzitegi Konstituzionalak behin betiko babesa eman zien 2011n proposamen legegile horren aurka egin zuten agintari eta elkarte indigenei.

Hitz bitan, kontsultak funtsezko tresnak dira indigenen erresistentzia-estrategian. Guztiz errotuta daude maien historian eta mundu-ikuskeran, eta zuzenbide-esparruaren babesa dute Guatemalan bertan zein nazioartean. Hala ere, Guatemalako estatuak ez die orain arte egindako kontsultei balio juridikorik aitortzen; beraz, ez dio balio juridikorik ematen Ixcánen 2007ko apirilean Xalaláko proiektu hidroelektrikoari buruz egindako fede oneko komunitate-kontsultari, ezta beste hainbati ere. Kontsulta hori, nolahi ere, erabakigarria izan da Ixcángo gizarte-ekintzarentzat, eta ezaguna egin da Guatemalan zein Guatemalatik kanpora.

<sup>38</sup> Sipakapako kontsultaren kasuan egindako epaian, 2007an, Auzitegi Konstituzionalak ebatzi zuen udal-kodearen arabera egindako komunitate-kontsultak legezkoak direla eta herri indigenek kontsulta horiek egiteko eskubidea dutela, baina Guatemalako estatuak ez duela emaitza horiek errespetatzeko betebeharririk, lizentzien esleipena gobernu zentralaren eskumena baita. Aitzitik, San Juan Sacatepequezeko kontsulta zela-eta 2009ko abenduaren 21ean Auzitegi Konstituzionalak emandako epaian, herriei egin beharreko kontsulta egin gabe natura-baliabideak ustiatzeko emandako lizentziak baliogabeak direla onetsi zuen, indigenen eskubideak babesteko nazioarteko hitzarmenetan ezarritakoari jarraikiz, Guatemalak ere sinatu baititu hitzarmen horiek.

<sup>39</sup> Arautze-proiektuari eta harekiko jarrerari buruz azalpen xeheagoa jasotzeko, ikusi *Comentarios del Relator Especial Sobre los Derechos de los Pueblos Indígenas en Relación con el Borrador Preliminar de Reglamento Para el Proceso de Consulta del Convenio 169 de la OIT Sobre Pueblos Indígenas y Tribales en Países Independientes (Guatemala)*.

## ***B. Salaketak, mobilizazioak eta lobby-ekintzak***

Komunitateek, indigenen erresistentzia-estrategiari jarraiki, salaketak eta mobilizazioak egiten eta memorialak edo adierazpenak zabaltzen dituzte, herri indigenen eta lurraldearen eskubideen defentsan.

Salaketa eta mobilizazio horien bidez Guatemalako eta nazioarteko iritzi publikoaren arreta lortu nahi da, botere politikoak erabakiak hartzera bultzatzeko. Baliabide horiek erabiltzeko, funtsezkoa da komunitateei laguntza ematen dieten gizarte zibileko erakundeen lana; garrantzitsua da, halaber, sare-lana lotzea eta beste lurralde eta mugimendu batzuekin borroka-indarrak bateratzea. Baliabide horiek erabili ziren, esate baterako, Xalalá, San Juan, San Luís eta Palo Viejoko presen kontra egindako mobilizazio eta salaketa bateratuan, 2010eko irailaren 30ean.

Era berean, borroka-indarrak eta mobilizazio-borondateak elkarri lotzeko estrategiaren fruitu izan da, adibidez, **Presen kontrako Fronte Nazionala**, zenbait departamentu (hala nola, Alta Verapaz eta Petén) eta udalerrien indarrak eta mobilizazioak bateratzea lortu baita ekimen horretan. Landa-lanean hauteman denez, estrategia bateratu hori pixkanaka Guatemala osora zabaltzeko nahia dago, Frontearen bidez salaketa- eta mobilizazio-ahalegin guztiak bateratzeko eta ministerioetara eta eragile politikoetara zuzendutako zenbait lobby-ekintza zehatz bultzatzeko. Lurralde bakoitzean nork bere aldetik prentsaurrekoak ematen, memorialak idazten eta ministerio-zitazioak lortzen jarraitzen bada ere, sinergia eta antolamendu bateratua eraikitzea dute helburu.

Komunikabideen egitekoa ezinbestekoa da baliabide sorta hori egokiro garatzeko, mugimendu hori guztia ikusgarri gerta dadin Guatemalan bertan zein nazioartean. Garrantzitsua da, orobat, kaltetutako komunitateak barrutik sendotzea eta egokiro kontzientziaztea (horretarako, irratia da komunikabide aproposena).

Laburbilduz, indigenen erresistentzia-estrategia baliabide mordoxka bat erabiltzen ari da, eragin politikoa eta gizarte-mobilizazioa sustatze aldera. Gizarte zibilaren erakundeen eginkizuna ezinbestekoa izan da baliabide horien erabileran; funtsezkoa izan da, orobat, borrokak Fronte Nazional baten ardatzean egituratzea eta komunikabideez baliatzea mezu eta aldarrikapen nagusiak ezagutarazteko.

## ***C. Diagnostikoak: “Zer garen, horixe balioestea; zer dugun, horixe kontuan hartzea”***

Partaidetza diagnostiko komunitarioak lantzea izan da Xalaláko presaren mehatxu-pean dauden komunitateak barnetik indartzeko ekintza politikoaren baliabideetako

bat, komunitate horiek beren ahalez jabetzea helburu nagusizat harturik. Arrazoi zenbait tarteko, diagnostiko horiek ezin izan dira udalerriko komunitate guztietara hedatu, baina esperientzia pilotu modura balio izan dute, eta oso probetxugarriak izan dira diagnostikoak egin dituzten komunitateetan hausnarketa-lana osatzeko.

Diagnostiko horiek eratzeko, ezinbestekoa izan da gizarte zibileko erakundeen lana, prozesua bideratu eta bultzatu baitute, aholkularitza emanez diagnostikoa egin ahal izan duten komunitateetan. Partaidetza-diagnostiko horien bidez, zentral hidroelektrikoen eraikuntzak mehatxatutako herrien eskubideei lotutako ahalmenak ernatzeko egiten da lan.

Ahalegin berezia egiten da, beraz, herritarrak informatzeko eta hezteko ekintzetan, herritarrek zehatzago jakin dezaten ekimen horiek zer eragin izan dezaketen berengan eta zer eskubide dituzten babesle (kontsulta-eskubidea, esaterako); hartara, mehatxatuta dauden herritar horiek ohartuki eta egoeraren berri izanda erabaki ahal izango dute zer garapen-modu nahi duten beren komunitatean. Horretarako, talde-mailako ikasbidea sustatzen da: mapak eta karta geografikoak irakurtzen dituzte; inguruko biodibertsitatea aztertzen dute, eta komunitateen mapak egiten dituzte, ikasketa-jarduera horien guztien bidez ezagutza sakonagoa izan dezaten haien lurraldeari, kulturari eta historiari buruz. Komunitateen ekoizpenari eta bizierari balioa ematea da asmoa (balio ekonomikoa ere barne), komunitateen eta haien ingurunearen aberastasunari indarra eta nortasuna emateko, Xalaláko presak eragin duen mehatxu larriaren aurrean. Diagnostikoen bidez, herri horien egungo biziera egokiro balioesteko funtsezko osagai bilakatzen dira natura-ingurunea eta haren baliabideak, baita jakintza tradizionalak, memoria historikoa, ekoizpena, lana, komunitate-antolamendua, arau-sistemak eta mundu-ikuskerak bera ere.

“Norberarena den hori” egokiro balioetsita, herriak beren kabuz ohartzen dira zer duten benetan jokoan ustiaketa hidroelektrikoa abian jarriz gero edo lurralde horretan erazte-industriei bide emanez gero. Komunitate-diagnostikoak, beraz, komunitateak beren buruak hobeto ezagutzeko eta beren egoeraz jabetzeko talde-mailako ariketak dira, herritarrek hobeto eta zehatzago jakin dezaten zer kalte eta zer onura ekarriko liekeen industria horiei lotutako bizimodu berriak berenganatzeak.

## 2.4. GIZARTE ZIBILAREN EGINKIZUNA

Ixcánek gizarte zibileko erakundeek (ugariak) parte-hartze eta eragin nabarmena dute komunitateek jorratzen duten gizarte-ekintzan. Eragin hori, baina, ez da noranzko bakarrekoa; aitzitik, dikotomia bat hautematen da erakunde batzuen

eta besteen artean; izan ere, erakunde batzuek erresistentziari laguntzeko bidea hartu dute, eta beste batzuk, berriz, estatuak eta enpresa handiek sustatzen duten garapen-ereduaren alde daude, nabarmenki, edo ez dute argi adierazten zer jarrera duten lurraldearen eta natura-baliabideen defentsari dagokionez.

Batetik, gizarte zibileko erakunde ugari erresistentziaren testuinguruan egiten dute lan: giza eskubideak, emakumeen eskubideak, biktimei zor zaien ordaina, garapenaren sustapena, ingurumenaren defentsa, hezkuntzaren, kulturaren eta gizarte-zerbitzuen sustapena. Erakunde horietako gehienak elkarte modura antolatuta daude, legez, nahiz eta ikerketa-zentroak, fundazioak eta erakundeak ere badauden. Horiekin batera, zenbait elizaren gizarte-hedapeneko zerbitzuek ere norabide horretan dihardute lanean, argi eta garbi egin baitute kontsulta-eskubidearen alde, eta erresistentziaren ardatzean antolatzeko laguntza ematen diete herritarrei.

Erakunde-multzo hori funtsezkoa izan da lurra eta natura-baliabideak defendatzeko ACODET elkartearen eraketan. Elkarte hori aitzindari bilakatzen ari da kontsulta-eskubidea aldarrikatzeko eta egikaritzeko ekimenetan, eta Ixcángo erresistentzia Guatemalako beste lurralde eta mugimendu batzuekin bateratzeko lanetan ere badihardu. Azken urteotan, erakunde horiek buru-belarri ekin diote Ixcánen gertatzen ari den birmilitarizazioa salatzeari<sup>40</sup> eta hauteskunde-prozesuetan gardentasuna eta boto-eskubide askea aldarrikatzeari<sup>41</sup>.

Alabaina, badira, halaber, bestelako erakunde eta organismo batzuk ere –gobernuaren zenbait programa eta erakunde, enpresak, gizarte zibilaren bestelako elkarteak eta komunikabideak–, eta erakunde horiek gobernuaren planen eta industriaren ezarpenaren aldeko iritzia publikoa sustatzen dute; areago, lurraldearen eta baliabide naturalen defentsarako antolamenduen aurkako ekintza eta eskuhartze zehatzak ere sustatzen dituzte, hala nola palma-olioaren laborantza. Azkenik, eliza eta sekta ugari, natura-baliabideen auziari buruz duten iritzia esplizituki adierazten ez badute ere, eragin handia izan dezakete komunitateen gizarte-ekintzan, desmobilizazioa sustatzen ari daitezke eta.

Ixcánen, nabarmena da erakundeen ugaritasuna, baita haien arteko dikotomia

---

<sup>40</sup> Ikusi Ixcángo 35 gizarte-erakundek baino gehiagok sinatutako adierazpena: “Pronunciamientos de las organizaciones sociales del Ixcán: no a la remilitarización”. Playa Grande, Ixcán, 2009ko urriaren 1a.

<sup>41</sup> Ikusi Ixcángo 35 gizarte-erakundek baino gehiagok sinatutako adierazpena: “Demandamos transparencia, ejercicio libre de voto y respeto del proceso electoral en el Municipio de Ixcán”.

ere, bi multzotan baitaude zatituta, eta biek ala biek eragina dute komunitateen gizarte-ekintzan. Erakundeen oparotasun eta aniztasun horren arrazoiak topatze-ko, atzera egin beharko genuke, agian, Ixcáñen hainbat urtez bizi izandako barne-gatazkak eragindako tragedia izugarriera eta tragedia horrek nazioartean izan zuen oihartzunera eta ondorioetara. Izan ere, egoera latz horrek Guatemalako lurralde eta herri kaltetuenekeko (Ixcán, besteak beste) elkartasuna ernarazi zuen nazioartean, eta lotura horietako askok denboran barrena iraun eta sendotu ere egin dira, herrialde horiei laguntzeko, bere ahalez ohartarazteko eta laguntza emateko ekimenen bidez.

## 2.5. ONDORIOAK

Lurraldearen eta natura-baliabideen defentsa da indigenen eta laborarien komunitateen gizarte-ekintzaren ardatza. Izan ere, eragile eta interes ekonomikoen sare indartsuen mehatxupean bizi dira, gero eta giro aurkakoagoan eta gero eta testuinguru militarizatuagoan. Enpresa hidroelektrikoak eta industriak (petrolio eta zura), batetik, eta nekazaritza-industriak, bestetik, (palma-olioaren laborantza, bereziki) lurraldea eta haren baliabideak eskuratzeko irrika bizian daude. Horrez gain, nabarmen ugaltzen ari dira narkotrafikoari lotutako eragileak, eta armada ere gero eta gehiago ari da lur horietan hedatzen.

Testuinguru latz eta andeatu horretan, bada, komunitate horietako gizarte-ekintzak erro historikoak ditu, eta “etengabeko gabetzearen” aurkako erresistentzia da sustrai horien muina, egoera horrek kolokan jartzen baititu herri indigenen bizibide tradizionalak, baita haien biziraupena bera ere. Gaur egungo egoerak badu aurreko garaiekiko alderik ere; izan ere, “erauzpen eta nekazaritza-ekoizpenaren mugak” gero eta gehiago ari dira zabaltzen, eta Ixcángo komunitateak beren lurraldean setiatuta geratzen ari dira, oldarraldi hori dela eta. Komunitateek, gaur egun, gero eta zailtasun nabarmenagoak dituzte kolonizatu gabeko beste lurralde batzuetara joateko –jardunbide hori erabili izan da aurretiaz erresistentzia-estrategia modura, oihanean babestuta–.

Lurraldeari estu lotutako nortasuna eta berezko mundu-ikuskerak dira hiru ardatz handiren inguruan egituratutako erresistentzia-estrategiaren funtsa. Komunitate-kontsultak, ekintza politikoa eta komunitate-diagnostikoak dira hiru ardatz horiek. Lurraren jabetza-tituluen auzia ebatzi gabe dago oraindik ere, eta arazo ugari izaten ari da, eta gizarte-ekintzaren erronka nagusietako bat izaten jarraitzen du. Auzi hori bereziki kaltegarria da familientzat eta komunitateentzat. Lurren jabetza-titulua norbanakoei emateko prozesuak segurtasun juridikoa

ematen die, baina jardunbide horrek aukera ematen du, halaber, herritarrek lurrrak saldu ditzaten eta eragile ekonomiko indartsuagoek lur horiek eros ditzaten.

Zentral hidroelektrikoen eraikuntzari aurre egiteko komunitate-kontsultak dira, agian, erresistentziaren adibide ikusgarriena (eta nazioartean ezagunena), Xalaláko presaren proiektuan ikusi denez. Alabaina, ez da kontsulta horien baliozkotasun juridikoa erabat onetsi; erronka nagusietako bat izaten jarraitzen du, eta Guatemalako estatuarekiko tirabira-iturri. Hala eta guztiz ere, komunitate-kontsulta horiek luze eta zabal hedatu dira Guatemalako beste lurralde batzuetara (proiektu hidroelektrikoei eta meatzaritza-proiektuei aurre egiteko nagusiki), eta gero eta ezagunagoak bilakatu dira nazioartean. Bi faktore horiek dira, hain zuzen ere, gizarte-ekintzaren estrategia horren indargune nagusiak, seguruenik estatua-  
ren eta enpresen izen ona kolokan jartzea lortu baitute. Bestalde, nazioarteak –Lanaren Nazioarteko Erakundearen 169. Hitzarmenaren bidez eta Herrialde Indigenen Eskubideen Adierazpenaren bidez– herri indigenen kontsulta-eskubidea aitortu izanak indartu egin du komunitate horien jarrera, nazioartean aintzatetsitako kontsulta-eskubide horren defentsa-estrategiaren barruan, bereziki, herri horien kezka bide nagusi den gaiari dagokionez, hots, lurra-  
ren defentsari.

Talde-antolamenduaren eta gizarte-ekintzaren bigarren esparrua ekintza politikoa da, alegia, herri-mobilizazioak egitea, komunitatearen eta udal-erriaren garapeneko batzordeetan parte hartzea, aliantzak bilatzea eta beste herri-mugimendu batzuekin bat egitea. Ahalegin handia egiten da bigarren esparru horretan, itxaropen-iturri oparoa baita. Hala ere, ekintza politikoa hori oraindik ahula eta egitura gabea dela jotzen da. Izan ere, oso gogorak dira Guatemalako testuinguru politikoaren baldintzak: herrialdeko indigena eta laborari gehienak pobrezia-egoera latzetan eta egoera larrian bizi dira, eta horrek ahuldu egiten du ekintza politikoa hori. Areago, ahulezia hori eragiten duten barne-faktoreak ere badira, hala nola norberekieriak eta biztanleen arteko lehiak. Dena dela, bestelako estrategia bat eraikitzeko ahalegina eta borondatea ere hautematen da. Estrategia hori herri indigenen mundu-ikuskeratik eta bizimoduetatik gertuagoko garapen-eredu edo bizi onaren eredu batean oinarrituta dago, eta irmoki defendatzen du komunitate horien nortasuna eta lurraldea. Hala, gero eta ozenago ari dira eskatzen Guatemalako estatua berreraikitzea eta herrialde indigenek Guatemala barruan autogobernu handi-  
agoa edukitzeko aukera izatea (“autodeterminazioa” ere esaten zaio).

Hirugarrenik, gizarte-ekintzaren estrategia ernatu berria dago. Estrategia hori komunitateetatik eraiki da, eta komunitate-diagnostikoak ditu baliabide estrategiko nagusi. Diagnostiko horien bidez, komunitateek beren lurraldearen aberastasun

materialak eta ez-materialak balioesten ikasten dute, eta elkar lotzen dituen mundu-ikuskeran sakontzen. Horrela, komunitateek lotura estuagoa ezartzea lortzen dute, elkarrekin partekatzen dituzten baliabideei dagokienez; gainera, nortasuna indartu egiten dute, eta argiago jabetzen dira zer-nolako eragina eta kostua izan dezaketen proiektu hidrológicoek, erauzte-industriek, palma afrikarraren laborantzak eta abeltzaintzak beren ingurunean eta bizibideetan (batik bat beren elikadura-burujabetasunean). Era berean, komunitate-diagnostikoen bidez, herritarrak modernotasunarekin eta, bereziki, zenbait “tentaldirekin” –hala nola kontsumismoarekin– hartu-emanen egoteko erronkari aurre egiten laguntzen zaie, kontuan hartuta gazteenei eragiten diela bereziki egoera horrek.

Ixcáñen dauden gizarte zibileko erakundeak hain dira ugariak, ezen nekez ezar baitakieke eginkizun homogeneousik komunitateei laguntzeko jardueretan, erakunde horiek beren lurraldea eta natura-baliabideak defendatzeko garatzen duten gizarte-ekintzari eta erresistentziaren estrategiei dagokienez. Askotariko erakundeak daude Ixcáñen: giza eskubideen defentsan (eta genozidioaren biktimei dagokien ordainean) espezializatutako erakundeak, ingurumenaren babesean espezializatutakoak eta garapena sustatzen dihardutenak. Leku nabarmena dute, halaber, eliza ebanjelikoak, eliza katolikoak eta zenbait sektak, baita gobernuaren hainbat programak eta proiektuak ere. Erakunde horietako batzuk buru-belarri dihardute komunitateei hurbiletik laguntzen, komunitate horien kontsulta-eskubidea aldarrikatzeko eta ekintza politikoa sustatzeko. Aholkularitza ematen diete horretarako, eta teknologiak ere jartzen dituzte haien eskura. Beste erakunde batzuek, berriz, tinko sustatzen dituzte palma afrikarraren laborantza edota proiektu hidroelektrikoak eta erauzte-proiektuak, eta haien ekina hain da irmoa, ekintza politikoa erabat apaltzea ere lortzen baitute, familiei xantaia egitera ere iristen baitira, ez dezaten jite politikoko aldarrikapenetan parte hartu.

Azkenik, gizarte-protesta eta ekintza politikoa kriminalizatzen ari da Ixcáñen, eta gero eta arazo larriagoa gertatzen ari da hori; horrekin batera, narkotrafikatzaileak eta militarrek ere gero eta ugariagoak dira Ixcáñen, eta mehatxu bilakatu dira. Ixcángo lurraldea eta hango natura-baliabideak hobeto gobernatzeko, ezinbestekoa da albait arinen giza bizitza babestea, adierazpen-askatasuna zaintzea eta kontsulta-eskubidea bermatzea. Izan ere, arriskuan daude familia eta komunitate askoren elikadura-burujabetza eta eguneroko mantenua, baita mundu-ikuskerak eta bizimodu berezi baten biziraupena ere. Azken batean, demokrazia eta bakea daude jokoan.



### 3. Katanga, Kongoko Errepublika Demokratikoa: artisau-meatzaritzaren fenomeno<sup>42</sup>

Kongoko Errepublika Demokratikoaren (aurrerantzean Kongo ED) hegoaldean dago Katanga. Eskualde horretako artisau-meatzaritzak argiro islatzen du nazioarteko ekonomian azken hiru hamarkadetan izandako hazkundea nolako eragina edukitzen ari den tradizioz meatzaritzan jardun duten herrialde eta eskualdeetan. Izan ere, nazioartean asko handitu da mineral-eskaera (kobrea-rena, kobaltoarena eta uranioarena, besteak beste), eta, beraz, haien prezioa ere handitu egin da nazioarteko merkatuetan. Bi faktore horiek azaltzen dute, bada, Katangan artisau-meatzaritzak azken hamar urteotan izan duen goraldia. Bestalde, instituzio demokratikoak eta gizarte-egitura oso ahulak dira Kongoko EDn; gainera, 2008tik, nazioarteko testuinguru ekonomiko eta finantzarioa oso ezegonkorra da, ekonomiak pairatzen duen krisi latza dela eta.

Testuinguru konplexu, aldakor eta ezegonkor horretan kokatuta, azterlan honen bidez, begiratu bat egingo diogu Katangako eskualdean artisau-meatzaritzan diharduen biztanleria heterogeneoaren gizarte-ekintzari. Zehazkiago esanda, langile horiek beren eskubideak aldarrikatzeko eta artisautza-baliabideak eskura izateko eta kontrolatzeko egiten dituzten eskaera- eta borroka- motak aztertuko ditugu.

Lehenik eta behin, **interpretaziorako begiratu** bat emango zaie bai herrialdeari berari, bai eskualdeari, egoeraren nondik norakoez jabetzeko, bereziki aintzat

---

<sup>42</sup> “Artisau-meatzaritzak” deitzen zaio meatzaritzak-lanean erauzpen-teknika ez-intentsiboak (teknologiari eta kapitalari dagokienez) erabiltzen dituen jarduerari. Artisau-meatzaritzak formala edo informala izan daiteke, legezkoa edo ezkutukoa. Meatzaritzak txikian edo maila txikiko meatzaritzan, berriz, teknologiaren eta kapitalaren erabilera artisau-meatzaritzan baino intentsiboagoa da. Hori da, hain zuzen, bien arteko aldea. Bai artisau-meatzaritzak, bai meatzaritzak txikia oso dinamikoak dira, eta aldaera asko hartzen dituzte; horrexegatik, zaila izaten da horien bien ezaugarriak finkatzea eta definizio zehatza ematea.

hartuta nazioarteko ekonomiari lotutako “meatzaritzaren loraldia”, baita interes geoekonomiko eta politikoez azken hamarkadan Kongoko meatze-aberastasunaren inguruan eraiki duten nazioarteko zein eskualdeko amaraun sarria ere. Arreta berezia ipiniko da Kongoko EDn baliabideen ustiaketa eta indarkeriaren artean nolako harremana dagoen azaleratzen duten txostenetan<sup>43</sup>.

Bigarrenik, Katangako artisau-meatzaritzaren nondik norakoak aztertuko dira, eta landa-lanaren bidez atzitu ahal izan diren bi ezaugarriak hartuko dira hizpide: artisau-meatzaritzaren hedadura handia (artisau-ustiaketa lan egiten dutenen kopuruari dagokionez) eta artisautza-mota horrek merkaturatze-kate luzean duen lekua. Kate horretan, artisau-ekoizpenak industria-mailako ekoizpenarekin bat egiten du, esportaziora bideratuta.

Hirugarrenik, artisau-meatzaritzari dagozkion legeak eta politikak aztertuko dira: hasteko, 2002ko meatzaritzakodea eta meatzaritzapolitika hartuko dira –labur-labur– hizpide, bereziki artisau-meatzaritzaren sektorea antolatzeke eta arautzeke ezartzen diren xedapenak eta orientabideak. Ondoren, aztergai hartuko dira Katangako meatzari-taldeek eskubide horiek aldarrikatzeko nolako gizarte-ekintza garatu duten, zer erronka dituzten, zer estrategia-mota darabilten, eta elkarrekin antolatzeke eta gizarte-ekintza bateratua egituratzeko nolako mugak dituzten.

Azkenik, talde horiei laguntzeko eta Katangako eskualdeko meabaliabideak hobeto gobernatzeko **gizarte zibilaren** eta gobernuz kanpoko erakundeen lanari buruzko irakurketa egingo da, eta zenbait **ondorio eta gomendio** azalduko dira, artisau-meatzaritzaren arazo berri emateko eta arazo horiek egokiro ez lantzeak ekar ditzakeen arriskuez ohartarazteko.

### 3.1. TESTUINGURUA AZTERTZEN: HERRIALDEA ETA ESKUALDEA

#### 3.1.1. Kongoko EDko testuingurua: berpizte-aldi tirabiratsua

Berpizte-aldi tirabiratsua ari da pairatzen Kongoko Errepublika Demokratikoa 2012. urtearen hastapenetan. Bakea ez da oraindik ekialdeko zenbait eremutara iritsi, eta tentsio politikoez eta etnikoez ez dute etenik herrialde zabal horretako lurralde askotan. Izatez, 2011ko azaroan presidentea hautatzeko egindako azken

---

<sup>43</sup> Horien artean, azpimarratzekoa da Nazio Batuetako adituen taldeko ikertzaileek Kongoko Errepublika Demokratikoko natura-baliabideen eta bestelako aberastasun-moduen lege kontrako ustiaketa gainean egindako azken txostena, 2002ko urriaren 8an argitaratua (S/2002/1146).

hauteskundeen emaitzen gainean sortu ziren zalantzek begi-bistan uzten dute Kongoko Errepublikako bizikidetzaren ahulezia<sup>44</sup>.



Iturria: CIA. World Factbook.

## 2. Taula. Kongoko ED oinarrizko indikadoreak

Biztanleria	73.599.190 (2012ko kalkulua)
Giza garapenaren indizea - GGI (munduko sailkapena)	0,286 (187/187)
Biztanle bakoitzeko diru-sarrerak (2005eko USD konstantetan)	280
Gini koefizientea	44,4
Bizi-itxaropena	48,4
Hezkuntza (eskolaratze-urteen batezbestekoa)	3,5
Genero-desberdintasunaren indizea	142/187
Alderdi anitzeko pobrezia (biztanleria osoaren %)	73,2
Muturreko pobrezia (biztanleria osoaren %)	46,5
Aztarna ekologikoa (hektareak, biztanle bakoitzeko)	0,8

Iturria: txostenhonetarako propio egina, giza garapenari buruzko 2011ko munduko txostena oinarritzat hartuta. Biztanleria: CIA (2012ko uztaileko kalkulua).

<sup>44</sup> Presidentziarako azken hauteskundeak 2011ko azaroaren 28an egin ziren, asaldura politikoa pil-pilean zela, eta, nazioarteko zenbait misiok gerora frogatu dutenez (Carter Zentroak, kasu), gardentasun-falta eta irregularitasun handiak izan ziren hauteskunde horietan. Joseph Kabila presidenteak garaitzat jo zuen bere burua, baina Etienne Tshisekedi oposizioko bigarren presidentegaiki ez zuen Kabilaren garaipena onartu, eta hark ere presidentetzat jo zuen bere burua. Bi hilabetez, 2012ko urtarril-otsailen, protestak egin dira, eta oraindik ere ez dira baretu tentsio-giroa eta asaldura politikoa.

Tentsio-giro horren erdi-erdian, pobreziaren eta muturreko pobreziaren arteko zubian bizi dira herritarrak. Herrialdearen oinarrizko adierazle sozio-ekonomiko gehienek islatzen dituzte Kongoko herritarren bizitza-baldintza gogorrak. Izan ere, Kongoko Errepublika Demokratikoa azken lekuan dago Nazio Batuen garapen-programak giza garapenari gainean 2011rako egindako sailkapenean<sup>45</sup> 0,286ko indizea baitu; bizi-itxaropena, jaiotzean, ez da 50 urtera iristen; eskolaldia, berriz, 3,5 urtekoa da, batez beste, eta herrialdearen sarrera gordina 280 AEB dolarrekoa da biztanle bakoitzeko. Herrialdearen egoeraren isla dira adierazle horiek: diktadura luze eta anker baten ondotik, bi gerra izan ditu urte gutxien buruan, eta herrialdearen natura-baliabideak arpilatzea ohikoa izan da aspaldi-aspalditik.

Bigarren gerratea ofizialki amaitu zenetik bederatzi urte igaro eta herrialdearen zenbait lurraldetan meatzaritza bete-beteko loraldian dagoen arren, bizi-baldintzak oso motel ari dira hobetzen herritar gehien-gehienentzat. Aztertutako iturrien arabera, azken urteotan zenbait bide-azpiegituretan egindakoak dira herrialdeko hobekuntza garrantzitsuenak. Batik bat, Kinshasa hiriburuan eta Katangako eskualdean egin dira hobekuntza horiek. Hiriburuko bulebar garrantzitsuenaren zaharberritzea (Boulevard 30 de Juin) hartzen da hobekuntza horien adibidetzat, baita Parlamentu Nazionala inguratzen duen parkearena ere. Kongoko EDko eta Txinako gobernuen arteko akordioaren fruitu da parkearen eraberritzea<sup>46</sup>. Katangako eskualdean egin den hobekuntza aipatuena Kasumbalesa mugahiriaren bidez Katanga Zambiarekin lotzen duen errepede nagusi batean egindakoa da. Hobekuntza-lanak Katangako eskualdeak finantzatu ditu, eta meatzaritza-elkarte ugari ere hartu dute parte.

Oro har, badirudi baldintza sozioekonomikoak apal-apal<sup>47</sup> baino ez direla hobetu, eta Kongoko zein Katangako klase politikoarekin harreman estua duen gutxiengo baten mesederako bereziki. Herritar gehienek gabezia handiak dituzte bizi-estandarretan, eta enplegu-falta –eta, ondorioz diru-iturri egonkorrik eza– aipatzen da herritar heldu gehienen lehen arazotzat. Ekonomia informala da nagusi Kongoko EDn, eta testuinguru horretan murgiltzen dira egunez egun herritarrak bizirauteko borrokan. Halaxe ikusi da hiriburuan, Kinshasan, Lubumbashi hirian eta Katangako meatzeguneetan.

---

<sup>45</sup> NBGP (2011). Giza garapenari buruzko 2011ko txostena: *Iraunkortasuna eta ekitatea: Etorkizun hobea guztiontzat*.

<sup>46</sup> Txinaren esku-hartzea begi-bistakoa eta nabarmena da Kongoko EDn. Bi bide-azpiegitura horiek (ekainaren 30eko bulebarra eta parlamentuko parkea) Kongoko hiriburuaren erdialdean daude, eta hiriaren ikur dira biak ala biak.

<sup>47</sup> NBGP KONGO (2010) *SYNTHESE PAYS 2010. Bureau pays*.

Gizarte-ekintzari dagokionez, erakundeen eta gizarte zibilaren ahotsen ahuldadea da azpimarragarri. Mobutu Sese Sekoren diktadura- eta errepresio-urteen ondoren, arian-arian ahuldu egin da herrialdea; izan ere, gerrak, etnien arteko indarkeriak eta miseriak higatu egin dute gizarte-ekintza, gatazka osteko giroak berezko duen testuinguru horretan<sup>48</sup>. Horrenbestez, 2012. urtea hasi berria dela, nekez hautesmaten da Kongoko EDko testuinguru sozial eta politikoan bereziki nabarmentzen den gizarte-eragile edo -mugimendurik. Errepresioak eta herrialdearen industria-egituraren desegituraketak oso makalduta utzi dituzte prentsa eta sindikatuak. Era berean, unibertitate eta intelektualak ere oso ahulduta daude, hamarkadaz hamarkada errepresioaren eta kudeaketa eskasen pean bizi ondoren.

GGKEak, bestalde, buru-belarri murgildu dira jarduera humanitarioetan, baina ez dituzte lurralde guztiak barne hartzen, eta nahiko indar txikia dute arlo politikoan eta garapenari lotutako gaietan. Elizak dira, azkenik, neurri batean, eragile indartsuenak Kongoko gizarte zibilaren eremuan. Izan ere, sare zabala dute lurralde osoan, eta izen ona herritarren artean. Gainera, eliza horietako batzuk beren ahotsa Kongoko EDko politikaren, gizartearen eta garapenaren eremuetara helaraztea lortzen ari dira<sup>49</sup>.

### 3.1.2. Eskualdeko testuingurua: Katanga bidegurutzean

Kongoko EDko industria-eskualde nagusia da, ezbairik gabe, Katanga. Bi faktoreri zor dio Katangak industria-ondare hori: meatzaritza-industriari, batetik, eta XX. mendean GÉCAMINES<sup>50</sup> enpresa publikoak eskualde osoan izan duen indar eta esku-hartzeari, bestetik. Eskualde horretako azpiegituretako asko (eskolak, ospitaleak, fabrikak eta abar) GÉCAMINESek Katangako meatzaritza-gune nagusietan –hala nola Kolwezín, Likasin eta Katangako hiriburuan, hots, Lubumbashín– sustatutako garapen ekonomiko eta sozialeko proiektuen barruan egin dira.

Alabaina, goeko hamarkadaren amaieratik, jada, Kongoko meatzaritza-sektorea modernizatzeko eta liberalizatzeko prozesua abian zen. Kapital pribatua

<sup>48</sup> Kongoko EDren berreraikuntza-prozesuan gizarte zibilak egin duen lanaren berri izateko, ikus: Hainbat egile (2004): *Reconstruction de la République Démocratique du Congo. Le rôle de la Société Civile*. Cahiers de Droits de l'Homme et de la Paix en Région des Grands Lacs. 1 liburukia, 1. zk.

<sup>49</sup> Horren adibide dira, esaterako, azken hauteskunde orokorretan izandako irregulartasunak direla-eta Kongoko Apezpikuen Batzarrak egindako adierazpenak.

<sup>50</sup> Générale des Carrières et des Mines (GÉCAMINES) Kongoko estaturen mendeko zuzenbide-erakunde publikoa da. 1967an sortu zen, Union Minière du Haut Katanga (UNHK) erakunde ordezteko. UNHK erakunde, Leopoldo II.a erregeak 1906an sortutako taldearen eta Tanganyika Concessions Ltd talde britainiarraren bategitetik sortu zen, eta Katangan aritu zen XIX. mendetik.

erakartzea izan zen prozesu horren helburu nagusia, nazioarteko erakundeek –Munduko Bankuak, bereziki– tradizioz meatzaritzan diharduten herrialdeetarako zehaztutako norabidean. Liberalizazio-prozesu horrek zuzeneko eragina izan du GÉCAMINESek Katangako eskualdean duen esku-hartzean eta eginkizunean. Hala, bada, GÉCAMINESek hainbat hamarkadaz meatzaritzaren sektorearen gaineko monopolioa eskusiboa izan ostean, “meatzaritzaren loraldiarekin” batera, nabarmen murriztuta geratu da haren eragin-gaitasuna eta boterea. Egoera horrek bidegurutzan jarri du berriz ere Katanga. Izan ere, aldatu egin da egoera: eragile pribatuak indartzen ari dira meatzaritzaren sektorean, garai batean GÉCAMINESen bidez Kongoko estatuak ezarritako erabateko esku-hartzeari aurrea hartuta.

Azken hamar urteetan, zitzu bizian hedatu da artisau-meatzaritza eskualde guztian, eta, prozesu horren barruan, jori-jori iritsi dira Katangara mota guztietako meatzaritza-sozietateak, handik eta hemendik<sup>51</sup>. Prozesu hori estu lotuta dago eskaera handitu izanarekin eta nazioarteko ekonomian mearen prezioa igo izanarekin. Bete-beteko “urre-sukarraldia” ernatu da, eta, horrekin batera, halako prozesuetan garatu ohi diren dinamika sozial eta ekonomiko guztiak ere bai (ekonomia biziberritu egin da; inflazioa, handitu; gizarte-gaixotasun berriak zabaldu eta abar). Gorabehera horiek zinegileen<sup>52</sup> eta kazetarien arreta ere erakarri dute.

Katangako testuinguru politikoa hango gobernadorearen, Moise Katumbi Chapwera<sup>53</sup> itzelezko ospaeren eta izenaren mende dago. Moise Katumbi Katangako hegoaldeko tribu bateko familia garrantzitsu bateko kidea da, eta, politikan aritzeaz gain, zenbait negoziotan ere esku hartzen du: meatzaritzan eta futbolean, hain zuzen ere.

Katangako gobernuak bide-azpiegiturak<sup>54</sup> hobetzea hartu du lehentasun, bi helburu betetze aldera: inbertsioak sustatzea, batetik, eta orain arteko ustiapenak

---

<sup>51</sup> Munduko Bankuak jasotako informazioaren arabera, 325 meatzaritza-enpresa zeuden lanean Katangan 2008. urtean, eta horietatik hamarrek nazioarteko merkatuetako poltsetan kotizatzen zuten.

<sup>52</sup> Ikusi *Katanga Business* filma, Thierry Michelena, edo *Pale Peko Bantu Mambo Ayikosake* (“Jendea non, han arazoak”), Bram Van Paesschenena. Bi film horietan Katangako artisau-meatzaritzako kanpamentuei eta ustiatzegeiei buruzko lekurikotasunak eta irudiak jasotzen dira.

<sup>53</sup> Katangako enpresari eta politikari bat dugu Moise Katumbi. Joseph Kabilaren Berreraikuntzaren eta Demokraziaren aldeko Herri Alderdiko kide da, eta 2007ko otsailetik gobernatzen du Katanga. MCK (Mining Company Katanga) meatzaritza-elkartearen jabea da, eta *Tout Puissant Mazembe* futbol-talde ospetsuaren jabe-kidea. Afrikako futbol-talde arrakastatsuenetako bat da *Tout Puissant Mazemb*.

<sup>54</sup> Horren adibide argia da Katanga Kasumbalesatik Zambiako mugarekin lotzen duen errepidea. Azpiegitura-obra hori Kongoko gobernuak eta Txinakoak 2007ko irailean sinatutako akordio-memorandumaren barruan egin da. Memorandum horren bidez Txinako Exim Bank bankuak azpiegitura-obra handi hori finantzatzeko eta egiteko konpromisoa hartu zuen.

indartzea. Bestalde, mugak jarri zaizkio Katangako eskualdean mea-lehengaiak nazioartean esportatzeko jarduerari, mearen transformazio-prozesua Zambian egin beharrean Katangako instalazio transformatzaileetan bertan egin dadin. Bestalde, meatze-enpresek<sup>55</sup> nekazaritza-jarduerak ere garatu ditzaten sustatzen ari da gobernua, eskualde barruko nekazaritza-ekoizpena bermatzeko asmoz. Bi neurri horiek Katangako garapenean zer eragin izan dezaketen jakiteko, neurri horiek ezartzeko prozesuari buruzko informazio zehatzagoa eta xeheagoa behar da; ezin izan da, baina, halakorik lortu.

Gizarte-sektoreetan –osasunean eta hezkuntzan, esaterako– hobekuntza gutxi egon dira; areago, begi-bistakoa da gizarte-azpiegituren eta -programen gainbehera, batik bat GÉCAMINESen garairik oparoarenarekin alderatuta. Katangan soziologiaren zein ingurumenaren arloetan gertatzen ari diren aldaketa indartsuak eta eragin kaltegarriak ulertzeko (kutsadura, inflazioa, prostituzioa, segurtasun-falta eta abar), ezinbestekoa da kontuan hartzea meatzaritzak –industrialak zein artisautzakoak– azken hamar urteetan izan duen loraldia. Gertakizun horiekin arduratuta, egoera kezkarri hori salatzen hasi dira zenbait gizarte-eragile, eta nabarmena da arlo horretan Eliza Katolikoari lotutako sektore eta jende ezagun batzuek egiten duten lana.

Kongoko EDren gainerako lurraldeetan ere gertatu den legez, Katangako gizarte-ekintza asko ahuldu zen diktadura- eta errepresio-garaietan, baita egoera horrek eragindako indarkeria- eta miseria-aldian ere. Egia da, baina, garai horrek Katangan utzitako industria-ondarearen eraginez dutela sindikatuek oraindik ere nolabaiteko esku-hartzea eskualdean. Bestalde, Katangako bertako GKE multzo bat ere ari da lanean. GKE horiek loturak dituzte nazioartean, eta garapena sustatzeko eta giza eskubideak bermatzeko arloetan egiten dute lan Katangan.

Landa-lana egin zenean, Katangako gizarte-bakea kinka larrian jartzen duten zenbait arrisku hauteman ziren. Horietatik bi aipatuko ditugu hemen: etnien arteko tentsioak biziberritzea (batik bai Kasai jatorriko herritarren eta Katangako herritarren artean, lehendik ere baitator tentsio hori), eta artisau-meatzariak baliabi-deak eta meategiak eskuratzeko borrokan antolatutako matxinadak bultzatzeko arriskua (horrelako matxinadek ere aurrekariak dituzte).

---

<sup>55</sup> 2009ko amaieran, Katangako ministro-kontseiluak erabaki zuen Katangako meatze-elkarte guztiek 500 hektarea –gutxiarik– laborantzara bideratu behar zituztela.

### 3.2. KATANGAKO ARTISAU-MEATZARITZA

Artisau-meatzaritza nabarmen hazi da Katangan azken hamar urteotan. Aldameneko Kasaiko eskualdean ez bezala –Kasain diamenteen artisau-meatzaritzak ibilbide luzea baitu– industria-mailako meatzaritza izan da Katangan nagusi, GÉCAMINES enpresa publikoari estu lotua (baita haren aurreko Unión Minière du Haut Katanga – UMHK erakundeari ere).

Alabaina, GÉCAMINESen kudeaketa suntsitzailea, ustela eta deskapitalizatzailea izan zen denbora luzez, eta laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran eta, batik bat 2000ko hamarkadaren hasieran, meatzaritzaren sektorea liberalizatzeko lehen urratsak egiten hasi ziren, Munduko Bankua buru zela. Kongoko EDn meatzaritzaren liberalizazio-prozesua abiatu zen garaian, nazioartean geraldian zen ekonomia, eta kobreak, kobaltoaren eta uranioaren balioa gero eta gehiago ari zen handitzen (baita Katangan garrantzi handia duten beste zenbait mineralen balioa ere).

Bi prozesu horiei begiratu behar zaie tradizioz meatzaritzan jardun duten zenbait herriren –hala nola Likasi eta Kolweziren– loraldi ekonomikoa ulertzeko, artisau-meatzaritzaren hazkundeari eta haren eraginei zor baitzaie susperraldi hori. Badira “onuragarritzat” jotzen diren ondorioak, hala nola biztanleria handitzea edo diru-iturri diren negozio txikiak eta jarduerak ugaltzea; badira, haatik, ondorio negatiboak ere, hala nola segurtasun-gabezia handitzea, sexu-bidezko gaixotasunak ugaltzea, prostituzioa hedatzea, lan egiten duten haurren kopurua handitzea, kutsadura areagotzea eta betiko laborantza-jarduerak alde batera uztea. Katangan, eskualdearen funtsezko jardun ekonomikotzat jotzen dute artisau-meatzaritza, ezinbestekotzat baitute hango ekonomiari eutsi ahal izateko eta pertsonak eta familiek diru-iturriren bat edukitzeko; ohartzen dira, baina, gizarte-kostu handiko fenomeno soziala dela eta ingurumenean ere eragin kaltegarri nabarmena duela.

Katangako artisau-meatzaritzari buruzko eztabaidetan eta berbaldietan, ikuspegiak bat baino gehiago dira: horietako batek artisau-meatzaritzaren sektorea dagokion testuinguruan kokatzeko erronka (“encadrement”) du oinarri; bigarrenak, berriz, artisau-meatzaritzan dihardutenean giza eskubideak eta bizi- eta lan-bal-

**“Je lutte pour mon avenir”**

(Nire etorkizunaren alde dihardut borrokan).

Luisha meatzaritza-herrixkako garraio publikoko furgoneta bateko pegatina

**“Ce ca qui apaise la souffrance ici chez nous”**

(Hemen pairatzen dugun sufrimendua horrek arintzen digu).

Meatzaritza-kanpamentuko tratularia.



dintzak azpimarratzen ditu. Lehen ikuspegiarekin bat datoz Munduko Bankua<sup>56</sup> Kongoko Gobernu eta Katangako gobernadorea; bigarrenarekin, berriz, gobernu kanpoko zenbait erakunde, meatzaritzaren sektoreak jasaten dituen bizi- eta lan-baldintza negargarriak azalera eta salatzea helburu dutela<sup>57</sup>.

Azkenik, hirugarren ikuspegi bat ere badago, ez horren hedatua, zeinaren arabera aukera baitago industria-meatzaritzaren eta artisau-meatzaritzaren artean lankidetzaz bidez ezartzeko –betiere gizarte-erantzukizun korporatiboan oinarrituta<sup>58</sup>,– baita artisau-meatzaritzaren sektorearen bidez garapena sustatzeko eta lana sortzeko ere<sup>59</sup>. Nolanahi ere, badirudi egoera aldakor, bizi eta gatazkatsu horretatik pauso bat atzera dagoela beti Katangako artisau-meatzaritzari buruzko eztabaida. Eztabaidaren eta errealitatearen arteko desoreka hori dela-eta, zaila da politika publiko egokia egituratzea, haren bidez sektorearen barruko jarduketak batzuk zehazteko, sektorearen eragin kaltegarriak saihesteko eta haren etorkizuna nolabait bideratzeko. Artisau-meatzaritza antolatzeke testuinguru horretan, egiturazko bi aldagaik areago korapilatzen dute egoera, guztiz ahultzen baitituzte bai lurraldea bai meatzaritzaren mende bizi diren herritarrak: nazioarteko merkaturuan mineralak duen prezioarekiko mendekotasuna da faktore horietako bat, eta, bestea, interes geoekonomiko indartsuek, nazioz gairako enpresek eta eskualdeko botereek elkarrekin osatutako joko politikoarekiko mendekotasuna.

### 3.2.1. Hedadura handia

Katangako meatzaritzaren gainean ikertzeko traba handienetako bat informazio fidagarririk eza eta sektorea arautzen duten erakundeen sare konplexua dira. Kongoko EDn meatzaritzaren sektorean diharduten gobernu-zerbitzuak eta -funtzionarioak asko badira ere, nekez topa daiteke sektorearen gaineko oinarritzko informazio fidagarririk, hala nola sektorean zenbat jende ari den lanean, ekoizpena zenbatekoa den edo sektorearen balio ekonomikoa, guztira, zenba-

<sup>56</sup> Horra Munduko Bankuak 2008an “Gobernantzaz hazi” izenburupean Kongoko EDko meatzaritza-sektoreari buruzko txostenean landutako ildo nagusia. Ikusi World Bank. (2008). *Democratic Republic of Congo. Growth with Governance in the Mining Sector*. Report. n. 43402-ZR. Oil, Gas, Mining and Chemicals Department. Africa Region.

<sup>57</sup> Global Witness-en eta beste zenbait erakunderen txostenetan nagusi den ikuspegia. Ikusi Global Witness. (2004). *Ruée et ruine. Le commerce dévastateur des ressources minières dans le Sud du Katanga en République démocratique du Congo*.

<sup>58</sup> Ikusi María, J. & Taka, M. (2011) Artisanal miners and mining companies in the DRC: from conflict to collaboration.

<sup>59</sup> Horra Ladain Kandji Katangako idazle gaztearen ikuspegia. Ikusi Kandji, L. (2010). *L'exploitation manuelle du cuivre et du cobalt au Katanga. Décadence ou Progrès ?* Lubumbashi: Baobab. Ikuspegi hori bera du, halaber, Didier de Failly jesuitak (Kivuetako artisau-meatzaritzari buruzko ikerlaria eta idazlea).

tekoa den. Informazio-falta hori etengabekoa da, eta oztopo da sektore horren gaineko ganorazko eztabaida sortzeko, baita behar diren politika publikoak egituratzeko ere.

Munduko Bankuak argitarara emandako datuen arabera, 2008an, Kongoko ED osoan, 500.000 lagunetik 2.000.000 bitartean ziharduten, zuzen-zuzenean, artisau-meataritzaren sektorean lanean, eta 8.000.000 lagunetik 10.000.000 bitartean zeuden zeharka sektore horren mende (meatzari bakoitzaren jardunetik, batez beste, lauzpabost pertsona bizi direla jotzen da). Txosten horretan, Katangako eskualdeari buruzko kalkulu batzuk ere egiten dira: gutxi gorabehera, 150.000 lagunek esku hartzen dute heterogenitaren ekoizpenean (50.000 lagunetik 250.000 bitarte, kalkuluen arabera)<sup>60</sup>.

Landa-lanean aztertutako iturrien arabera, artisau-meataritzaren sektorean dihardutenen kopurua, gutxi gorabehera, 300.000 lagunekoa izan da 2011. urtean. Kopuru hori bera aipatu zuen Moise Katumbi gobernadoreak, **Erauzte Industrien Gardentasun Ekimenari** (EITI) buruzko biltzarren lehen egunean, Lubumbashin, 2011ko urtarrilean. Syndicat d'Exploitants Miniers Artisanoux du Katanga (SEMAK) –Katangako sindikaturik handiena– sindikatuaren arabera, 80.000 kide zituen erakundeak 2011. urtearen hasieran.

Bestalde, industria-meataritzaren datuekin alderatuta, zeharka artisau-meataritzaren mende daudenen kopuruari erreparatu baino ez dago sektore horren hedaduraz argiro jabetzeko. Oinarritzat hartuta Munduko Bankuak darabilen irizpidea (lau lagun bizi dira, batez beste, meatzari bakoitzaren jardueratik) edo, bestela, landa-lanean jasotako lekukotasunen araberako irizpidea (zazpi lagun, batez beste), 1.200.000 lagunetik 2.100.000 bitartean dute, guztira, artisau-meataritza bizibide. Industria-meataritzaren kasuan, berriz, Katangari dagozkion datuen arabera, 20.000 lagun ari dira sektore horretan zuzenean lanean, eta haren mendeko herritar-kopurua 80.000tik 140.000 bitartekoa da. Nolanahi ere, zenbaki horiek, lehenik eta behin, argi erakusten dute meataritzaren sektoreari buruzko estatistikek muga handiak dituztela, baina, aditzera ematen dute, halaber, sektore hori oso oparoa eta garrantzitsua dela eskualde horretako ekonomian eta gizartean. Katangako demografiari buruzko kalkuluen arabera, 8.700.000 biztanle<sup>61</sup> zituen Katangak 2005ean. Beraz, biztanleriaren % 18tik % 29ra bitartean bizi da meataritza-jardueretatik.

<sup>60</sup> Munduko Bankuaren Txostena, 57. orrialdea. Iturri horren beraren arabera, 2006an Katangatik ofizialki esportatutako kobre- eta kobalto-ekoizpen guztiaren % 80 artisau-tekniken bidez erauzia izan zen.

<sup>61</sup> NBGP KONGOTik hartutako zifrak. (2009). *Province du Katanga. Profil résumé pauvreté et conditions de vie des ménages*. Unité de lutte contra la pauvreté.

### 3. Taula. Meatzaritzarekin lotura edo meatzaritzaren mendeko diren herritarren kopurua

	<i>Artisau-meatzariak</i>	<i>Industria-meatzariak</i>
Meatzaritzarekin lotura duten herritarren kopurua (balioespena)	300.000	20.000
Meatzaritzaren mendeko diren herritarren kopurua (balioespena)	1.200.000etik 2.100.000ra bitartean	80.000etik 140.000ra bitartean

Iturria: Txosten honetarako propio egina, landa-lanean jasotako lekukotasunetan oinarrituta (2011ko urtarrila).

Bestalde, kontuan hartu behar da gorabehera handiak izaten direla Katangako eskualdean artisau-meatzaritzan enplegatutako herritarren edo autonomo gisara lan egiten dutenen kopuruan, sektorearen dinamismo bizia eta mugikortasun geografikoa eta funtzionala direla eta. Areago, meatzariak nomada ere badira, nolabait, kanpamentuz kanpamentu ibiltzen baitira, diru-iturriren bat non lortuko, mineralaren prezioen gorabeherak eta meategietara eta meatze-baliabideetara iristeko egoera aldakorrek hara eta hona bultzatuta. Antzeko zer edo zer gertatzen da industria-meatzaritzak enplegua sortzeko zer-nolako gaitasuna duen aztertzean, industria-meatzaritzaren miatze- eta eraikitze-fase bakoitzaren arabera aldatzen baita eskulan-premia.

Azkenik, 2008an nazioartean lehertutako krisi ekonomikoak eta finantzarioak Katangako meatzaritzaren sektoreko biztanlerian nolako eragina eduki lezakeen aztertu behar da. Landa-lana egin zenean, 2011ko urtarrilean, ez zen hauteman meatzaritzajarduera nabarmen murriztu zenik –ezta jarduera horri lotutako herritarren kopurua ere–; alabaina, aspaldi honetako gertakizunetan hauteman denez, “formalizatze” bidean da sektorea eta industria-enpresek –enpresa bitartekari txikiekin bat eginda– kontrol handiagoa ezarri dute artisau-meatzarien jardueran. Hori dela eta, meategi batzuetatik “kanporatu” egin dituzte langileak<sup>62</sup>.

#### 3.2.2. Ekoizpen- eta merkaturatze-kate luzea

Eragile ugari ekoizpen- eta merkaturatze-kate luze bateko kate-begietako bat da gaur egun artisau-meatzaritzak. XX. mende osoan, ordea, egoera oso beste-

<sup>62</sup> Halaxe adierazi zen GLENCORE enpresaren eta enpresa horrek Katangan dituen eskumendeko enpresen jarduerari buruz antolatutako mintegiaren ondorioetan. Mintegi hori Kisuichiko Notre Dame monasterioan egin zen, irailaren 26an eta 27an, eta ustelkeriaren aurka borroka egiteko, natura-baliabideak babesteko, giza eskubideak defendatzeko eta garapena sustatzeko ekimenetan diharduten Suitzako zein Kongoko GGKE ugari hartu zuten parte.

lakoa izan zen Katangan, estatuak sektore horren monopolioa baitzuen, GÉ-CAMINES erakundearen bidez. Izan ere, GÉCAMINESek erabat kontrolpean zuen sektorea, eta gutxi batzuk baino ez ziren bestelako eragileak (artisansu-meatzariak, adibidez).

Mineralen prezioak igotzeaz batera, GÉCAMINES kolapsatuta geratu eta mota eta tamaina guztietako enpresa atzerritarrak iritsi ziren Katangara. Egoera berri horrek eraldatu egin zuen Katangako “meatzaritzza-katea” eta, kate horren murrerretako batean, artisansu-meatzarien taldea sortu zen, eta batik batik minerala erazteko eta mineral hori meatokian bertan metatzeko jardueretan aritzen ziren. Prezioak igo ahala, talde hori etengabe ugaltzen aritu da, urtez urte, 2010eko eta 2011ren hasierako hedadurara iritsi arte.

Landa-lanean jasotako lekukotasunen arabera, artisansu-meatzaritzak ezinbestekoa du lan-prozesuaren nolabaiteko antolakuntza, gutxienerako eraginkortasuna eta segurtasuna bermatzeko. Meatzariek 3-8 laguneko taldeetan egiten dute lan (gizonezkoak dira beti), elkarrekin eta oso lan-kondizio latzetan. Minerala erazteko lanetan trebatutako hiru lan-kategoria daude, gutxienez: “erasotzaileak”, “defendatzaileak” eta “garraiolariak”, eta erazte-lanak egiteaz, tunelak zurkaizteaz eta mea garraiatzeaz arduratzen dira, hurrenez hurren. Taldeburua, gehienetan, eskarmentu handiko meatzari bat izaten da –gutxienez bost urteko esperientzia arlo horretan, eta segurtasun-nozio batzuk–. Hura arduratzen da, esate baterako, “kakoloek” edo tunelek behar duten gutxienerako diametroa baduten aztertzeaz. Mea-metaketa (zain) on bat aurkitzen dutenean, gerta liteke langile gehiago behar izatea hurrengo lanetan laguntzeko. Laguntza-taldeko kide horiei “mertzenario” esaten zaie, eta gauzez ere lan egiteko prest egoten dira, soldata txikiagoa jaso arren. Batzuetan, banatu egiten dute ekoizpena: erdia, hasierako lantaldearentzat (aurkitzaileak), eta beste erdia, mertzenarioentzat.

Badira, orobat, beste jardun espezializatu batzuk, hala nola “mea-garbitzaileena”. Mea-garbitzaileak emakumeak izaten dira, eskuarki, eta oso baldintza eskasetan egiten dute lan, osasun- eta segurtasun-arrisku handien pean (erradioaktibitatearen eraginpean edo sexu-indarkeria jasateko arriskupean, esaterako). Emakumeek ez dute meategi barruan lan egiten; izan ere, herritarren artean errotutako sinesmen edo superstizio baten arabera, emakumeren bat meatokian sartuz gero, agortu egiten dira mea-zainak, eta istripuak ere gertatzen dira. Hurrek meatzeetan lan egitea, berriz, erabat arrunta da artisansu-meatzaritzan. Hurrek –neskato zein mutiko– lan asko egiten dituzte meatzeetan:

garbitze-lanetan aritzen dira (emakumeekin batera), eta garraio-lanetan, baita prospekzio- eta erauzpen-lanetan ere.

Zaila da jakitea artisau-meatzarien talde batek nolako ekoizpen-gaitasuna duen, baita talde batek denboraldi jakin batean zenbateko irabaziak lor ditzakeen ere. Lekukotasunetako baten arabera, oso emaitza ona izango litzateke 10 tona mea (kobre edo kobalto) erauztea 10-14 egunean. Irabaziak ekoizpen-bolumenaren zein mea-aberastasunaren arabekoak izaten dira, baita taldearen (edo norbanakoaren) negozio-gaitasunaren eta nazioarteko prezioen arabekoak ere. Nolanahi ere, artisau-meatzaritzaren sektoreak, ezinbestean, ziurgabetasun-egoeran dihardu, etengabe (noiz irabazi eskas-eskasak, noiz irabazi bikainak).

Artisau-meatzeetatik erauzitako mea merkaturatzeko prozesua banan-banakoa izaten da nagusiki, eta “tratulariak” funtsezko egitekoa du prozesu horretan. Ordenamendu juridikoaren beraren barruan ere eragile hori giltzarritzat jotzen da artisau-meatzaritzaren sektorean. Izan ere, “tratulariak” arduratzen dira minerala meatokian bertan erosteaz, eta merkaturatu eta saldu egiten dute gero, fabriketan transformatu aurretik. Merkaturatze-prozesu horretan, beste eragile batek ere esku hartzen du, minerala fabrikara iritsi eta transformatu aurretik: erosle ofiziala edo *comptoir-a* da eragile hori, eta biltegi-lanak ere betetzen ditu. Jaso diren lekukotasunen arabera, mineralaren pisua eta aberastasuna aztertzean izaten dira iruzurrak eta gehiegikeriak, tratularien zein “comptoir”en aldetik. Askotan, gainera, meatzari-taldeek tratulari edo kooperatiba jakin bati saldu behar izaten diote, nahitaez, minerala, eta ez dute negoziatzeko inolako aukerarik izaten merkaturatze-prozesuaren aldi horretan.

Artisau-jardueren finantziazioari dagokionez, bi sistema daude: jarduera nork bere kabuz finantzatzeko edo nork bere kontura lan egiteko sistema, batetik, –meatzariak berak erosten ditu meategian lanean arituko den denboraldirako behar dituen tresnak eta elikagaiak–, eta babesleen bidez lan egiteko sistema, bestetik –kanpoko pertsonaren batek erosten die langileei behar dituzten tresnak eta elikagaiak, edo horretarako dirua aurreratzen die–; ondoren, ekoiztitzakoaren erdia ematen diote meatzariak babesleari, finantziazioaren ordainetan.

Horrenbestez, artisau-meatzaritza jarduera garrantzitsua da Katangako eta inguruko eskualdeetako etxe askotako biziraupen-estrategietan. Sektorea oso dinamikoa eta informala da, eta nazioarteko merkatuetan ezarritako prezioen gorabeheren mende dago erabat, baita joko politiko baten mende ere, zeinetan bat egiten baitute estatuen interesek, nazioz gairikoko enpresek eta eskualdeko agintariek edota tokian tokiko eliteek. Informazio fidagarria lortzerik izan ez denez, ezin izan da zehazki jakin artisau-meatzaritzak benetan nolako ekarpena egiten dien eskualdeko ekonomiari eta etxeetako ongizateari. Artisau-meatzaritzan lanean dihardutenen bizi-baldintzak gogorak dira oso; sektore horretako merkaturatze-katea, gainera, luzea da, eta meatzaritza-lanetan aritzen direnekiko esplotazio-maila eta gehiegikeriak, handiak (langile asko, gainera emakumeak eta haurrak dira). Azken batez, artisau-meatzaritza behin-behineko “aukera” izaten da, askotan, arrisku eta kostu handiak eragiten baitizkie langileei. Hala, bada, diru-sarreraren bat lortzeko beste aukerarik ez dutelako eta etorkizunaren alde borrokatu beharra dutelako abiatzen dira jarduera horretan, eta horregatik jarraitzen du artisau-meatzaritzak bizirik.

### 3.3. ARTISAU-MEATZARITZARI LOTUTAKO LEGEAK ETA POLITIKAK

#### 3.3.1. *Meatzaritza-kodearen sorrera, 2002an*

Kongoko EDko meatzaritza-kode berria 2002an sortu zen. Munduko Bankuak bete-betean esku hartu zuen kodea kudeatzeko eta arautzeko prozesuetan: kodea finantzatu zuen, eta haren erreferentzia-terminoak idazteko lanetan parte hartu. Kinshasako bulego juridiko batek, Mukendi kabinetek<sup>63</sup>, idatzi zuen proiektua, eta Parlamentuan eztabaidatu zen gero, bozkatu eta onartu aurretik. Ez dirudi, ordea, testu hori beste gune batzuetan kontsultatu eta eztabaidatu zenik.

Sektorea modernizatzeko eta liberalizatzeko beharrak bultzatuta eratu da meatzaritza-kode hori; izan ere, krisiak, gatazkak eta ustelkeriak bortizki astindu dute sektorea. Era berean, ordea, meatzaritzaren sektoreak Kongoko EDren

<sup>63</sup> Mukendi kabinetea negozio-zuzenbidean espezializatuta dago, eta egoitzak ditu Kongoko EDn, Hegoafrikan eta Estatu Batuetan. Informazio gehiago jaso nahi izanez gero, ikusi: <http://www.cabemery.org/>

ekonomia suspertzeko indarra duela jotzen da, eta bigarren gerratearen ostean herrialdea berreraikitzeke diru-iturri garrantzitsu bilaka daitekeela. Hala, bada, 2002ko uztailaren 11n onartu zen kode berria, 007/2002 Legearen bidez. Lege hori, gero, 038 zk.ko Presidentziaren Dekretuz garatu zen, 2003ko martxoaren 26an.

Luzaroan irauteko asmoz eratu zen meatzaritza-kodea, eta hamar urteko epean berrikusi egingo zela ezarri zen. 2012ko berrikuspenean, 2006ko konstituzio-aldaketak ere jasota geratuko direla espero da, aldaketa horietan Kongoko EDko lurraldearen egituraketa eraberritu baitzen; era berean, berrikuspen horren barruan kodearen ibilbidea aztertu eta dagozkion doikuntzak egingo direla espero da.

## 2. Koadroa. Zergatik behar da beste meatze-kode bat Kongoko EDn?

1. Herritarrek eta haien ondasunek ezegonkortasun politiko handia eta segurtasunik eza pairatzen dutelako.
2. Legeen aldetik segurtasunik ez dagoelako (meatzaritza-emakiden legez kanpoko desjabetzeak).
3. Estatuak botere gehiegi duelako, batik bat meatze-produktuak merkaturatzeko prozesuetan.
4. Bi lege-sistema daudelako aldi berean: bat, zuzenbide erkidean oinarritua, eta, bestea, hitzarmen-zuzenbidean.
5. Finantza-gaitasun mugatua duten meatzariei meatze-kontzesioak eman ahal izateko.
6. Klase ertaina sortzeko gaitasunik ez dagoelako.
7. Meatzaritzaren sektoreko errentak modu zentralizatuan kudeatzeko.
8. Ingurumena babesteko araurik ez dagoelako.

Iturria: Txosten honetarako propio egina, honako lan hau oinarritzat hartuta: Nouvelle Dynamique Syndicale. NDS.(2005) *Pour comprendre le nouveau code minier de la République Démocratique du Congo. Guide destiné aux populations locales*. Lubumbashi: NDS.

Meataritza-kode horrek garrantzi handiko berrikuntzak txertatzen ditu, sektorea modernizatzeko xede argiz, meataritza-tradizio handiko beste herrialde batzuetan goeko hamarkadan egin izan den moduan. Meataritza-katastroa sortu da; estatuburuaren eta meataritza-ministroaren eskumeneko boterea murriztu egin da; gizarte-kapitalean % 5eko partaidetza izatera behartu da estatua, eta meataritzaren diru-sarrerak banatzeko araubidea ezarri da (% 60, gobernu zentralerako, eta % 40, eskualdeetarako; zati horretatik % 25, eskualdeko gobernurako, eta % 15, erauzketa-eremuetarako).

Meataritza-kode berrian, bestalde, berriaz aipatzen da artisau-meataritza. Kontuan hartu meataritza-mota horrek, kode berria onartu zen unean, garrantzi handia zuela diamantedun eskualdeetan (Kasai) eta urredunetan (Kivus); ez horrenbeste, ordea, industria-mailako meataritza-tradizioa duten eskualdeetan, hala nola Katangan. Kode berriaren xedapen nagusiak, artisau-meataritzari dagokionez, artisau-meatzariaren txartela (carte d'exploitation artisanale) eta tratulari-txartela (carte de négociant) erosteko betebeharra ezartzen du, kanpamentuetan legez lan egin ahal izateko.

Bestalde, artisau-meataritzarako gunereziak "Zone d'Exploitation Artisanale" (ZEA) ezartzen ditu kodeak. Gune horiek Meataritza Ministerioaren ordezkariak izendatzen ditu, Meatze Zuzendaritzaren eta probintziaren gobernadorearen iritzia aintzat hartuta. ZEA izeneko gunereziak ez dute ingurumen-eraginari buruzko azterlanen onarpenik behar, eta txartela dutenek soilik lan egin dezakete haietan.

Meataritza-kodea eta artisau-meataritzari buruzko haren xedapenak aztertzean, kode hori ezartzeko erronkak azpimarratzen dituzte gehienek, batik bat gaur egungo erakundeek sektore hori arautzeko eta bideratzeko izan dezaketen gaitasunari dagokionez, luzaroan sektore informala eta dinamikoa izan baita (gainera, kanpoko aldagaiekiko mendekotasun handia du, nazioarteko prezioak direla edo joko geopolitikoa dela).

### *3.3.2. Meataritza-politika: egintzen politika, ez agiriarena*

Kongoko EDren meataritza-politika, azken hamar urteotan, egintzen politikatzat jo daiteke, agiriak sortzeko politikatzat baino gehiago. Plangintza- eta/edo ebaluazio-agiri bakarren bat baino ezin izan da lortu, oinarrizko informazioa jasotzeko, arazo nagusiak hautemateko eta politika publikoak proposatu ahal izateko, artisau-meataritzari lotutako pertsonen eta lurraldeen beharrezko kontu eginda.



Horrenbestez, Munduko Bankuak 2008an<sup>64</sup> egindako txostenaren kapituluetako bat da oraindik ere erreferentziako agiria. Han aztertutako oinarriko zenbait datutan islatzen da Kongoko EDn artisautzaren sektorearen aparteko garrantzia eta hedapena (guztizko ekoizpenaren % 90 artisau-tekniken bidez erazten da; 500.000 lagunetik 2.000.000ra bitartean bizi dira, zuzenean, artisau-meatzaritzatik, eta 8.000.000 lagunetik 10.000.000ra bitartean, zeharka). Txosten horretan eman ziren aditzera, orobat, sektorearen arazoetako batzuen lehen zantzuak (hala nola artisau-meatzaritzaren eta industria-meatzaritzaren arteko tirabirak).

Artisau-meatzaritzaren arloan abian jarritako egintzen politikaren asmo nagusia sektorea antolatzea eta arautzea izan da. Horretarako meatzari-kooperatibak sortu eta zerbitzu espezializatu bat jarri du abian Kongoko EDren Gobernuak, hain zuzen ere, “*Service d’assistance et d’encadrement du small scale mining*” (SAESSCAM) zerbitzua, 1999an sortua, artisau-meatzaritza eta maila txikiko meatzaritza antolatzen eta fiskalizatzen laguntze aldera. Urte batzuk geroago, 2003an, mailaz igo zen zerbitzua, eta gobernuaren departamentu bilakatu zen, Meatze Ministerioaren barruan. Zerbitzuaren helburu nagusiak dira artisau-meatzaritzaren eta meatzaritza txikiaren produktibitatea handitzea, langile horien lan-baldintzak hobetzea eta ustelkeria murrizten laguntzea, meatokitik saltokirako ibilbidean produktuen aztarnaren segimendua egiteko metodoak hobetuta.

### 3.4. GIZARTE-EKINTZA: ERRONKAK ETA ESTRATEGIAK

Informaltasuna, dinamismoa eta kanpoko aldagaiekiko mendekotasun estua dira artisau-meatzaritzaren ezaugarri adierazgarrienak. Lan- eta bizi-baldintzak oso gogorak dira, eta langileak hainbat mehatxuren pean bizi dira: gehiegikeriak, esplotazioa, istripuak eta erradioaktibitatea...<sup>65</sup>

Alabaina, Katangako landa-lanean jasotako lekukotasunek ez dituzte alderdi horiek nabarmentzen; aitzitik, hiru erronka edo arazo handitan kokatzen dute eztabaida, eta horietara bideratzen dituzte antolatzeko eta talde-ekintza eratzeko ahaleginak. Meatzariak, bada, ondo jabetzen dira zer eragilek eta baliabidek era-

---

<sup>64</sup> Ikusi World Bank. (2008). *Democratic Republic of Congo. Growth with Governance in the Mining Sector*. Oil, Gas, Mining and Chemicals Department. Africa Region. 56. orrialdetik 62. orrialdera.

<sup>65</sup> Kobrea, kobaltoa eta uranioa elkarrekin egoten dira, maiz. Zenbait GGKEk salatu dutenez, erradioaktibitate-arriskua oso handia da Katangako zenbait kanpamentutan, eta, zehazki, Shimboloweko uranio-meategian. Ez da aurkitu Katangako kanpamentu guztietako erradioaktibitate-arriskuaren balorazio orokorrik egiten duen txostenik.

giten duten bidegabekeria, eta honako lehentasun hauek azpimarratzen dituzte bizi-baldintzak eta lan-baldintzak hobetzeko:

1. Meatze-kanpamentuetan aritzeko aukera izatea
2. Bidezko prezioa jasotzea erauzitako mearen truke
3. Gobernuko zerbitzuekin harremana hobea izatea

Meatzariek, haien erronka nagusiei dagokienez, meatze-baliabideak erabiltzeko eta meatze-kanpamentuetan aritzeko aukera aipatzen dute, batetik. Munduko Bankuaren 2008ko txostenean bertan, “Akilesen orpotzat” jo zen artisau-meatzaritzaren eta industria-meatzaritzaren arteko gatazka, Kongoko meatzaritzaren etorkizuna kolokan jartzen zuela iritzita<sup>66</sup>, eta halaxe frogatu da landa-lanean ere.

2011ko urtarrilean jasotako adierazpenen arabera, Katangan artisau-ustiaketako sei gune (ZEA) izendatu dituzte, nahiz eta oraindik ere guztiak abian egon ez eta erabili ez. Alabaina, meatze-kanpamendu askotan ezkutuko artisau-ustiaketan dihardute, argi eta garbi (adibidez, parke nazionaletan eta dagoeneko itxi dituzten zenbait kanpamentutan, hala nola Shimbolowen). Bestalde, bada beste kasuistika konplexu bat ere, artisau-ustiaketa “paraleloena”, hain zuzen. Gune horietan, artisau-tekniken bidez erauzten da mea, baina meatzaritzazozietate jakin batek du gune horietan meatzaritzan jarduteko kontzesioa. Artisau-meatzarien eta meatze-sozietate ugarien arteko harremanak mutur batetik bestera doaz: bete-beteko indarkeria eta gatazkatik hasi (meatzariak lanean diharduten kanpamentuetatik kaleratzea agintzen denean sortzen dira, gehienetan, gatazka horiek) eta hainbat lankidetzaz-mailataraino<sup>67</sup>.

Izan ere, meatzaritzazozietateek meatze-kanpamentuetatik kaleratzen dituzte artisau-meatzariak. Sozietate horiek, zenbaitetan, beren aginte-indarraz baliatzen dira artisau-meatzarien taldeen zenbait zerbitzu “azpikontratatzeko”, neurritz kanpoko baldintzak ezarrita, gehienetan. Artisau-meatzari horiek egiten dituzte, maizenik, meategietako miaketa-faseko lanik gogorrenak. Dena dela, 2012. urtean hauteman ahal izan denez, meatze-sozietateek kontrol handiagoa ezarri dute artisau-tekniken bidezko ekoizpenaren gainean<sup>68</sup>.

---

<sup>66</sup> Ikusi World Bank. (2008). *Democratic Republic of Congo. Growth with Governance in the Mining Sector.* (57. or). Oil, Gas, Mining and Chemicals Department. Africa Region.

<sup>67</sup> Hona hemen lankidetzaz-aukerei buruzko ikerketa sakonagoa: María, J. & Taka, M. (2011) “*Artisanal miners and mining companies in the DRC: from conflict to collaboration*”.

<sup>68</sup> Ondorio horiek atera dira gizarte zibilaren 20 erakundek antolatutako mintegitik. Kongoko EDko eta Suitzako hainbat erakundek parte hartu zuten mintegi horretan, eta Kisuichin egin zen, Katangan.

Artisau-meatzariak, berriz, behin eta berriz ari dira aldarrikatzen egindako lanaren eta erauzitako mineralaren truke bidezko prezioak jaso behar dituztela. Mea-erosle eta -tratariekiko auzirik gatazkatsuen meatzariak ekoiztutako mearen pisua eta aberastasuna neurtzean sortzen da. Halako gatazkarik ez sortzeko, neurketa-teknologia fidagarria erabiltzea da gakoa, baina teknologia hori, eskuarki, ez da egoten kateko azken kate-begiaren eskura –hots, artisau-meatzariaren eskura–. Hain zuzen ere, horixe da meatzariari egindako elkarrizketan sarrien azaleratutako eskaera; hots, teknologiak eta zerbitzuak eskura izatea, meatzaritza-katean parte hartzen duten eragile guztien arteko harremana bidezkoagoa izan dadin.

Hauxe da, azkenik, meatzarien aldarrikapenen hirugarren ardatza: meatze-kanpamentuetan dauden gobernu zerbitzuekiko harremana. Izan ere, meatzari gehienak iritzi, zerbitzu horiek inposatutakoak dira, eta ez dute praktikan, haientzat inolako erabilgarritasunik. Nahiz eta zenbait artisau-meatzari bereizi egiten dituzten sektorea arautzen laguntzeko sortutako gobernu-zerbitzuak edo erakundeak (SAESSCAM eta kooperatibak) eta meatokietako segurtasuna zaintzen dutenak (meatze-polizia, armada eta abar), gehienak iritzi gehiegikeriaz jarduten dira gobernu zerbitzuak.

Artisau-meatzaritzan diharduten langile gehienak iritzi horrekin bat datozen arren eta esplotazioaz eta gehiegikeriez jabetzen badira ere, gizarte-ekintza ahula da, eta ez dirudi egituratuta dagoenik. Artisau-meatzarien interesak defendatzeko sindikatu bat dago 2006tik (SEMAK sindikatua), baita irabazi asmorik gabeko elkarte bat ere (EMAK) 2003. urtetik. Alabaina, ez dirudi erakunde horiek nahikoa gaitasun dutenik artisau-meatzarien gizarte-ekintza egituratzeko eta haien eskariak bultzatzeko. Meatzariak, gainera, ez dute oro har erakundeekiko konfiantzarik; ez dituzte beren eskubideak ezagutzen, eta ez dute askorik sinesten sindikatuen eta elkarten lanean.

Testuinguru horretan, bada, meatzarien gizarte-ekintza aise bilaka daiteke amorrutik eta indarkeria<sup>69</sup>, gehiegikeriaz jotzen dituzten egoeren aurrean taldearen frustrazioa bideratzeko zubi modura. Meatzariak beste eragile batzuei kontra egiten dietenean ari dira sortzen, batik bat, halako egoerak, meatzaritza-elkarteekiko liskarretan, bereziki; izan ere, elkarte horiek meatzarien aurkariak dira meatze-baliabideak lortzeko lehian, baina alde handia dago batzuen eta besteen botere-ahalmenean.

---

<sup>69</sup> Esate baterako, 2010eko ekainean, istiluak izan ziren Likasiko herrian, bi artisau-meatzari kaleratu zituztela-eta lanean ziharduten kanpamentutik. Indarkeriazko liskarrak izan ziren polizia- eta meatzarien artean, eta hildakoak eta zaurituak ere izan ziren.

### 3.5. GIZARTE ZIBILAREN EGINKIZUNA

Azken hamar urteetan Katangako industria-meatzaritzak zein artisau-meatzaritzak izan duen gorakadak bultzatuta, eskualde horretako gizarte zibileko eragile garrantzitsuenetariko batzuk meatzaritzaren gainean gogoetak egiten eta indarrak batzen hasi dira. Alabaina, artisau-meatzaritza hain da konplexua eta informala eta hain ditu hegi ugari, ezen gogoeta-prozesua oso motel ari baita garatzen, edo, gutxienez, sektorea indartu ahala sortzen ari diren arazoak baino askoz motelago. Dagoeneko, hasi dira azaleratzen eragin kaltegarri gordinenak ere: haurrak lanean, lan-kondizio penagarriak, segurtasun-falta, kutsadura eta abar.

Gizarte zibilak industria-meatzaritzaren gaineko eztabaidetan duen parte-hartzea askoz handiagoa da artisau-meatzaritzaren gainean duten parte-hartzea eta gogoeta-maila baino. Testuinguru horretan, nabarmentzekoak dira gizarte zibilaren zenbait erakunde egindako aurrerapausoak (GGKEek, batez ere), gizarterantzukizun korporatiboko politikei eta gardentasunari buruzko eztabaidetan murgildu baitira<sup>70</sup>.

Horren erakusgarri, gizarte zibilaren arloko erakundeek plataforma bat sortu zen 2009an, meatzaritzaren gaiak jorratzeko asmoz, eta horixe izan da, hain zuzen, gizarte zibilak Katangan egindako lorpenik handiena. Bost erakunde izan ziren, hastapenetan, plataforma horren lehen kideak, langileen eskubideen defentsan, bakegintza- eta adiskidetze-prozesuen ezarpenean eta garapenean eta ikerketaren sustapenean aritutakoak. Plataforma hori osatzen duten erakundeak ondo jabetzen dira artisau-meatzaritzak arazo larriak dituela eta arazo horiek kolokan jartzen dutela gizarte-bakea eta ongizate orokorra; haatik, ez dirudi erabat ulertzen dutenik sektore horren barne-dinamika, eta ez dirudi, orobat, jarrera bateratua dutenik. Artisau-meatzaritzaren sektorea, gainera, oso dinamikoa da, eta azkar ari da eboluzionatzen; meatzariei beren eremuan laguntzeko esperientzia, berriz, txikia da oraindik. Faktore horiek, bada, are konplexuagoa bilakatzen dute egoera.

Bestalde, meatzaritza-auziari lotuta, zenbait apezpiku eta Eliza Katolikoarenguruko talde batzuk gero eta ozenago ari dira salatzen zer-nolako suntsiketa ari den eragiten artisau-meatzaritza eskualdeko gizartean zein ekologian, eta, horren aurrean, balioak berreskuratzea eta tokiko garapen ekonomikoaren planifikazio orekatuagoa eta jasangarriagoa lortzera egiten dute dei.

---

<sup>70</sup> Ikusi Muhigirwa, F. (2010) *Pour une bonne gouvernance dans le secteur minier en RDC*. Kinshasa: CEPAS.

Aipagarriak dira, azkenik, nazioarteko zenbait GKE garrantzitsuren adierazpenak, ikerlan aipagarriak egin baitituzte artisau-meatzaritzari buruz. Ikerlan horietako gehienek helburua sektore horretako esplotazioa, gehiegikeria eta ustelkeria salatzea izan da<sup>71</sup>, baina, beste kasu batzuetan ikusienez, ustekabeko ondorioak ere izan ditzakete salaketa-mota horiek<sup>72</sup>, eta egoera horrek are zailagoa bilakatzen du artisau-meatzaritzari buruzko jarrera bateratuak adostea. Katangako artisau-meatzaritzaren kasuan, esaterako, salaketa publiko horiek areagotu egin dute gobernuko funtzionarioen eta meatzarien mesfidantza ikerketa-lanetan aritzen diren pertsonetikiko.

Azkenik, nabarmentzekoa da gizarte zibileko erakunde eta GGKE gutxi egiten dutela artisau-meatzariek zuzenean lan meatzaritzakantapamentuetan edo herrixketan, eta halako erakunde gutxi ditudutela meatzarier zuzeneko laguntza ematen. Izan ere, egoera latza da, oso, eta sektoreko dinamismoa eta informaltasuna, handia; hala, bada, faktore horiek oztopo bilakatzen dira laguntza-jarduerak aurrera eraman ahal izateko.

### 3. Koadroa. Luishako barnetegia

Luisharen kasuak argi erakusten du zer lor daitekeen gizarte-ekintza ondo antolatuta badago. Herri txiki bat da Luisha; berrehun bat laborari bizi dira han, eta meatzaritzakantapementu bat izan zuen, artisau-meatzaritzaren hastapenetan, artean belgikarren eskuetan zela. Enpresaren gerente nagusiak goi-mailako barnetegi bat eraiki zuen Kongoko neskatilentzat, eta abian egon da 1960ko hamarkadaren erdialdetik. Ikastetxea Kongoko EDko onenatarikoa bilakatu zen, eta haren eraikinak ondare eder, zinez. Ondoren, 2000.eko hamarkadan, meatzaritzaren betebeteko loraldian, konpainia txinatar batek ireki zuen, berriz ere, kantapementua. Artisau-meatzariak erakarri zituen kantapementu zaharrak, eta berehala eraiki zituzten meatzaritzak-herrixkak. Hala, gaur egun, ia 14.000 lagun bizi dira gune horretan. Kanadako enpresa batek mea-metaketa bat aurkitu zuen ikastetxearen azpian, eta 10 milioi dolar eskaini zizkion Elizari –hura baita ikastetxearen jabea–, metaketa hori ustiatzearen truke. Alabaina, Luisha ikastetxearen ikasle ohiak, Kongoko gizartearen andere dirudunak egun, antolatu egin ziren protesta egiteko eta eskolako meatzaritzaketa geldiarazteko. Manifestazio baketsua egin zuten Lubumbashin, proiektu hori gelditu dadin eskatzeko eta barnetegia saldu eta beste lekuren batera eraman dezaten galarazteko, horixe agindu baitzuen Kanadako elkarteak. Gaur egun, borrokan jarraitzen dute Luishako barnetegiaren alde.

Iturria: Txosten honetarako propio egina, landa-lanean jasotako lekukotasunetan oinarrituta (2011ko urtarrila).

<sup>71</sup> Global Witness GGKEaren ikerlan hau da horren adibide. (2004). *Ruée et ruine. Le commerce dévastateur des ressources minières dans le Sud du Katanga en République démocratique du Congo* Global Witness.

<sup>72</sup> Ikusi Seay, L.E. (2012). *What's Wrong with Dodd-Frank 1502? Conflict Minerals, Civilian Livelihoods, and the Unintended Consequences of Western Advocacy*. Washington: Center for Global Development. *Working Paper* 284.

### 3.6. ONDORIOAK

Katangako eskualdeko artisau-meatzarien gizarte-ekintzaren antolamendua oso ahula da; izan ere, oso baldintza gogorrei aurre egin behar diete meatzariak, egunez egun, eta, giro etsai horretan, **biziraupen-borroka** dute lehentasun. Artisau-meatzariak nahiko ondo antolatuta daude haien laneko ekoizpen-ziklo ezegonkorrari aurre egiteko; haien jarduna, baina, ahula da, oro har, eta ez dago ondo antolatuta, ez meatzaritza-kanpamentuetan aritzeko baldintzak zehazteko ez haien lanaren eta ekoizpenaren truke bidezko prezioak lortzeko.

Artisau-meatzariak ohartzen dira bitartekarien kate luzeak **esplotatu** egiten dituela, baina ez dute talde-antolamendu egokirik egoera horri aurre egiteko. Meatze-kanpamentuak eratzeko prozesuetan parte hartzeko aukera gutxi dute; izan ere, meatzaritza-kontzesioak **gobernuak** berak ematen ditu (eta, dirudieenez, prozesua ez da batere gardena izaten), eta gobernuak ez du harreman handirik ez meatzariekin ez tokian tokiko zein eskualdeko agintariek eta agintari tradizionalekin. Egoera horretan, artisau-meatzarien talde-ekintzak indarkeriaren eta matxinaden bidea hartzen du batzuetan, **amorrazioak** bultzatuta, horrela azaleratzen baitute meatzariak beren frustrazioa bidegabekieriaz jotzen dituzten egoerekiko.

Artisau-meatzariak **errezeloz begirutzen diete** gobernuak meatzarien segurtasuna zaintzeko eta sektorea arautzeko sortutako zerbitzuei; izan ere, horrenbeste dira meatzaritza-kanpamentuetan diharduten erakundeak, iluna eta ulergaitza bilakatu baita haien erregulazio-jarduna. Artisau-meatzariei zerbitzu teknikoak emateko sortutako estatu-erakunde bakarrak (SAESSCAM) oso ahula dirudi; finantziario eskasa du, eta ez dago teknikoki oso prestatuta bere helburuak lortzeko, hots, meatzarien premiak eta interesak bideratzeko. Estatuaren zerbitzuen artean, zaintza- eta segurtasun-zerbitzuak dira jaun eta jabe: meatzaritza-polizia, meatzaritza-ministerioa, armada eta abar; zerbitzu horiek, baina, ez dira meatzarien interesekoak, ez baitute haien ongizatea sustatzen. Areago, artisau-meatzari batzuek nahigoko lukete ezkutuko kanpamentuetan lan egin, segurtasun-indar eta -erakunde horien eragin-eremutik kanpo egoteko, esplotatu egiten dituztela irizten baitute.

Bertzalde, ez dirudi langileek artisau-meatzarien sindikatua (SEMAK) ere fidagarritzat jotzen dutenik, ez baitute uste beren eskubideak defendatzen dituenik. Era berean, meatzarien iritziz, Katangako bi kooperatiba handienak (CEMAK eta CMKK) gobernuaren interesak eta artisau-meatzaritzaren negozioan diharduten familia eta pertsona jakin batzuen interesak zaintzeko baino ez dira sortu.

Kooperatiben zilegitasuna, beraz, kolokan dago, oro har. Azkenik, ikerlan honetan ezin izan da argitu meatzariek beren kabuz sortutako kooperatibarik badagoen.

Gizarte zibilaren erakundeak hausnartze- eta aztertze-lanetan murgilduta jarraitzen dute, industria- eta artisau-meatzaritzek Katangako eskualdearen garapenean zer-nolako eginkizuna duten argitzen saiatze aldera. Gizarte zibilaren erakundeek, berriz, ez dute meatzaritza-kanpamentu eta -herrixketan bertatik bertara esku hartzen. Azkenik, Eliza Katolikoko zenbait ordezkari egoera ozenago salatzen hasi dira, eta nazioarteko zenbait GGKEk salaketak jarri dituzte –ustekabeko ondorioekin, baina–.

Estatua oso ahula da, eta ekonomiaren sektore hori erregularizatzeko aukera gutxi ditu; nekez lortuko du, halaber, artisau-meatzaritzaren barruan gogotik hedatu diren gehiegikeria eta gizarte-arazoak murrizteko plan arrazoizko eta errealistik eratzeari. Artisau-meatzaritzak bereziki kolpekatzen ditu tokiko agintariak –eskualdeko gobernuak, lurralde-unitate deszentralizatuak eta agintari tradizionalak–, baina, hala ere, konponbide pragmatikoak proposatzeko ahulegiak dira (baita, agian, mesfidatiegiak ere).

Gizarte-bakea eta lanerako eskubidea daude jokoan, baita lurralde horren etorkizuna, hango natura-baliabideen kudeaketa eta biztanleen ongizatea ere.





## 4. Gujarat, India: Baso-eskubideen legearen ezarpena

Baso Eskubideei buruzko Indiako Legea (aurrerantzean, BEL), 2006an onartua, Indiako jatorrizko biztanleek (adivasiak) eta haiek bizi diren baso-lurraldeak etorkizun hobea izan dezaten urrats bat izan da. Iraganari eta etorkizunari aldi berean begiratzen dien legeria da: iraganari, basoen eta baso-lurraldeen sarbide-eta okupazio-eskubideak aitortu eta ematen dizkielako adivasiei, kolonialismoaren garaiaz geroztik galduta zituzten eskubideak alegia. Beren herrian “usurpatzaile” eta “kriminal” bihurtu zituen adivasiak eskubide haiek kendu izanak. BELe, bestalde, etorkizunari ere begiratzen dio, oinarrizko bi eskubide (eta horiei dagozkien betebeharrak) jasotzen baititu: basoak babesteko eskubidea eta haietan bizi direnen mantenua edo bizigaiak bermatzekoa.

Beraz, Indiako BEL bidegurutze abstraktu batean koka daiteke. Bidegurutze horretan, gizarte- eta ingurumen-justiziaren aldeko borrokak (hain zuzen ere, adivasiek basoetan sartzeko eskubidea berreskuratzea) topo egiten du baso-baliabideen kudeaketa demokratikoago batean sakontzeko premiarekin, aldi berean bizimodua ateratzeko bitartekoak babesten dituen eta garapen-eredu alternatiboak miatzen dituen kudeaketan sakontzekoarekin. Hortik abiatuta, erdi irekitako atetzat jo daiteke BELa, hau da, baliabide naturalen gobernantza hobea bat, justizia soziala kontuan hartzen duen ikuspegitik miatzeko aukera gisa.

Hala ere, BELen ezarpena murrizten ari diren oztopoak eta desafioak izugarriak dira. Ateak itxita jarraitzen du, eta oztopo asko ari dira galarazten lege horretako aginduak praktikan jartzea. Funtzionarioek eta komunikabideek BELi buruz ez esan ez duten arren, BEL praktikan jartzeko egiten ari den sabotajearen mailak ados jartzen gaitu gai horren inguruan berriki egindako txosten batekin. Honako

hau dio txostenak: “*Indiako baso-lurak gatazka eta injustizia handien gudu-zelaia dira*”<sup>73</sup>.

Gujarateko hiru barrutitako adivasiek BELa abian ipintzean abiarazi duten gizarte-ekintzaren ezaugarriak deskribatzen ditu dokumentu honek. Hasieran, testuinguruari –bai nazionalari (India), bai eskualdekoari (Gujarat)– begiratu bat egin diogu, hura interpretatzeko. Hazkunde ekonomiko handiko egungo egoeran adivasiak izaten ari diren trantsizio ugariak nabarmentzen ditu interpretazio horrek.

Aurrerago, BELaren historia eta edukiak azaltzen dira, eta horrek adivasiei eta haiek bizi diren lurraldearen etorkizunari ekar liezazkiokoen ondorioen balorazio batzuk ere. BELaren aplikazioak izan dituen zailtasun handiak deskribatzen dira, eta, ondoren, kanpoko oztopoak eta ahultasun isilak identifikatzen.

Hirugarren atalean, **oinarrizko erakundeen, ekintzaileen eta erakunde-federazioen gizarte-ekintza konbinatua** aztertu da. Hasieran, erabilitako estrategien deskribapena eta zailtasun nagusien identifikazioa egin da; ondoren, ondorioak azaldu dira, guztiak ere adivasien gizarte-ekintza indartzeko eta haiek beren bazoan eta baso-lurren kudeaketaz proposamenak egiteko gaitasuna sendotzea helburu dutenak.

## 4.1. TESTUINGURUA ASTERTZEN

### 4.1.1. India: askotariko trantsizioak

India garatzen ari den potentzia da; izugarritzko demografia eta ekonomia ditu. Munduak beldurrez eta errespetuz begiratzen dio: beldurrez, demografiaren tamaina handiagatik eta hango industria eta enpresa nazionalen dinamismoagatik; errespetuz, demokrazia delako eta arazo globaletan neutral agertu delako.

Indiako ekonomia munduko bigarrena izan da hazkunde azkarrena izan dutenen artean, % 8,5ko hazkundera (izugarria) izan baitzuen 2010ean<sup>74</sup> azken lau urte hauetan mundu osoa astindu duen krisi finantzario eta ekonomikoari aurre egi-

<sup>73</sup> Sarin, M. 2010. *Democratizing India's forests through tenure and governance reforms Social Action: A Quarterly Review of Social Trends*. 2010eko apirila-ekaina. 6o. liburukia. N.2.

<sup>74</sup> Economic Advisory Council to the Prime Minister. (2011). *Economic outlook for 2011/2012*. Report submitted to the Prime Minister in July 2011.

nez. Bestalde, 1.210 milioi biztanlerekin, munduko biztanle-kopuru handieneko bigarren herrialdea da, eta 2025erako<sup>75</sup> Txina gainditzea espero da.

Hazkunde azkarra izan duen arren, Indiako gizarteak eta ekonomiak erronka handiei aurre egin behar die, oraindik, giza garapenaren eta jasangarritasunaren arloan. Giza Garapenaren 2011ko Txosteneko adierazleen arabera, garapen-ındize ertaineko herrialdeen multzoan dago India, hain zuzen ere, 134. tokian, 187 herrialdeko zerrendan; biztanleen % 53,7k pobrezia dimentsioaniztuna pairatzen dute, horietatik % 28,6k muturreko pobrezia. Bestalde, kezkarria izaten jarraitzen du goseteak eta elikagai-ziurgabetasunak<sup>76</sup>.



Iturria: CIA the World Factbook.

<sup>75</sup> National Bureau of Asian Research. (2011). *India's Demographic Outlook: Implications & Trends*. Policy Q & A. An interview with Nicholas Eberstadt.

<sup>76</sup> 2011rako ındize globaleko emaitzen arabera, India "alarma" egoeran dago. Ikus International Food Policy Research Institute. (2011). *Global Hunger Index 2011*. Bonn. Washington. Dublin.

#### 4. Taula. Indiako oinarrizko indikadoreak

Biztanleria	1.210.193,422 (2011 est.)
Giza Garapenaren Indizea-GGI (munduko sailkapena)	0,547 134/187
Per capita diru-sarrerak (2005eko USD konstantetan)	3.468
Giniren koefizientea	36,8
Bizi-itxaropena	65,4
Hezkuntza (Eskola-urteak, batez beste)	4,4
Genero Desberdintasunaren Indizea	129/187
Pobrezia dimentsioaniztuna (biztanleria guztiaren %)	53,7
Muturreko pobrezia (biztanleria guztiaren %)	28,6
Aztarna ekologikoa (per capita hektareak)	0,9

Iturria: Txosten honetarako propio eginda, Giza Garapenaren 2011ko Munduko Txosteneko datuetan oinarrituta.

Adierazle horietako batzuen irakurketak “*abiadura handian*” hazten eta garatzen ari den herrialde bat deskribatzen du, aldi berean modernitateranzko eta postmodernitateranzko trantsizio askotarikoak eta, batzuetan, eztabaidagarriak dituen herrialde batenak.

Pobrezia eta desberdintasunak bere horretan irauten dute, aldaketa sozial eta teknologiko lasterrak gizarte-ohitura tradizionalekin konbinatzen dituen paisaia sozial baten erdian. Ohitura tradizional horietako batzuk garai feudalekoak dira. Erlijioa, kasta eta ezkontza faktore erabakigarriak dira Indiako herritarren bizitzan eta nortasunean. Migrazioa (atzerrikakoa nahiz India barrukoa) eta desplazamenduak ere prozesu erabakigarriak dira pertsonen eta familien bizi-ibilbideetan.

Hazkunde ekonomiko eta demografiko lasterreko testuinguru horretan, ingurumen-arazo larriei ere egin behar die aurre Indiak: lurraren baso- eta nekazaritza-degradazioari, baliabideen agortzeari (ura, mineralak, basoak, harea, harriak, etab.), ingurumenaren degradazioari, bioaniztasun-galerari, ekosistemak lehenagoratu ezinari eta behartsuentzako mantenu-ziurtasunaren galerari<sup>77</sup>.

<sup>77</sup> Indiako ingurumen-desafioei buruzko txosten xehatua eskuratzeko, ikus Ministry of Environment & Forests. Government of India. (2009). *National State of Environment 2009*.

India herrialde sofistikatu eta hiritar gisa ageri da, baina, aldi berean, pobrea eta landatarra ere bada. Garapen bidean dagoen herrialde ahaltsua eta optimista da, baina egiturazko arazoz eta mugaz ere beteta dago. Aldaketa sozial azkarrak, hazkunde ekonomiko geldiezina eta globalizazioa askotariko trantsizioak ari zaizkie eragiten indiarrei eta haien lurraldeei. Bizkor eta modu desberdinean ari da gauzatzen aldaketa, eta giza eta ingurumen-kostu handiarekin.

#### 4.1.2. Gujarat: hazkunde handiko estatura

Indiako mendebaldeko kostan dago Gujarat; 60 milioi biztanle ditu, eta lurralde osoaren % 5,1 hartzen du. Adierazle ekonomiko askoren arabera, Indiako estatu garrantzitsuenen artean dago.

India osoko industrializatuenetarikoa da hango ekonomia, eta enpresa handienetakoak ditu. Indiako BPG-ren % 7,38 sortzen du, eta herrialdeko produktu industrialaren % 15,56, portzentaje izugarria. Dinamismo ekonomiko handi horrek “estatu eredugarri” bihurtu du<sup>78</sup>.

Narendra Modi<sup>79</sup> da Gujarateko egungo gobernadorea. Kargu horretan daraman denboran, Gujaratek biziki sustatu ditu sektore pribatuko inbertsioak. Batzuk martxan daude dagoeneko. Aipatzekoa da “*Vibrant Gujarat*” izeneko inbertitzaille-gailurren erakundea. Gailur horietan, milioika dolar inbertitzeko konpromisoak hartu dira eta “memorandum” ugari sinatu dira Eremu Ekonomiko Bereziatarako<sup>80</sup>. Inbertsio pribatuaren sustapenean eta azpiegitura publikoaren eraikuntzan zentratutako garapen ekonomikoko ereduaren aldeko apustu nabarmena egin da, hazkunde ekonomikoari laguntzeko.

Gujaratek errendimendu bikaina du energian eta bide-egituran: elektrizitate su-biranutasuna duen Indiako estatu bakarra da, liderra da eguzki-energian eta ondo mantendutako errepideak eta autobideak ditu estatu osoan. Hobekuntza

---

<sup>78</sup> Gujarati buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus Directorate of Economics and Statistics, Government of Gujarat. (2011). *Socio-Economic Review: Gujarat State 2010-2011*. Gandhinagar.

<sup>79</sup> Narendra Modi 2001az geroztik da Gujarat estatuko gobernuko lehen ministroa. Herrialdeko bigarren alderdi politiko garrantzitsueneko–Baratiya Janata Party (BJP), ideologia kontserbadorekoa eta indiar nazionalista– lider nabarmena da. Rastriya Swamsevaks Sang (RSS) erakunde abertzale, hinduista eta kontserbadoreko kide garrantzitsua ere bada. Kultura indiarra hedatzea aldarrikatzen du, indiar guztiak kultura homogeen batean biltzeko.

<sup>80</sup> Eremu Ekonomiko bereziak edo Special Economic Zones (SEZ) eremu “libreak” dira, inbertsioak erakartzeko bereziki sortuak. SEZ geografikoki mugatutako eremuak dira, eta herrialdeko gainerako lurraldeak arautzen dituenekin zerikusirik ez duen araudi ekonomikoak arautzen ditu. Zergetatik salbuetsitako eremu gisa ezagutzen dira, baina horiek baino balibide handiagoak dituzte, hasiera batean bokazio esportatzailea duten ondasun eta zerbitzuen fabrikatzaileentzat sortutakoak. Informazio gehiago lortzeko: ICEX-en ohar sektorialak.

garrantzitsu horiek egon diren arren, oraindik ere pobreziarik eta desberdintasunik ere badago, erlijio-komunitateen artean gero eta zatiketa handiagoa ikusten da, eta zenbait ingurumen-adierazlek eta gizarte- eta ingurumen-arloetako gatazkek okerrera egin dutel.

Garapen ekonomiko eta sozialaren arloan, Gujaratek kontraesan handiak ditu. Batetik, per capita errenta handia du, eta pobrezia-tasa nahiko baxua (biztanleen % 16,8ri eragiten die). Bestetik, Indiako giza garapenari buruzko azken txostenaren arabera, per capita errentari dagokionez okerrago dauden beste estatu batzuk baino egoera kaskarragoan dago, haiek (Keralak, esaterako) giza garapenaren indize hobeak dituztelako<sup>81</sup>.

Bizikidetzaren arloan, giroak okerrera egin du, Ahmedabad hiriko “ghettoen” hazkundeagatik eta, bereziki, hiriko zenbait auzotan eta jarduera-sektore jakin batzuetan musulmanak pilatzeagatik. Oraindik ere irauten dute komunitate erlijiosoen arteko tentsioek (batez ere hinduen eta musulmanen artekoek) eta 2002ko komunitateen arteko zorigaitzoko indarkeria-pasarteen orotzapenek<sup>82</sup>.

Ingurumenaren eta baliabide naturalen kudeaketaren arloan, gero eta lur gehiago ari da eskuratzen eta erosten. Baso-galera ere etengabekoa da Gujarateko zenbait eskualdetan, eta horren eragina begien bistakoa da: higadura. Lurraldearen zati batzuen eta zenbait habitaten narriadura ekologikoa ari da gertatzen, eta horrek eragin nabarmenak ditu bizibide tradizionalei eusteko habitat horien mende dauden milaka biztanleren bizitzan.

#### 4.1.3. *Trantsizioko tribuak: Gujarateko adivasiak*

Indiako jatorrizko biztanleak dira adivasiak. Indiako biztanle guztien % 8 dira, gutxi gorabehera, eta aitorten eta babes konstituzional berezia dute. Gujaraten, portzentaje hori ia % 15era igotzen da<sup>83</sup>, eta zenbait barrutitan portzentaje dezentez

---

<sup>81</sup> Ikus Planning Commission. Government of India. *Indian Human Development Report 2011: Towards Social Inclusion*, New Delhi.

<sup>82</sup> 2002ko otsailean, talde erlijiosoen arteko indarkeria-pasarte gogorrenetako bat piztu zen Gujaraten, eta ondorio hauek ekarri zituen: 790 musulman eta 254 hindu hil ziren; 233 lagun desagertu ziren; emakumeen aurkako hainbat eta hainbat ankerkeria egin ziren, eta, gutxi gorabehera, 61.000 musulmanek eta 10.000 hinduk egin behar izan zuten ihes. Pasarte horren eta Indiako erlijio-testuinguruaren interpretazioa egiteko, ikus Nussbaum, M. (2009). *India: demokrazia eta indarkeria erlijiosoa*. Bartzelona: Paidós. Indarkeria-mota horri “indarkeria komunala” edo “komunalismoa” deitzen zaio Indian.

<sup>83</sup> Gujarateko Gobernuak argitaratu dituen azken datu ofizialen arabera, hango biztanle adivasiak guztien % 14,76 dira. Portzentajea % 8,23ra murrizten da India osoa kontuan hartuz gero.

handiagoak ere badaude; esaterako, landa-lana egiteko bisitatu direnetan: Sabar Khanta, Dangs edo Rajpipla barrutietan, biztanleen % 70-90 ere badira adivasiak.

India bizitzen ari den trantsizio askotarikoetan eta sakonetan murgilduta daude Gujarateko adivasiak. Aldaketa sozialei aurre egin beharra daukate, ordea, eta modernitaterantz eta postmodernitaterantz<sup>84</sup> eboluzionatzen ari dira, ziurtasunik gabeko norabidean eta egiturazko desabantaila-posiziotik abiatuta.

“Trantsizioko tributzat”<sup>85</sup> hartzen dituzte adivasiak, eta administrazioaren, legeen, erlijioaren, hezkuntzaren, kastaren, politikaren eta garapenaren<sup>86</sup> bitartez Indiako korrante nazionaletara nola bildu aztertzen ari dira.

Gujarateko adivasiaren gaur egungo prozesu kezkarrienetariko eta esanguratsuenetariko migrazioa da. Hirian lan egiteko edo nekazaritzako langile gisa jarduteko aldi baterako migrazioa da, kasu batzuetan; beste batzuetan, migrazio iraunkorra edo erdi iraunkorra, edo behartutako desplazamendua, landatik hirirako mugimendua edo hiritik landara itzultzekoa; gizonezkoena soilik, edo emakumeena, edo familia osoarena, ikasleena... Globalizazio-prozesua bizkortzeak munduko biztanle eta herri pobreen artean martxan jarri duen migrazio-esperientzia askotariko, dinamiko eta konplexua ari dira bizitzen Gujarateko adivasiak<sup>87</sup>. Migrazio-esperientzia horrek zenbait arazo sortzen dizkie herri indigenei eta nekazariei, euren lurrarekin eta ingurune naturalarekin estuki lotutako nortasuna izan baitute iraganean, baita orain ere. Nolanahi dela ere, kontu horien inguruan berriki egindako azterlanek erakutsi dute nolabaiteko “*atxiki-mendu-erresistentzia*” dagoela oraindik: lurrarekiko, tribuarekiko eta herrixkarekiko loturek iraun egiten dute, gertatzen ari diren migrazio-esperientzietatik eta asimilazio-prozesuetatik (edo integraziokoetatik) landa.

---

<sup>84</sup> Eboluzio-prozesu konplexu horren interpretazioa egiteko, ikus, adibidez, Corral, J.A. (2008). *Los adivasis de Gujerat. Cultura aborígen y su actualidad en el siglo XXI*. Bilbo: Ediciones Mensajero.

<sup>85</sup> Lobo, L. (2010) *Changing Character of Forests and Tribal Livelihood in Eastern Gujarat (1947-2007)*. Vadora: Centre for Culture & Development.

<sup>86</sup> Ikusi Pinto, S. (1999). Land Alienation and Consciousness among the Vasavas of South Gujerat. Surat: South Gujerat University, Social Studies Center.

<sup>87</sup> Landa-ekonomia, -antropologia eta -soziologiako, ekonomia politikoko eta nekazarien azterlanetako ikertzaileak antzeko prozesuak ari dira aztertzen eta deskribatzen. Ikus, adibidez, Van der Ploeg, J.D. 2010. *Nekazari berriak. Nekazariak eta janariaren inperioak*. Bartzelona: Icaria Editorial. Edo, bestela, H. AkramLodhi eta C. Kay (argit.). 2008. *Political Economy, Rural Transformation and the Agrarian Question: Peasants and Globalization*. London and New York: Routledge.

Gujarateko adivasien kasuan, nabarmena da asimilazio-prozesu horrek (“sankritizazio edo mainstreaming” ere deitzen zaio) hartu duen indarra, baina hori bezain nabarmena da basoetan edo baso-lurraldean bizi diren adivasi batzuek landa- edo baso-izaerari eutsi izana. Adivasi horien elikadura, bestalde, neurri handiagoan edo txikiagoan, nekazaritza-jardueren, abeltzaintza txikiaren eta fruitu-bilketaren baitan dago (eurek kontsumitzeko edo, diru-sarrera txiki batzuk izatearren, saltzeko biltzen dituzte). Jarduera horiek basoetara eta baso-lurretara sartzeko aukerarekin lotuta eta horren mende daude hein handi batean.

Azkenik, argitu dezagun Gujaraten (Indiako beste hainbat tokitan bezala) basoa eta baso-lurraldea ez direla kontzeptu berdinak. Bigarren kategoria hori batez ere administratiboa eta legezkoa da, Baso Eskubideen Legearen problematikarekin oso lotutakoa, eta oso ohikoa da basotsua eta arbolatsua ere ez den lurrak “baso-lurralde” (*forest land*) izaera izatea.

Azkenik, adivasien bizitzako beste elementu aipagarri bat baso-lururen jabetzaren eta baliabideak eskura izatearen inguruko herstura-, eztabaida- eta sentsibilitate-maila altua da. “*Jungle, Jamin eta Jal*” (basoa, lurra, ura) elementuei buruzko diskurtsoa behin eta berriz azaltzen da adivasien aldarrikapenen mende bat baino gehiagoko historian. Gujarateko eta Indiako beste estatu batzuetako adivasien kultura politikoaren parte garrantzitsu bat elementu horiek eratu izan dute.

Laburbilduta, badirudi Gujarateko adivasien iragana, oraina eta geroa oso lotuta daudela basoari, lurraekin eta baliabide naturalekin, baita prozesu garaikideak eraikitzen dituzten tokiko eta munduko indar dinamiko eta ahaltsuekin banaka eta kolektiboki elkarreragiteko gaitasunarekin ere. Baliteke globalizazioak eta garapen-eredu nagusiak<sup>88</sup> adivasiek gaur egun boterearekin duten harremanaren baldintzak okertu izana, baina badira (iraganean ere izan diren bezala) gizarte-ekintzarako eta agentziarako bide batzuk, xurgapenaren, negoziazioaren, erresistentziaren, alternatiba-eraikuntzaren edo beste edozein aukeraren bitartez, lurraldea eta baliabide naturalak eskura izateko eta erabiltzeko eskubideen defentsaren inguruan antolatuta.

---

<sup>88</sup> Zentral hidroelektrikoaren edo beste proiektu handi batzuen eraikuntzagatik Gujaraten lurrak eta habitatako galdu dituzten 2,5 milioi herritarren % 80 gizarteko maila apalenetakoak (adivasiak, tartean) hala adierazten du. Proiektu horien inpaktuari buruzko azterlan xehatua nahi izanez gero, ikus Lobo, L. (2009). *Land Acquisition, Displacement and Resettlement in Gujarat 1947-2004*. New Delhi: Sage Publications.



#### 4. Koadroa. Iparraldeko eta hegoaldeko tribuak

Gujarat iparraldeko tribuen arazo nagusien artean daude hauek: alfabetatze- eta enplegu-indize baxua, bizibide bila joaten den migrazio-maila altua, basoak eta basoetako produktuak eskura ez izatea eta zelula faltziformeen anemia-tasa altuak.

Gujarat hegoaldeko tribuek (Bharuch, Narmada, Surat, Tapi, Valsad, Navsari eta Dang barrutietakoek) alfabetatze-indize altuagoa dute, baina langabezia, bizibide bila joaten den migrazio-maila altua, zelula faltziformeen anemiaren ugartasuna eta basoak eta basoko produktuak eskura ez izatea arazo iraunkorrak dira han ere.

Gujarat hegoaldeko adivasiek maiz jasaten dituzte basoko funtzionarioen gehiegikeriak eta, garapen-proiektuak direla eta, pertsona asko lekualdatu dira, besteak beste, Tapi eta Narmadako dike handien eraikuntzagatik. Lurrak galtzea, basoetarako eta basoko produktu txikietarako sarbidea eta haien kontrola galtzea ere eragin du horrek. Hori dela eta, antolaketarik gabeko sektoreetan lan egiten duen prestakuntzarik gabeko eskulan bihurtu dira tribuak. Horregatik, okerrera egin dute haien bizi-baldintzek, eta janari-ziurgabetasunaren mamua azaldu da.

Adivasien artean, ugaldu egin da lurren besterentzea Gujarateko ipar-ekialdeko zerrandan. Ofizialki, tribuen % 7-8ari kendu dizkiete lurrak; estatistika ez-ofizialek diote, ordea, portzentaje hori % 15koa dela.

Iturria: BSCk eskainitako informazioarekin geuk egina.

## 4.2. INDIAKO BASO-ESKUBIDEEI BURUZKO LEGEA (BEL)

### 4.2.1. Historia eta edukiak

2006ko BELa Indiako Parlamentuak 2006ko abenduaren 16an onartutako legea da. Lur horietan (baso-lur gisa sailkatutakoak) bizitzeko eta basoa eta basoko baliabideak erabiltzeko eta babesteko eskubideak aitortzen dizkie basoetako biztanleei. Lege eztabaidatsua izan zen<sup>89</sup> eta, horregatik, urtebete baino zerbait gehiago behar izan zen jakinarazteko eta bere erabateko arau-garapenerako behar diren arauak ateratzeko (2008ko urtarrilaren 1ean).

<sup>89</sup> Legea onartzeko prozesuaren eta haren garapenerako arauak jakinarazteko prozesuaren artean, gobernuari presio handiak egin zizkieten Indiako basoetan eta baso-lurraldean interes handiak dituzten eragile sozialek eta ekonomikoek.

Hiru urte geroago, Garapen Sozialerako Kontseiluak berriki egindako txosten baten arabera<sup>90</sup>, BELen ezarpena izugarri ahulduta dago “*axolagabekeriaren eta sabotajearen arteko konbinazio bat dela medio*”. Legea ezartzeko gaintitu beharreko oztopo-multzo korapilatsuaren (interes ekonomikoak eta mentalitateak barne) adierazle garrantzitsua da hori.

Funtsean, adivasiek kolonialismoaren garaitik jasan duten injustizia historikoa konpondu nahi du BELeK, hau da, basoak eta basoko baliabideak eskura izateko antzinako eskubideak “kendu” eta euren lurraldean kriminal bihurtu zituztenetik jasandako injustizia. Bestalde, BELeK aukera ematen du tribuek basoko baliabideak modu demokratikoagoan kudeatzeko, hainbat eskubide eskaintzen dituelako; esaterako, baso-komunitateetako baliabideak babestu, kontserbatu eta kudeatzeko eskubidea, biodibertsitate-eskubidea edo komunitatearen jabetza intelektualerako eskubidea, legeak garatzen dituenak horiek ere.

Gauzak horrela, BELen abiapuntua basoetan eta baso-lurretan bizi diren baina historian zehar “inbaditzailetzat” hartu dituzten milioika lagunen egoera erregulartzatzea da.

Penalizazio horrek sufrimendu eta ezintasun handiak eragin ditu. Izan ere, penalizazio hori dela eta, jazarpen, utzarazte, tortura, zortze, estortsio eta sexu-indarkeriako kasu ugari gertatu dira. Indiako baso-legeriako bi lege garrantzitsuenak, 1927ko Indiako Baso Legea (Indian Forest Act) eta 1972ko Basa bizitza Babesteko Legea (Wildlife Protection Act) izan dira adivasiak zigortzeko legezko tresnak. Adibide gisa, 3.000.000 familiari gosea eta pobrezia ekarri zien azken kanporatze-aginduak (2002), edo Kasta eta Tribu Sailkatuentzako Komisarioaren (Commissioner for Scheduled Castes and Scheduled Tribes) 29. txostenean jasotako honako baieztapen hau: “*Tribu-eremuetan komunitate guztiak zigortu izana da gure herrialdearen tradizio liberalaren orbanik ilunena*”.

Indiako Basoei buruzko Legea (1927) ez zuten kontserbazio-xedeekin sustatu, baso-ustiapenerako asmo argiarekin baizik. Britainiarren zur-premia asetzeko egin zuten legea, eta ohiturazko eskubideak eta basoetako kudeaketa-sistemak ezabatzea zuen xede, basoak estatuaren jabetza deklaratura<sup>91</sup> Legearen arabera,

---

<sup>90</sup> Council for Social Development. (2010). *Summary Report on the Implementation of the Forest Rights Act*.

<sup>91</sup> Basoen eta lurraldeen ohiturazko eskubide horietako batzuk eta kudeaketa-sistema tradizional batzuk ahulduta zeuden britainiarrak iritsi zirenean.

“baso” bat deklaratu zen unean baso-funtzionario baten ikerketa eta egiazta-pena soilik behar zen, eta funtzionario hark “erabakiko zuen” zer lur deklaratu “baso-lur”, eta herritarrek zer baso-eskubide izango zituzten eremu hartan. Sistema horrek ahaltsu bihurtu zituen baso-funtzionarioak, milioika herritar eta milaka komunitateren eskubideei buruz erabakitze eskumena baitzuten. Antzeko ereduak garatu zen 1972an Basa bizitza Babesteko Legearekin<sup>92</sup> eta antzeko ondorioak izan zituen.

Garapen Sozialeko Kontseiluaren arabera, 1927ko Baso Legearen helburua basoak departamentu kolonial baten jabetza bihurtzea izan zen. Ekosistema oso bat erakunde bakar baten (baso-departamentua) jabetza bihurtzen zen. Iturri beraren arabera, Indiako artzaintza-lurren % 90 baino gehiago galduz joan dira eta Baso Departamentuaren merkataritza-sail bihurtu (horietako asko, labore bakarrekoak), milioika baso-hektarea suntsitu dituzte meategiek, dikeek eta industria-proiektuek, eta ohiturazko lege eta jardunbideetan oinarritutako sistema komunitario asko betiko galdu dira.

Legeak hiru eskubide-mota aitortzen ditu: **lurraren gaineko eskubideak** (gehienez lau hektarea familiako, 2005eko abenduaren 13a baino lehenagotik lantzen aritu badira eta oraindik ere lantzen ari badira), **erabilera-eskubideak** (basoko produktu txikiak erabiltzeko edota biltzeko eskubidea, eta larre-lurretarako eta ur-masetarako sarbidea) eta **basoak babestu eta kudeatzeko eskubidea** (basoarekin eta baso bizitzarekin zerikusia duten erabakietan parte hartzeko eskubidea itzultzen dio komunitateari). Lege horren arabera, aitortutako lurra bi ezkontideen izenean egon behar du, eta ez da besterengarria. Hona hemen Legeak aitortzen dituen 12 eskubide-moten zerrendadun taula.

---

<sup>92</sup> Bai 1927ko Baso Legeak bai Basa bizitzari buruzko 1972ko Legeak eragin handiak izan dituzte milioika lagunen (horietako asko, adivasiak) eguneroko bizitzan. Bi legeei “erantzun egin diete” ekintzaile-taldeek eta giza eskubideen defendatzaileek. Erantzun horiek dira adivasiek Indiako estatuari egindako aldarrikapen historikoen ardatz nagusia.

## 5. Koadroa. 2006ko BEL-ek aitortutako eskubideen zerrenda

1. Banaka edo taldean, baso-lurra bizilekutarako edo mantenu-laboretarako erabiltzeko eta han bizitzeko eskubidea.
2. Eskubide komunitarioak; esaterako, nistar deritzenak<sup>93</sup>.
3. Jabetza- eta sarbide-eskubideak, tradizioz herrien mugen barruan edo kanpoan bildu izan diren basoko produktu txikiak bildu, erabili eta baliatzeko.
4. Erabilera edo eskubideen gaineko beste eskubide batzuk; esaterako, ur-masetako arrantzaren edo beste produktu batzuen gainekoak, larre-lurren (egonkorrak edo transhumanteak) gainekoak, eta sasoiko baliabide tradizioaletarako sarbidea nomada- edo artzain-komunitateentzako.
5. Habitata okupatzeko edo han bizitzeko eskubideak tribu-talde primitiboentzako eta nekazaritza aurreko komunitateentzako.
6. Edozein nomenklaturatako lurren gaineko eskubideak, auziak ebazten diren edozein estatutan.
7. Tokiko agintari batek edo estatuko gobernu batek baso-lurren gainean emandako gozamen-eskubideak edo emakidak bihurtzeko eskubideak.
8. Basoko herri guztien eta aspalditik populazioa duten baina egiaztatu gabe dauden herrien asentamendu- eta konbertsio-eskubideak, herri gisa erregistratuta edo jakinarazita egon nahiz ez.
9. Basoko komunitateen baliabideak, tradizioz erabilera jasangarrirako babestuta eta kontserbatuta egon direnak, babesteko, sortzeko, kontserbatzeko edo kudeatzeko eskubidea.
10. Estatuko edozein lege, Barrutiko edozein Kontseilu Autonomoren edo eskualdeko edozein Kontseilu Autonomoren lege betez aitortutako eskubideak edo dagokien tribuen tradiziozko edo ohiturazko legearen arabera eskubidetzat onartutako eskubideak.
11. Biodibertsitaterako sarbide-eskubidea eta jabetza intelektualerako eta biodibertsitatearekin eta kultura-aniztasunarekin lotutako ezagutza tradizionalerako eskubidea.
12. Tradiziozko beste edozein eskubide, ehizarako, harrapaketarako edo erauzketarako tradiziozko eskubidea izan ezik.

Iturria: Txosten honetarako propio eginda, CSDk eginiko txostenean oinarrituta.

<sup>93</sup> Nistar deritzen eskubideak: basoak etxeko erabilerarako aprobetxatzekoak.

Legeak, bestalde, hiru urratseko prozedura (argia eta gardena) xedatzen du eskubideak aitortzeko. Lehenik eta behin, Gram Sabhák (herriko heldu guztien batzarra) eskaera egiaztatzea gomendatzen du, Herriko Baso Eskubideen Batzordeak (Village Forest Rights Committee) lagunduta. Batzordea herriko 10-15 lagun arteko talde batek osatzen du, eta eskaerak jaso eta egiaztatzeaz arduratzen da. Gram Sabhák gomendio bat egiten duen bakoitzean, hurrengo mailara igarotzen da: talukako (edo azpibarrutiko) batzordera. Azkenik, barrutiko egiaztapena eta azterketa datoz, han hartzen baitira azken erabakiak. Bi batzordeek (talukakoak eta barrutikoak) seina kide dituzte: hiru, hautatuak; beste hiru, gobernuko funtzionarioak.

Laburbilduta, 2006ko BEL legearen xedea hau da: injustizia historiko bat deuseztatzea (hein batean, behintzat) eta tribuei eta basoetako ohiko beste biztanle batzuei basoen kudeaketa hobea egiten hasten laguntzea<sup>94</sup>. Norbanakoetatik edo familietatik haratago doazen eskubideak ematen ditu, eskubide kolektiboak ere aitortzen dituelako, eta hiru etapako prozesu argia ezartzen du aplikatzeko.

#### 4.2.2. Legearen balorazioa

BELaren onespena eragin zuten arrazoiei eta testuinguru politikoari dagokienez, adivasien mobilizazioa eta presioa (batetik) eta ekintzaile sozialen talde saiatu baten lana bestetik) aipatzen dira faktore politiko eta pertsonal guztien artean<sup>95</sup>.

Bestalde, BELi buruzko literaturan, bi iritzi-multzo handi detektatu dira legearen potentzialtasuna dela eta. Batetik, egindako injustizia eta kalteen maila eta sakontasuna (“genozidio” eta “ekozidio” baten kategoria dutela uste da) konpontzeko legea nahikoa ez dela eta tribuen okupazioa erregularizatzen denean estatua- ren okupazioa eta jabetza pribatua<sup>96</sup> finkatzeko eta adivasiak basotik urruntzeko arriskua dagoela diotenak daude.

Bestetik, beste iritzi batzuen arabera, balio tradizionaletan oinarritutako kultura berdintzaile berri bat eraikiko duten alternatibak sortzeko aukera ematen du

---

<sup>94</sup> BELek baso eta baliabideetarako sarbide- eta erabilera-eskubideak aitortzen dizkie adivasiei, baita izaera eta babes konstituzional hori ez duten basoetako beste biztanle tradizional batzuei ere. “Forest Rights Act” edo Baso-eskubideen Legea deitzen zaio, baita “Tribal Land Act” edo Tribu-lurraldearen legea ere, baina izen ofiziala “The Scheduled Tribes and Other Traditional Forest Dwellers Act” du.

<sup>95</sup> BELa onartzeko, gaketatzen jo ziren Indiako lehen ministroak legegintzako proiektu horri emandako konpromisoa eta babes pertsonala.

<sup>96</sup> Savyasaachi. (2010). FRA 2006: *In who's interest?* Social Action: A Quarterly Review of Social Trends. Volumen 60. N.2.

legeak, baina baliabideen kudeaketa-sistema modernizatu egin behar omen du, hau da, adivasiak mantenua eta bizibideak babesteko tradizioa modernizatu egin behar du legeak.

Azkenik, badira jarrera sutsuagoak ere. BELa Indiako basoak demokratizatzeko eta, ondorioz, adivasiak eta beste tribu batzuk baso horien kudeaketako protagonista izateko eta ingurumenaren kontserbazioa mantenuarekin eta janari-bermearekin lotzeko aukera emango luke legeak, jarrera horien aldekoen ustez. Ikertzaile horien iritziz, BELeK basoen eta haien mugen zehaztapenaren eta eraikuntzaren berrikuspen sakon berri baterako hazia erein du, eta aldaketa bat eragin du tokiko komunitateen eta baso-burokraziaren arteko botere-orekan.

### 4.3. EZARPENAREN DESAFIOA

#### 4.3.1. Ezarpenerako arazo nagusiak

Ezarpena da, landa-laneko elkarrizketatu eta parte-hartzaile gehienen ustez, lehentasun nagusia. Izan ere, lurraren gaineko banakako eskubide-eskaeren oso kopuru txikia onartu da bisitatutako hiru barrutietan, eta ia batere ez eskubide komunitarioekin lotua.

Atzera botatako, erabaki gabe utzitako eta itzultitako eskaeren portzentajea handia da, eta landa-lana egin zenean bazirudien nolabaiteko nahasmena zegoela atzera botatako eta itzultitako inprimakien arteko aldeak zirela eta.

Onartutako eskaeren eta neurri baten edo behin betiko onarpenaren zain dauden eskaeren arteko aldeari dagokionez ere nolabaiteko nahasmena egon zen, baita lurraren edukitza eta lurraren jabetza ematen duten ziurtagirien artean ere.

Ezarpen-prozesuak, oro har, oztopo txiki asko izan ditu, eta aurrera egitea galazti egin diote. Hona hemen hiru barrutietako titulazio-eskaeren lagin bat, non hainbat GKEren jardura eta BELeKiko atxikipen aktiboa ikusten den, 2011ko ekainean onartuta zeudenen portzentajeekin batera.

Atzera botatako eskariak (asko), apelazioak eta erakundeen presioa (eta, agian, hauteskunde hurbiltasuna) ikusirik, Gujarateko gobernuak bigarren aukera bat eman die atzera botatakoek<sup>97</sup>.

---

<sup>97</sup> Bigarren aukera hori 2011ko udaberrian jarri zen martxan, onartutako eskaera-kopurua nabarmen txikia izan zela ikusi ondoren.

### 5. Taula. Onartuak eta atzera botatako edo itzuliko eskaerak

	Sabar Khanta	Rajpipla	Dangs
BELen eskaerak	19.629	Daturik gabe	7.320
Onartuak	3.125	Daturik gabe	2.431
Atzera botatakoak/itzuliak	9.018	Daturik gabe	4.524
Onartutakoen % (2011ko ekaina)	16	Daturik gabe	33

Iturria: Txosten honetarako propio eginda, landa-laneko elkarriketetan oinarrituta. 2011ko ekaina.

### 6. Koadroa. Gujarateko herrixka baten kasua

Herrixka oso txikia da, eta herritarrak oso elkartuta daude. 147 eskaeratik, bi baka-  
 rrik onartu ziren. Gainerakoak atzera bota zituzten, satellite bidezko irudien bitartez  
 lortutako informazioaren arabera aplikagarritasunik ez omen zuten eta. Informazio  
 horren arabera, eskaeretan aldarrikatzen zuten baso-lurrean ez zegoen ez labore-  
 rik, ez biztanlerik. Tokiko biztanleek argi eta garbi adierazten dute teknologia hori  
 erabiltzearen kontra daudela eta ez dutela onartzen, kaltegarria zaielako eta egia  
 erakusten ez duelako. Apelazioak aurkezten jarraitzen dute, oraindik ere. Ez zitzaien  
 eman prestakuntza berezirik legea ezartzeko, eta ez dute jaso gizarte zibileko tal-  
 deen edo erakunde espezializatuen berariazko laguntzarik. Interes handia erakusten  
 dute, baina kontzientziario eskasa legeak kolektiboek dakartzkien ondorioei buruz.  
 Nabarmena da ezarpenaren eta prozeduren gainean dagoen nahasmena. Eskubide  
 komunitarioen erreklamazio bakarra egin zuten, eta ez zieten onartu. Banakako titu-  
 lartasunak lortzen ez badituzte ere, lur horretan geratuko dira. Batzuk beste lursail  
 batzuk lantzen aritu dira, lur gehiago nahi dituzte eta. Beraz, iruzurrik egiten ari dela  
 ere onartu dute. Zenbaiten ustetan, herrixketako biztanleek eurek eragingo dute de-  
 forestazioa, jasaten duten pobreziatatik eta biztanleriaren hazkundeagatik.

Iturria: Txosten honetarako propio eginda, landa-lanean oinarrituta. 2011ko ekaina.

Antzekoa da egoera Indiako gainerako eskualdeetan ere. Gizarte Garapenerako  
 Kontseiluak aurkeztutako txosten baten arabera, *“lege horren funtsezko ezauga-  
 rri guztiak urratu egin dira”* eta berehalako neurriak behar dira BELen ezarpena-  
 ren panorama iluna aldatzeko.

*“Berrikuspen-lanetan aritu diren gehienek adierazi dute lege honen ezaugarri nagusiei  
 kalte egin dietela ezarpen-prozesuko axolagabekeriak eta sabotajeak. Egungo egoeran,*

*ukatu egiten zaizkie eskubideak basoko tribu gehienei eta beste biztanle tradizional batzuei, eta ez da ari lortzen legeriaren helburua. Berehalako neurriak hartzen ez bada, basoko tribuen eta biztanle tradizionalen aurkako injustizia historikoa konpondu beharrean, legeak aurkako efektua izango du, ahulago bihurtuko baititu tribu eta biztanle horiek kanporatze-aginduekiko utzaraztearekiko eta euren basorako sarbide tradizionalen debekuarekiko. Lekukotasunek argi utzi dute horren arrazoi bakarra ez dela hutsegite burokratiko bat; diotenez, bai gobernu zentralak, bai estatukoak Legearen izaera eta letra zuzenean urratzen dituzten politika aktiboak ezarri dituzte”.*

(Gizarte Garapenerako Kontseilua, 2011).

Ezarpen-faseko arazo nagusiak identifikatzen ditu txostenak:

1. Ez da errespetatzen Gram Sabhären (Herriko Batzarra) funtzioa.
2. Baso-departamentuak nabarmen esku hartzen du.
3. Eskubide komunitarioei buruzko ezagutzarik eza, eta Legea lurraren gaineko tituluak banatzeko eskema balitz bezala tratatzea.
4. Ez da informazio argirik ematen, eta ez dira kontzientziazioa eta prestakuntza sustatzen
5. Ez dira aintzat hartzen “basoko beste biztanle tradizionalen” erreklamazioak.

Landa-lanean, lehenengo lau arazoak identifikatzea lortu da, bisitatutako hiru barrutietan. Horiei, beste bi gehitu dakizkieke: sateliteko irudien erabilera zabala, Baso Eskubideen Batzordeek eta Gram Sabhák zilegitzat eta bidezkoztat jotako eskaerak atzera botatzea justifikatzeko, eta emakumeen parte-hartze txikia eta genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna ezarpen-prozesuan. Sateliteko irudiak kezka-iturria dira adivasientzat, eta mesfidantza eragin dute teknologia horren zilegitasunarekiko eta haren erabiltzaile nagusiarekiko (Baso Departamentua). Gehienen iritziz, teknologia ez da baliagarria adivasien kausarako. Horrez gain, legearen ezarpenaren saboteatzaile nagusiaren eskuetan (baso-departamentua) dagoen “arma” berrietako bat dela uste dute. Egindako elkarrizketa eta taillerretatik ondorioztatzen da ez dutela eratu teknologia horren gaineko prestakuntzarik eta trebatze-saiorik ez adivasiek, ez legearen ezarpenarekin lotutako giza eskubideen aldeko ekintzaileek.

Bestalde, desafio handia da, oraindik ere, genero-zeharkakotasunarekiko eta emakumeen partaidetzarekiko irizpide nagusia. Landa-lana egin zenean, harreman gutxi izan zen emakume adivasiekin, eta generoari eta basoari buruzko kontakizun asko “kanpoko jendeak” emanak dira; esaterako, senarrek eta monjek. Gaiari buruzko literatura gutxi dago. Emakumeen ahotsa ez da entzun tailerretan



(“umeekin lanpetuta zebiltzan”). Emakumeek herrian parte-hartze handiagoa dutela (batzuetan, baita beste gai batzuetan baino handiagoa ere) erakusten duten adierazleak badiren arren, lurraren eta jabetzaren gaia “gizonezkoen kontutzat” daukate familiek, edo, hobeto esanda, “senarren egitekotzat”. Hori dela eta, emakumeek ez dute parterik hartzen prozesuan.

#### 4.3.2. Aurkitutako oztopoak: interes ekonomikoak eta mentalitateak

Bat datoz, erabat, oinarriak eta ekintzaileak: interes handiak daude Gujaraten 2006ko BEL ez ezartzeko. Zehatzago esanda, argi eta garbi adierazten da Baso Departamentuak basoen kudeaketan izan duen (eta oraindik duen) jokaera eztabaidatsua, tribuen kausaren alde edo basoen benetako kontserbazioaren alde inolako begirunerik edo ez baitu izan. Gehienen ustez, baso-departamentuaren xede nagusiak zuraren -ustiapena eta errendimendu ekonomikoa izan dira.

Bat dator uste hori borroka horri buruzko ikuspegi akademikoarekin: ikertzaile gehienak bat datoz adivasiekin eta ekintzaileekin, eta uste dute Indiako baso eta habitaten suntsipenean erantzukizun handiena Baso Departamentuak izan zuela. “Basoen kudeaketa zientifikoaren” izenean, “hondamendiak” deskribatzen dituzte ikertzaileek, eta Baso Departamentua “baso-suntsipeneko korporazio” gisa ere sailkatu du zenbaitek<sup>98</sup>.

Izan ere, BELen aurkako interesen azterketa zorrotzago batek are interes handiagoak plazara litzake, eta arazoaren erdigunean dagoen aliantza neuralgiko hirukoitz bat erakutsi (industria, politikariak eta burokratak). Mafiaren jokabideen antzekoak deskribatzen dituzte ikertzaileek, eta baso-polizia da aliantzaren ardatza, hark egiten baitu “lan zikina” (indarkeria).

Ez dirudi, bestalde, Baso Departamentuaren esku-hartzearekin gauzak hobetu direnik, eta ez da aipamenik jaso jarrerak adosteko aukerari buruz. Baso Departamentuaren jarrera liskartia da, argi eta garbi: aurrerapena galarazten duen horma erraldoia da. Badirudi, nolabait, galdera “zero irabaziko” jokoaren barruan txertatzen dela, “interes-talka” klasikoan: “Guk irabazi, eta zuek galdu, edo alderantziz; nire interesen alde diharduenak, zuenen aurka dihardu”.

BELek zer interes dituen aurka galdetuta, ez dugu erantzun argirik eta zuzenik jaso. Jabetza erregistratzeko eskatzen den eta Baso Departamentuak kudeatzen duen lur-portzentajeari buruz galdetuta, ezin izan da datu argirik eta zehatzik lortu, ez

<sup>98</sup> Ver Gaur, M. (2008). *The Forest Right of Tribals*. New Delhi: Alfa Publications.

adivasiaren eta ekintzaileen aldetik, ez intelektualenetik. Erreklamatzeko den lurra, guztira, gutxi dela uste da (agian, % 2 India osoa, ekintzaile batek zioenez), baina landa-lana egindako hiru barrutitan portzentaje handiagoak maneiatzen dira (% 40 eta % 60 artekoak). Horrez gain, lurra dituen balioen eta aberastasun potentzialen kontua ere hor dago, eta habitat horren inguruan sortzen ari diren interes ekonomikoak ere bai. Dagoen barrutian, adibidez, adivasiak mehatxutzat jotzen dituzte turismoa, ekoturismoa eta dikeen eraikuntza, eta jakitun dira BEL ezartzeko ahaleginaren aurkako interes ekonomiko eta enpresarial handiak daudela.

Azkenik, mentalitateei buruzko iruzkin labur bat ere egin behar da. Hori izan da ikerketaren alderdi adierazgarrienetariko bat; izan ere, auzi honetako bi eragile garrantzitsuenetarikoekin lotzen da, lur-eremu bera “partekatzen duten” edo lur-eremu beragatik “lehiatzen diren” bi eragileekin alegia. Biek –tribuak eta Baso Departamentuak– dihardute basoetan. Mentalitateak denboraren poderioz erakitzen dira, eta historiaren, aurreiritzien, ideologiaren eta esperientzien eragina jasaten dute. Horrenbestez, norberaren interesen ebaluazio arrazionala ez da auzi honetan kontuan hartu beharreko elementu bakarra. Adivasiak oso minduta daude, eta aise identifikatzen dute erruduna: Baso Departamentua, zeinari “gubernua” ere deitzen dioten, edo “gure aurka” altxatzen eta “gure interes eta kezkekiko itsu dagoen” boteretzat ere badaukaten. Bestalde, egin dugun ikerketa-motak ez digu aukerarik ematen Baso Departamentuari buruz gauza handirik esateko, ezin izan delako hitz egin haren ordezkarietako bakar batekin ere. Hala ere, adierazle batek eman diezazkiguke aztarna batzuk Baso Departamentuaren BELekiko erabateko axolagabekeriari buruz: Baso Departamentuaren eta Gujarateko gobernuaren ingurumen-webgunea begiratu gero, ez BELi ez adivasiei buruzko aipamen bakar bat ere ez dugu aurkituko. Web-orri hori ikusita<sup>99</sup> badirudi adivasiak ez dutela baso-eskubiderik eta basoetan ez dela inor bizi. Horra hango mentalitatearen adierazle bat. Gauza bera gertatzen da India osoan.

### 4.3.3. Ahultasun isilak

Oztopo gehienak “kanpokoak” direla jotzen da, eta nahiko erraz identifikatu dira landa-lanean. Bestalde, beste oztopo-mota batzuk ere –agian, ez hain begi-bistakoak, edo leunagoak– badaudela planteatuta, elkarrizketatu eta parte-hartzaile askok oinarriko adivasiaren (*grassroots* deritzenak) gizarte-ekintzaren barne-ahultasunekin zerikusia duten gaiei eta giza eskubideen ekintzaile-taldeek eskainitako laguntzari buruz hausnartu dute.

<sup>99</sup> 2011ko ekainean, Gujarateko gobernuak baso-departamentuaren web orriak ez zuen BELi buruzko begi-bistako eta erraz eskuratzeko moduko informaziorik.

Lehenik eta behin, tribu eta herrien batasunari buruzko eta BELen ezarpenaren aldeko borrokari buruzko lehen kezka identifikatu da. Batzuek adierazi dute borrokak batu egin dituela “adivasi” edo tribu-herri gisa, eta orain hobeto antolatuta edo gehiago elkartuta daudela botereari aurre egiteko, euren eskubideen alde borrokatzeko, baita ospakizunetarako ere (ospakizun-egunen aipamen ugari egin dira). Zenbait herritan, baina, BELe ez du lagundu batasuna sendotzen, eta euren erreklamazioen onespena lortu dutenek borroka utzi eta ekimen kolektiboaz ahortzi egin dira. Bestalde, tentsio handiak atzeman dira zenbait herrixkatan, ekintzaileen erreklamazioek “*zuhaitzak moztera*” bultzatzen baitituzte tribuak<sup>100</sup>. Azkenik, beren eskubideen aldeko herrixken indarra eta batasuna ebaluatzean, ez da gutxietsi behar alderdi politikoek (eta erlijioak) gatazka honetan duten eragina.

Bestalde, sustraituta dago BEL lurraren jabetza indibiduala aldarrikatzeko tresna dela edo, hobeto esanda, familiek lur horren okupazioa erregularizatzeko tresna dela. Badirudi hori dela, hain zuzen ere, tailerretako parte-hartzaileen lehentasun nagusia. Badirudi eskubide komunitarioak eta basoak babestu eta kudeatzeko eskubidea bigarren mailan geratu direla, eta eskubide kolektiboekin eta leku eta tribuetan baliabide komunitarioak sarbidearekin lotutako erreklamazioak eta ideiak BELi buruzko diskurtso egituratuago batekin soilik entzun ahal izan direla. Hiru eskubide-blokeen (lurraren gaineko eskubideak, erabilera-eskubideak eta kudeaketa-eskubideak) arteko asimetriak zentzuzkoak izan daitezke, baina epe luzeko barne-ahultasun baten edo adivasiaren basoen eta bizibideen kudeaketa hobe baterantz aurrera egitea galarazten duen oztopo baten adierazle ere badirudite: indibidualismoaren eta borrokaren erabilera funtzionalaren (norberaren interesen alde egitea, soilik) adierazle, alegia.

Hirugarrenik, emakumeen ahotsak eta genero-zeharkakotasuna ahultasun garrantzitsua dira borrokarako, BEL ezartzearen aldeko ekintzaileekapenas aipatzen dituzten arren. Landa-lanean, ordea, ezin izan da alderdi hori sakonago jorratu. Hainbat hipotesi daude norbanakoaren jabetza- eta titulartasun-eskubideen aldeko borrokan emakumeen parte-hartze eskasa dela eta. Hipotesietako baten arabera, lanaren banaketagatik da hain urria parte-emakumeen hartzea, gizonezkoari ematen baitio boterea jabetza pribatuari dagozkion gaietan eta emakumea, aldiz, familiaren jabegoa kudeatzera eta ustiatzera mugatzen baitu. Parte-hartze eskasago hori barne-ahultasun larritzat jotzen dae gizarte-ekintzen arrakasta-aukerak aztertzean.

---

<sup>100</sup> Adibidez, Gujarat hegoaldeko herrixka batean, Maharashtrareko mugan, ekintzaile-talde bat azaldu omen zen “Basoa herriarena da” eta antzeko kontsigna komunistekin eta hango biztanleak basoko zuhaitzak moztera eta lur haiek inbatzera bultzatu omen zituzten, BELe eskubide hori bermatzen ziela argudiatuz.

Laugarrenik, borrokan erretorika erabiltzea ahultasuntzat jo da. Eztabaida sortu da: BELen aldeko borrokan, erretorika erabiltzeak lagundu edo traba egiten du? Gai bati buruz behintzat ez dago zalantzarik, eta eslogan honek laburbiltzen du: “JUNGLE, JAMIN & JAL” (Basoak, lurra eta ura). “Basoa gurea da” eta antzeko aldarrikapenak ere egin ohi dira eta, batzuetan, esaldi nahasgarriagorik ere entzuten da: “Baso-lurra nireak dira, tribu-herri batekoa naiz eta”. Erretorikak eskaerak bideratu egin zituen, eta batasuna sustatu, baina nahasmena ere sor dezake, eta politizazioa areagotu.

Bosgarrenik, zaurien eta mentalitateen arazoa dago, batez ere Baso Departamentuaren eta tribuen arteko harremanetan. Adivasiei eragindako kalte eta sufrimendu handiak asko zailtzen du eremu bera partekatzen duten bi alderdien (adivasiak eta Baso Departamentua) arteko harremanak berrabiaratzea eta berradiskidetzea. Ez da ageri inongo diskurtso kolektiborik zauri horiei eta berradiskidetzeko eta justizia berrezartzeko aukerei dagokienez. Badirudi goizegi dela horretarako.

## 4.4. GIZARTE-EKINTZA KONBINATUA

### 4.4.1. Oinarrizko erakundeak, ekintzaileak eta Adivasi Mahasabhá

Gujaraten BELa ezartzeko borrokatzen diren etatik, oinarriko adivasiak (*grassroots* ere deitzen zaie) eta gizarte-ekintzaileak, GKEak eta Gujarateko Adivasi Mahasabbharen (AMG) inguruan antolatutako gizarte-ekintzako zentroak dira aipagarrienak. Azkena aipatu duguna (AMG)<sup>101</sup> 43 erakunderen federazioa da. Horietako batzuk oinarriko erakundeak dira; beste batzuk, GKEak edo zentro sozialak, JESAren (Jesus in Social Action) bitartez Jesusen Lagundiari lotuak haietako batzuk. Gujarateko adivasiaren gizarte-ekintzaren ardatz horri hurbiletik laguntzen dio India osoan BELa ezarri nahi duen sare batek: Justiziaren eta Duintasunaren aldeko Kanpainak<sup>102</sup>.

Beraz, gizarte-ekintza konbinatua da, oinarriko erakundeen eta adivasiaren kausarekin eta baso-eskubideekin lotura handia duen ekintzaile-talde baten indarrak

<sup>101</sup> Adivasi Mahasabhák Adivasi Batzar (sabhá) Handia (maha) esan nahi du, gutxi asko.

<sup>102</sup> Justiziaren eta duintasunaren aldeko kanpaina plataforma nazionala da, eta tribu-erakundeak zein tribu-erakundearen sareak eta basoko beste biztanle batzuen elkarteak biltzen ditu. Oinarriko 150 erakunde baino gehiagok eta estatuko 10 federazioek hartzen dute parte; besteak beste, Gujarateko Adivasi Mahasabbhák. Tribu Autogobernarako Fronte nazionala ere hor dago. Ez du kanpoko finantzaketarik jasotzen; erakunde eta federazioen kuotekin eta dohaintza independenteekin finantzatzen da. Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus [http://www.forestrightsact.com/index.php?option=com\\_content&view=article&id=73&Itemid=400055](http://www.forestrightsact.com/index.php?option=com_content&view=article&id=73&Itemid=400055)

batzen dituen gizarte-ekintza alegia. Oinarriko adivasien, hau da, legearen ezarpenean zuzenean diharduten herritarren, familien eta tribuen gizarte-ekintza ezin da bereizigiza eskubideen eta, bereziki, adivasien eta tribu-herrien eskubideen aldeko ekintzaileetatik hurbileko taldearen laguntza-lanetatik. Talde horiek ezagutza espezializatuak eskaintzen dituzte, batez ere lege-arlokoak eta eragin eta ekintza politikoko estrategiei loturiko pentsamendu estrategikoari lotuak.

Ekintzaile batzuk GGKEen edo zentro sozialen inguruan antolatuta daude; beste batzuk, berriz, independenteak dira. Guztien laguntza izan da funtsezkoa, bai legea onartu aurreko fasean, bai orain, non legearen ezarpen eraginkorra den egin-kizun nagusia.

Baso-eskubideen aldeko borroka Indiako adivasien aldarrikapen historikoa da, eta “Jungle, Jamin, Jal” (basoak, lurra, ura) esloganaren inguruan sinbologia eta erretorika bat ere sortu ditu. Baso-eskubideen legearen aldeko ekintza kolektiboaren antolakuntzan, ordea, funtsezkotzat jotzen da oinarriko erakundearen eta ekintzaileen arteko ekintza konbinatua. Horri esker batu ahal izan dira indarrak BELa onartu arteko bide luzean. Bestalde, elementu estrategikotzat ageri da ezarpenaren aldeko lan zail eta gogorrean aurrera egin ahal izateko. Landa-lanean ikusi denez, oztopoei eta sabotajei aurre egin ahal izateko, legea ezartzeko prozeduren zehaztapenei buruzko eta adivasien ekintza-batasunari buruzko ezagutza espezializatu behar da, indar politikoak eta estatuko erakundeak ezarpen eraginkor baterantz bultzatzearen ikuspegi politiko eta soziala aldarrikatu eta lortzeko.

#### 4.4.2. *Gizarte-ekintzako estrategiak*

2006ko BELen ezarpenerako presionatzeko eta ezarpen hobea lortzeko erabil daitezkeen estrategiei buruzko kontakizun gehienak lotuta daude klase politikoa presionatzeko eta gizarte-mobilizazioen bitartez helburuak lortzeko Indian erabiltzen diren zenbait estrategia ezagunekin. Gutxi hausnartu da, aldiz, bestelako estrategiei edo berritzaileagoei buruz (esaterako, garapen-alternatiben eraikuntza eta feministekiko eta ingurumenaren defendatzaileekiko loturak indartzea). Bestelako estrategia horiek gizarte-ekintzarako gune eta bide berriak irekitzen dituzte, eta ez zaizkio soilik klase politikoari zuzentzen.

**“Jungle Jamin Jal”  
(Basoak, lurra, ura).**

Adivasiek historian-zehar erabilitako leloa.

Lehenik eta behin, kontzientziazio-ekimenak areagotu egin dira adivasien artean. Tailerretan eta elkarrizketetan parte hartu dutenek diotenez, eskasa da Gujarate-

ko adivasiaren artean BELi buruzko kontzientziazioa, oro har. Nolanahi ere, bereizi egin behar dira, batetik, gizarte-ekintzaileengandik hurbil dauden eta kontzientziazioa borrokarako (eta, batez ere, mobilizatorako) jende gehiago lortzeko modutzat jotzen duten parte-hartzaileak eta, bestetik, kontzientziazioa ikuspegi orokorrago batetik ikusten dutenak, alegia, legearen eta lege-prozeduren zehaztapenei buruzko ezagutza gisa eta eskubideak aldarrikatzeko beren buruarekiko konfiantza areagotzeko tresnatzat daukatenak. Kontzientziazioari buruzko bi ikuspegi osagarri horiek etorkizunean lan egiteko baliabide garrantzitsutzat jotzen dira. Batzuen iritziz, kontzientziazioa areagotzearekin dago lotuta; beste batzuen iritziz, ahalik eta lasterren martxan jartzearekin. Ez da apenas ezer aipatu baliabide komunitarako edo basoen babes eta kudeaketarako sarbide-eskubideei buruzko ezagutza hautemateko eta eskuratzeko premiari buruz, eta ez da martxan jarri emakumeek BELen ezarpenean duten parte-hartze txikiari buruzko eztabaida sakonagorik eta hausnartuagorik.

Bigarrenik, esparru judizialera jo eta justizia-auzitegien bitartez eskubideak aldarrikatzeko legezko borroka martxan jartzea komeni den aztertzen ari da. Hori adierazi zuten zenbait parte-hartzailek eta, batik bat, gizarte-ekintzailek, horietako asko legeen munduarekin lotutako ibilbide akademiko eta profesionalak dituztenak. Borroka legala epe luzeko ekimena, estrategia arriskutsua eta garestia izango dela uste da, baina garrantzitsuenen artean aipatzen da.

Hirugarrenik, iritzi publikoa suspertzeko asmoz, deialdiak egin dira (baita presioa ere komunikabideei), prentsa-konferentzien eta bestelako ekitaldien bitartez. Iritzi publikoa, oro har, eta klase politikoa, bereziki, sustatzea zuten helburu ekimen horiek. Ez da aipatu iritzi publikoaren (axolagabe eta, batzuetan, adivasiaren kausarekiko etsaia ere) babesa lortzeko estrategia zabalagorik, ezta aldeko taldeak izan litezkeenek ere; esaterako, talde ekologistenak (horiek ere oso anbiguotzat ikusten dituzte). “Irabazteko aukerarik ez dugun inongo borrokarik ez ekitea” da, antza denez, irizpidea.

Azkenik, masiboa izan da adivasiaren oinarrien mobilizazioa. Estrategia eraginkorrena, ezagunena izan dela jotzen da, baina baita jendearentzako gogorrena eta itogarriena ere. Bestalde, kezka bat ere badago: BELen inguruko mobilizazio-ahalmena murriztu egin ote den (1992an, 35.000 lagun mobilizatu ziren; 10.000, tailerretan jasotako lekukotasunen arabera). Badirudi ekintzaile aktiboek bide horri ematen diotela balorazio handiena; esaterako, Rajpipla Social Serviceko ekintzaileek. Dena den, “mobilizazioak moteltzen ari direla” ere argi asko ikusten da.

Laburbilduta, lau jarduera-esparrutan identifikatu dira gizarte-ekintza indartzeko estrategiak, Gujaraten BEL ezartzeari dagokionez: adivasien kontzientziazioa eta ekintza-batasuna indartzea, bide judizialak irekitzea, iritzi publikoari deialdiak egitea eta mobilizazio masiboak. Lau jarduera-esparru handi horiek ezagutza, ahalegin eta sakrifizio ugari eskatzen dizkiete oinarriko adivasiei eta ekintzaileei, eta kostu soziala, politikoa eta ekonomikoa dute, kontuan izan beharrekoa etorkizuneko desfioei ekitean. Landa-lana egin zen garaian, Adivasi Mahasabhâren inguruko adivasiak eta ekintzaileak zer estrategia eta zer epe behar zituzten ari ziren hausnartzen eta eztabaidatzen.

#### *4.4.3. Lidergoaren eta sareko lanaren kontua*

Elkarrizketatutako jendea gehien kezkatzen duen arazoetako bat adivasien gizarte-ekintzaren lidergo-arazoa da. Entzundako kontakizunen arabera, ez dago Adivasi Mahasabhâren lana gidatzeaz eta egituratzeaz arduratzen den erakunde “liderrik”, eta ez da uste adivasien gizarte-ekintzak, berez, mugimendu sozial baten sendotasuna eta trinkotasuna dituenik. Adivasi Mahasabhak mugimendu baten hazia ereiteko ahalmena izan dezakeela jotzen da, baina lidergo argirik ezak ere sortzen du kezkarik.

Jesusen Lagundiko gizarte-ekintzaileek, edo batzuek bederen (BELi buruzko ekimenetan eta adivasien eskubideen aldekoetan aktiboen dihardutenek), Adivasi Mahsabhâren lidergoa euren gain hartzeko borondatea edo itxaropena adierazi da hainbat tailerretan, baina, aldi berean, Gujarateko testuinguru politiko-erlijioso konplexuan (ikus testuingurua) kaltegarria izan liteke eta adivasien ekintza politiko hori kristautasunarekin lotu daitekeela uste dutenen kezka ere adierazi da. Izan ere, hainbat aldiz adierazi da faktore erlijiooso hori dela herri eta herrixketan gehien erabili dena herritarrak banantzeko eta haien gizarte-ekintza desaktibatzeke, bai BELen ezarpenari dagokionez, bai ekintza politikoaren beste esparru batzuetan. Misiolari jesuitak borroka horretan izan duten esku-hartzea baliatu egin dute legearen aurkakoeke (eta haien atzean dauden interes ekonomikoek) Adivasi Mahasabharen izena zikintzeko eta ekintza kolektiboaren batasuna ahultzeko. Lidergoaren arazoa, horrenbestez, Gujarateko testuinguruan agerian dagoen aldagai politiko-erlijioso garrantzitsu horri lotuta dago.

Azkenik, labur jardungo gara sareko lanari eta lana beste mugimendu eta talde sozial batzuekin antolatzeari buruz. BELari dagokionez, bistakoa da adivasien gizarte-ekintzaren nolabaiteko isolamendua. Izan ere, oinarriko erakundeen, ekintzaileen eta batzar estatalen (esaterako, Adivasi Mahasabhā) borroka eta erakunde horiek guztiek **Duintasunaren eta Biziraupenaren Kanpainan** egiten duten lana dira gizarte-ekintzaren alor bakarrak. Beste mugimendu batzuekin eta presio-talde batzuekin –esaterako, ekologistekin eta talde feministekin– ezer gu-txi antolatu da BELaren onespina sustatzeko. Are gehiago, ideologia kontserba-doreagoa duten talde ekologistei dagokienez (batik bat, basa bizitza –batez ere, tigrea– babesten duten taldeak), txarra izan da (eta da) harremana. “Tigreak ver-sus tribuak” esapide gogorak adierazten du, nolabait, borroka hori. Talde ekolo-gistek diote BELa kaltegarria dela Indiako fauna basatiaren (batik bat tigrearen) habitaterako, lurri titulartasuna emateak deforestazio handiagoa eta habitaten narriadura handiagoa eragingo dituelako.

Planteamendu horiekin bat ez datozen talde ekologista batzuk ere jardun dira, ordea. Habitata zaintzea eta adivasien bizimodu tradizionalak mantentzearekin uztartu daitezkeela uste dute talde horiek, eta BELek eta adivasiek baso-lurraren, basoen eta basoko baliabideen kudeaketan egin dezaketan lanaz ikuspegi baiko-rragoa dute. Horrenbestez, Adivasi Mahasabhān diharduten ekintzaile batzuk ingurumen-hezkuntzako zentroekin eta talde ekologistekin harremanak sortzen hasi dira, berriki, BEL ezartzen laguntzeko. Hala ere, Indiako mugimendu eko-logistekiko elkarlana oraindik ere ez dute eratu erakunde adivasiek eta haiei la-guntzen dieten ekintzaileek.

#### 4.5. ONDORIOAK

Gujarateko ekonomia ziztu bizian ari da hazten, baina pobrezia eta desberdinta-sunak ere bere horretan irauten dute. Bestalde, izugarri garatzen ari den Indiako estatu horretan azken bi hamarkadetan sustatutako garapen ekonomikoko ere-duari atxikitako ingurumen arazoak larriagotzen ari dira.

Testuinguru horretan, BELa onartzea injustizia historiko bat konpontzeko eta lu-rraren eta basoko baliabideen sarbide- eta erabilera-eskubideak berrezartzeko aukera ez ezik, lurra eta basoko baliabideak kudeatzeko eredu berriak explo-ratzeko aukera ere bada.

Lehenago aipatu dugun erdi irekitako atea izan liteke 2006ko BELa, eta garape-nari buruzko ikuspegi osoagoa eman lezake, gizakien premiak (kasu honetan,



adivasiak) kontuan hartzen dituen eta ingurumenari eta baliabide naturalei (ondasun komunak) gehiago erreparatzen dien ikuspegia, alegia.

Legea ezartzeko zailtasunak eta egiten zaizkion sabotajeak ikusirik, ordea, ez du lanbide erraza ematen. Oztopo askori eta askotarikoei egin behar zaie aurre: kanpoko interes ekonomikoei, eta adivasiak gizarte-ekintzaren barne-ahultasunei. Barne-ahultasun horien artean, lehenik eta behin, legearen ezarpenean gertatzen ari den jabetza indibidualerako joera nabarmena azpimarratu behar da. Joera hori dela eta, **selektiboa da borroka**, eta gizarte-ekintzak lurrerako sarbide-eskubideak besterik ez du aldarrikatzen kasik, eta alde batera ari da uzten eskubide kolektiboago (baliabide komunak erabilerak) eta gobernantzari lotutako (basoen eta bizibideen kudeaketa eta babesa) beste batzuen aldarrikapena.

Nolanahi ere, Gujaraten BELekin gertatzen dena ez da salbuespena Indian: botere faktikoak (batik bat, baso-departamentua) legea sabotatzen ari dira, eta ezarpen zail hori nahasmenak eta zatiketak ari da eragiten. Gujaraten atzera botatuko erreklamazioen berrikuspena martxan jartzea borrokari bizirik eusteko bigarren aukera bat izan daiteke. Kasu eta esku-hartze arrakastatsuetatik ikasiz, eta gaia gertutik jorratu dutenen legearen eta haren prozeduren zehaztapenei buruz duten ezagutza areagotuz, BELekeko segurtasuna (edo “*asertibotasuna*”) sendotu egin daiteke. Maila guztietan behar da segurtasun hori (bereziki, herririka, taluka eta barrutietan) borrokan jarraitzeko behar diren zenbait emaitza lortzeko. Horrekin eta, oro har, kontzientziazioarekin lotuta, baliteke BELen aldeko **borrokan nekea** sortzen aritzea. Arrisku handia da hori adivasiak gizarte-ekintzarentzat.

Legea eta haren prozedurak ondo ezagutzea faktore garrantzitsua da, BELeke berretsitako eskubideak erreklamatzeko borondate kolektiboa sustatzeko lagungarria. Nahikoa kasu arrakastatsurik eta emaitza esanguratsurik ez dagoenez borrokan jarraitzeko borondate kolektiboari eusteko, segurtasun eta ezagutza propioen bitartez soilik lortu ahal izango dira gizarte-ekintza sustatzeko emaitzak. BELen kontuei buruzko ezagutza lege-gaietan espezializatu da, baina badago ezagutza hori beste alor batzuetara zabaltzeko aukera. Borroka honetako bi lehiakide nagusien (Baso Departamentua, batetik; adivasiak eta ekintzaileak, bestetik) arteko botere-asimetriak konpentsatzen lagundu lezake horrek. Ezagutza hori lortzeko aukera bat teknologiko espezialisten laguntza litzateke (esaterako, GPS eta SIGko espezialistena), baita baso- eta natura-zientzialarien laguntza ere, harreman ekitatiboagoa eta, agian, Baso Departamentuarekin oinarrizko mailan elkarrizketa konstruktiboagoa lortzeko.

Kontzientziazioa da gako nagusietako bat BELen ezarpenean adivasiek darabilten gizarte-ekintzari dagokionez, bereziki **genero-kontzientziazioa**. Sakon aztertu behar da zergatik duten emakumeek hain parte-hartze txikia BELen ezarpenean eta, bi galdera hauek egin: parte-hartze txiki horren arduratik, zenbat dagokio patriarkatuaren eta lurraren jabetza-kontuetan emakumeak bigarren mailan uzten dituen gizon eta emakumeen arteko botere-banaketari? Zenbat dagokio genero-ikuspegirik ezari edo kontzientziaziolari buruzko esku-hartzeak edo ekimenak mugatu izanari? Generoari dagokionez, bi bide azter daitezke: feministen eta emakume-mugimenduen arteko eta tribuen eta haien aldeko ekintzaileen arteko loturak eta elkarrekiko ezagutza indartzea, emakume adivasiek jabetza komune-ko baliabideetan partaidetza handiagoa izan dezaten.

Begien bistakoa da legean ageri diren hiru eskubide-moten (lurraren gaineko eskubideen, erabilera-eskubideen eta kudeaketa-eskubideen) arteko desoreka, **borrokaren selektibotasuna**, zeinak joera indibidualistak eta arrisku larriak (indarren sakabanaketa) baititu. Borroka honetan nagusitzen diren eta, batik bat, familien segurtasun juridikoa bermatu nahi duten ikuspegi indibidualista eta pragmatikoenen nagusitasunagatik ari da hori gertatzen. Hala ere, joera hori ez da nahitaez bateraezina beste eskubide batzuen aldeko borrokarekin. Borrokaren barne-ahultasun horiek beste borroka-bide batzuk aztertuz gaindi litezke, agian. Gai delikatua izaki, komeni da denen artean eztabaidatzea eta hausnartzea, ikuspegi nihilistak alde batera utzita. Norberaren interesak gogobetetzen saiatzea denon interesak gogobetetze saiatzea bezain zilegia da, baina ahalegin kolektiboak eta gizarte-ekintzarako indarren batasunak bihurtuko dute eraginkor borroka.

BELen aldeko borrokaren erdian, adivasi xumeak (beren ahots, interes eta ahalegin guztiekin) eta ekintzaile tribalak daude; periferian, berriz, Tribu Gaietarako Ministerioa eta tribuen borroka babesten duten “politikari bakanak”. BELen aldeko borrokaren ezaugarri harrigarrienetako bat emakumeen, feministen eta ingurumenaren defendatzaileen mugimenduen partaidetza txikia da. Ekintzaile tribalek indarrak batu dituzte Biziraupenerako eta Duintasunerako Kanpaina sustatzeko, baina badirudi ez dutela batasun hori lortu feministekin eta ingurumenaren defendatzaileekin lankidetzan aritzeko beste modu batzuk arakatzeko. Halako lankidetzarik gauzatuz gero, borrokan dihardutenen kopurua ez ezik ezagutza eta indar soziala ere handitu egingo litzateke. “Tigre lobbyaren” aurkaritza gogorrek ez du esan nahi, ezinbestean, basoen eta ingurumenaren babesa bideratzeko bestelako modu orokorragorik badenik. Beste hitz batzuekin esanda, baso-eskubideen legea ingurumenaren defendatzaileen (edo, gutxienez, horietako

batzuen) babesik gabe “galdutako aukeratzat” jo liteke, bai basoari, bai tribuei dagokienez.

Lurraren gaineko eskubidea, erabilera-eskubideak eta kudeaketa-eskubideak: era batera edo bestera, denek dute lotura bizibideekin. BELa ere lotuta dago mantenuaren segurtasunarekin (“elikadura-segurtasuna” ere esaten zaio). Eskubide indibidualak eta kolektiboak aitortzeko ikuspegi mugatuak alde batera utz lezake, ordea, lur, baso eta baliabide komunak kudeatzeko bestelako ereduak garatzeko premia. Askotariko ezagutzak eta jakintzak eskatzen ditu ahalegin horrek. Hori lortzeko, irudimena, iraunkortasuna, denbora eta emaitzak behar dira. BELa izan daiteke basoaren eta baliabide naturalen kudeaketa hoberranzko ate hori apur bat irekitzeko moduetako bat. Horretarako, erdian jarri behar du guztien ongia, eta garapen-eredu nagusiaz bestelako aukerak eskaini.



## 5. Ondorioak eta askotariko ikasketak

Proiektu honetan diharduten lau erakundeok ikaskuntza asko eta askotarikoak ateratzen ditugu proiektuaren eraginpeko herrien gizarte ekintzaren azterketatik, lurraldearen eta baliabide naturalen sarbide-, erabilera- eta kontrol-ahalmen handiagoa lortzeko asmoz. Proiektuak, jakina, gatazka horien berezko **konplexutasunaren** analisisian eta tokiko biztanleen erantzunetan sakontzera garamatza. Honako faktore hauen garrantzia nabarmentzen da: i) hasierako baldintzak eta prozesu historikoak, ii) estatuaren eta erabaki politikoen garrantzia, iii) baliabide naturalaren mota, iv) komunitateen edo kolektiboen batasun-maila, v) gizarte zibileko erakundeetatik jasotako laguntza mota eta vi) emakumeen eginkizuna eta genero-zeharkakotasuna.

### 5.1. HASIERAKO BALDINTZAK:

#### PROZESU HISTORIKOAK ETA EGITURAZKO KAUSAK

Gero eta fenomeno gatazkatsuago horren azpian dauden **prozesu historikoei eta egiturazko kausei buruz** geure buruari eta akademiari galdetzera bultzatzen gaituzte kasuek. Ez dugu uste fenomeno kasualitatea denik, ezta ikuspegi nazional edo lokal batetik soilik azal daitekeenik ere. Batik bat Katangan nabaritzen da, baina baita Ixcanen ere, problematika lokal horiek eskualdeko eta munduko prozesu geoekonomikoekin eta toki- eta nazio-esparruaz hara hartzen diren erabaki politikoen dute lotura estua. Horrenbestez, Katangako kobreak eta kobaltoaren artisau-meatzaritzaen “eztanda” mineralen prezioaren gorakadagatik eta munduko ekonomiaren (eta garabidean diren ekonomien) hedapenagatik izan zen. Enpresa hidroeletrikoek, petrolio-enpresek eta nekazaritzaen industriakoek Ixcán lurraldearekiko dute interes gero eta handiagoaren arrazoia ere, hein handi batean, nazioarteko ekonomiarekin lotura estua duten aldagaiak izan

daitezke (esaterako, petrolioaren prezioaren gorakada eta beste energia-iturri batzuen bilaketa, zeina erauzketa–mugen handitzea eragiten ari baita).

Hala ere, ekonomia politikoaren eremukoak gehiago diruditen argibide horien osagarri, erabaki politikoaren analisi xehatuagoa eta sakonagoa egin behar dela uste dugu. Izan ere, erabaki horiek eragin eta sustatu dituzte Katangako eta Ixcángo giza arazo larriak. Galdera asko dituzte erabakiak hartzen edo hartu dituztenentzat erabaki horien ondorioak jasaten dituzten herritarrek. Erabaki horien artean daude Kongoko EDko estatuko meatzaritza sektorearen liberalizazioa, Guatemalako Iparraldeko Zeharkako Errepideak proposatutako garapen-eredua, meatze-emakida edo emakida hidroelektriko jakin batzuk, operadore ekonomiko batzuk lurralde jakin batera etortzeko baimena.

Hiru kasuetan, antzekotasun handia nabaritzen dugu: lurralde horietatik haraindi sortutako prozesu ekonomiko eta politikoek tokiko testuinguru horietan duten eragina. Horrenbestez, bai Katangan, bai Ixcánen, baina baita Gujaraten ere, argi dago herriak eta komunitateak arazoak izaten ari direla lurraldea eta baliabideak eskuratzeko eta erabiltzeko. Nazioarteko hedapen ekonomikoarekin zuzeneko lotura dute arazo horiek. Adivasiaren kasuan, Indiako ekonomiaren hedapen handiarekin eta, zehazkiago, Gujarat estatuko hazkunde ekonomikoarekin daude lotuta arazoak.

## 5.2. ESTATUAREN ETA ERABAKI POLITIKOEN GARRANTZIA

Gure iritzian, baliabide naturalekin lotutako problematika jakin baten sorreraren edo txartzearen azpian dauden **erabaki politikoaren katea argitzea** ageriko premia da (hala ikusten dute tokian tokiko erakundeek), eta arreta berezia egin behar zaio. Lehenik eta behin, gardentasunaren oso aurkakoak izan daitezkeen testuinguruetan argitze horrek berekin dituen zailtasunengatik (eta arriskuagatik) dago premia hori; bigarrenik, botere politikoaren eta erabiltzen dituen tresnen (esaterako, legeak, politikak, itunak, kontratuak, etab.) azterlanari dakion konplexutasunagatik, askotan, herrien eta haiei laguntzen dieten erakundearen irismenetik kanpo dagoen ezagutza- eta eskarmentu-maila eskatzen baitute.

Horrenbestez, azterlan honetan dihardugun erakundeok uste dugu ezinbestekoa dela, testuinguru bakoitzean, lurralderako eta baliabide naturaletarako sarbideari buruzko gatazkaren (gero eta handiagoa) konplexutasuna eta egiturazko zergatiak sakon aztertzea. Tokiko testuinguru bateko problematika jakin bat sortzen edo larriagotzen duten erabaki politikoaren katearen azterketa intentsiboa egin behar da. Botere-analisi horrek behar duen konplexutasun- (arriskua barne har-

tuta) eta eskarmentu-mailak hau eskatzen du: irakaskuntzaren, kazetaritzaren eta ekintzailetzaren mundutik datozen ahaleginak hobeto biltzea, tokiko ikertzai-leei babesa ematea eta, lehen lerroan lan egiten duten erakundeen isolamendu-egoerak une oro saihestuz, sarean lan egitea.

Hiru kasuetan, beste aldagai bat azaldu da, indartsu: estatua. Izan ere, eskuhartze garrantzitsua izan du estatuak problematika horietako bakoitzean eta haiekin lotutako komunitateetan. Muturreko ahultasuna erakutsi du estatuak Kongoko Edn, ez baita gauza izan artisau-meatzaritzaren kontrolatzeko eta ez baitu batere sinesgarritasunik eta konfiantzarik sortzen meatzeetako langileengan. Katangan, estatuaren jardura hertsatzailea da batik bat (armada, polizia...) artisau-ustiapeneko meatze-kanpalekuetan, eta ikusteko dago estatuak eta hura gobernatzen duten eliteek baduten borondaterik artisau-meatzaritzaren arautu eta herriaren zerbitzura erabiltzeko. Ixcáñen, indigenen komunitateek eta nekazari-ek etsaitzat dakusate estatua, lurraldea garatzeko estatuaren ereduak talke egiten duelako nekazarien mundu-ikuskerarekin eta ekonomia-proposamenarekin. Gujaraten, jardura anbiguoagoa izan du estatuak baso-eskubideen legearen ezarpena dela eta: batetik, adivasiaren eskaera historikoaren aldeko estatu-erabakitzat jotzen da legea, baina, aldi berean, estatu horren erakunde bat (baso-departamentua) jotzen da legea behar bezala ezartzen uzten ez duen indar nagusitzat.

### **5.3. ARAZOA ETA HAREKIN LOTUTAKO BALIABIDE-MOTA**

Esperientzia horretatik ateratzen dugun bigarren ikaskuntzak zuzeneko lotura du gizarte-ekintzaren ezaugarriekin, baita problematika eta hari dagokion baliabidea kontuan hartzearen garrantziarekin ere. Horrenbestez, Katangan, meatze-baliabideetarako eta artisau-meatzaritzarako sarbidea da arazoa; Ixcáñen, lurraldearen kontrola, eta Gujaraten, berriz, eskubide historiko bat (baso-lurrerako sarbidea) berrezartzea. Oso desberdinak dira deskribatu ditugun hiru problematikak. Hori dela eta, hona hemen gure galdera: egokia ote gizarte-ekintzak baliabidearen arabera bereiztea? Zenbateraino da baliabidea (meatzea, basoa, ura, etab.) funtsezko elementua komunitate/herri jakin baten gizarte-ekintza ulertzeko?

### **5.4. GIZARTE-EKINTZA: HIRUGARREN BIDEA, ATEA ERDI-IREKITA ETA GIZARTE ZATITUA**

Bestalde, hiru esperientzietan ere herritarrak modu batera edo bestera—indartsuak, batzuk; beste batzuk, ez horrenbeste— bere burua antolatzen ari dira, lurralde bat

babesteko edo eskubide berezi batzuk aldarrikatzeko. Beraz, gizarte-ekintza desberdin egituratzen da kasu bakoitzean eta, horregatik, ezaugarri desberdinak ditu, prozesu historikoen, egoera ekonomikoen eta politikoen eta aztertutako esperientzia bakoitzean gizartea egituratzeko gaitasunaren arabera ere.

Gizarte-ekintza horren batasun-mailaren, talde-kontzientziaren eta proposamen-ahalmenaren aniztasuna erakusten dute hiru kasuek. Mutur batean, Ixcáneko kasua dugu: batasun eta talde-kontzientzia handia dute han, beren nortasunaren eta lurraekin eta lurraldearekin lotutako mundu-ikuskeraren delako medio. Erresistentzia-estrategia bat dago, eta bestelako garapen-eredu bat proposatzen du. Muturren arteko erdibideko posizioan, berriz, Gujarateko kasua dugu: nolabaiteko batasuna eta talde-kontzientzia daude baso-eskubideen legea ezartzeko borrokan, baina borroka hori selektiboa da. Izan ere, norbanakoen eskubideen aitortzea du ardatz, emakume eta gazte gutxi hartzen dute parte, eta apenas duen lurra eta baliabideak beste era batera kudeatzeko eredu-proposamenik. Beste muturrean Katangako artisau-meatzariak daude. Esplotazio-kontzientzia badute, baina borroka indibiduala da, eta ekintza kolektiboak ez du indarrik lurraldearen eta baliabideen beste garapen- edo kudeaketa-eredu batzuk bultzatzeko.

Halaber, hiru dira guk identifikatu ditugun gizarte-ekintza motak:

1. **“Hirugarren bidea”**. Adibidez, Ixcánen, bada identitate eta kosmobisio komun bati buruzko talde-kontzientzia handia, gizarte-ekintzaren lagungarri. Kontsulta-eskubidearen inguruan antolatuta da jende hori. Nazioartean babes juridikoa du eskubide horrek, baina nekez onartuko du bertako gobernuak. Gizarte-ekintza horrek badu, halaber, bestelako garapen-mota baten proposamenik ere, lurraldearen babesean eta ohiko bizimodu tradizionaletan oinarritua betiere.
2. **Ate “erdi-irekia”**: Gujaraten, adibidez, non nolabaiteko talde-kontzientzia baitago, eta ukatzen zaien eskubide historiko bat berreskuratzeko gizarte-ekintza. Legeria alde badute ere, hura egiazki gauzatzeko oztopoak dituzte. Oztopo batzuk kanpotik ezarritakoak dira; beste batzuk, ordea, barruko ahultasun isilek sortuak (emakume eta gazte eskasia, eta BELaren aldeko borroka hartzen ari den kutsu indibidualista, adibidez). Oso ahula da, oraindik ere, basoen garapen- eta kudeaketa- bide alternatiboak eraikitze ahalegina.
3. **“Gizarte zatitua”**. Hori da Katangaren kasua, non badagoen esplotazioaren eta gehiegikeriaren kontzientzia, baina, borrokari dagokionez, banakako jarduerak nagusitzen den, talde-kontzientzia eskasa dagoen eta testuingurua oso aurkakoa duten. Oso aukera gutxi dago epe laburrean gizarte-ekintzari



ekiteko. Egiturazko zergatiak, aldagai geoekonomikoak eta erabaki politikoek kate luzea ikaragarri esanguratsuak dira ingurune hartan.

## 5.5. GIZARTE-EKINTZAREN LAGUNTZA

Hiru herri horietako borroketan gizarte zibileko erakundeek ematen duten laguntzaren ezaugarriak dagokienez ere desberdintasun handiak daude hiru kasuen artean, batik bat, tokian bertan diharduten erakundeek kopuruari eta aliantzak egiteko irakurari/gaitasunari dagokienez (batez ere giza eskubideen aldeko erakundeek eta ingurumenarekin/ekologiarekin edo garapenarekin lotura handiagoa duten erakundeek artean). Ixcáñen dago erakunde-kopuru handiena, baita aliantzak egiteko irakitasun handiena ere. Gujaraten ere erakunde laguntzaile dezente daude (eskubideen defentsan espezializatuak), baina beste esparru batzuetako erakundeekin aliantzak egiteko gaitasun edo irakitasun txikiagoa. Azkenik, Katangan, ez dago bertan diharduen batere erakunderik kasik, batez ere meatzarien kanpalekuan edo inguruan. Gizarte zibileko hainbat erakunde artisau-meatzaritzaren fenomenoari buruz duten jokabidea eztabaibatzen dute, baina adierazpen eta esku-hartze argirik egin gabe. Azkenik, Katangan ikusten dira ongien nazioarteko salaketa-ekintzak egitearen arriskuak eta ekar ditzaketan “ondorio kaltegarriak”.

## 5.6. EMAKUMEEN EGINKIZUNA ETA GENERO-ZEHARKAKOTASUNA

Hiru esperientzietan ere, emakumeak aurki ditzakegu. Beraien bizitzak eta ibilbideak estuki lotuak daude lurraldeari eta natur-baliabideei. Emakumeek sakonki jarduten dute ekoizpen eta erreprodukzioko lanetan, bai Ixcán, Katanga eta Gujaraten ere. Hala ere, argi dago beraien mendekotasuna eta egiturazko desabantaila, batez ere lurraldearen titularizazioari buruz ari garenean. Ixcángo emakumeen gizarte-ekintza oso aktiboa da lurraldearen eta baliabideen babesean. Gujaraten, bada, emakumeen gizarte-ekintza inbisibilizatu izaten ari da, beharbada borrokak indibidualismoaren kutsua hartu duelako. Katangan, aldiz, artisau-meatzaritzari lotuak dauden emakumeak gaitu daude, ingurune arriskutsuaren eta egiturazko kauseen mende. Genero-zeharkakotasuna garrantzia handiko erronka da gizarte-ekintza eta natur-baliabideen arteko harremanak ikertzerakoan. Proiektu honetan parte hartu ditugun lau erakundeek genero-zeharkakotasunaren beharra sentitu dugu, taldeak eta herrien jarduerak artatzerakoan, premiazko erronka baita edozein lurraldea kudeatzerakoan.

1. Gatazkaren egiturazko zergatiak aztertzen sakontzea eta hura elikatzen duten erabaki politikoen katea argitzea. Horretarako, ezinbestekotzat jotzen ditugu ekintzailleen, kazetarien eta komunitate akademikoaren arteko batasuna eta lankidetzak, maila guztietan (tokikoa, nazionala eta nazioartekoa), batez ere arrisku handiko, gardentasun eskaseko eta protesta kriminalizatzen den testuinguruetan.
2. Baliabideen erabilerari eta lurraldearen babesari dagokienez gizarte-ekintzarako funtsezkoak diren bi aldagai aztertzea: tokian tokiko testuingurua, eta gatazka eragiten duen baliabide-mota. Hainbat galdera sorrarazten du horrek borroka espezializatzeko eta baliabideen (lurra, ura, meak...) inguruan laguntzeko beharraz eta egokitasunaz.
3. Arreta berezia eskaintzea estatuaren zereginari, haren indarrari zein ahultasunari, eta baliabideaz, populazioaz eta lurraldeaz duen jarrerari. Estatuaren jarrerara herritarren kontrakoa den egoeretan jarraitu beharreko estrategietan ere badu horrek eragina, baita, noski, estatua ahula den egoeretan eta epe laburrean hura sendotzeko aukera handirik ez dagoenetan ere.
4. Lurralde batean diharduten gizarte zibileko elkarten dentsitatea ebaluatzea, haien dibertsitatea, espezialitatea, lurraldean irauteko ibilbidea eta haien artean elkar hartuta jarduteko gaitasuna. Ebaluazio hori ezinbestekotzat jotzen dugu herritarrei laguntzeko eta arriskua saihesteko, batez ere gizartea oso ahula den testuinguruetan.
5. Komunitateei eta populazioei laguntzea jabetze demokratikoko prozesua gauzatzen. Esperientziak erakutsi du kontzientziatzea denbora, iraunkortasun eta emaitza kontua dela. Jendeak ikusten eta nabaritzen badu eskubideak aitortu egiten zaizkiola, lurraldea eta harekiko eraginak hobeto ezagutzen baditu, sendotu egiten da gizarte-ekintza.
6. Erabakiak hartzeko, parte-hartzea aragotzea. Helburu hau, baina, ez da erraza, aipatutako arazoak eta interesak direla eta; horregatik, testuinguru horietan talde gutxik izaten dute elkarrizketa politikoko guneetara iristeko aukera. Populazioa bere interesekin eta eguneroko bizitzarekin zerikusirik ez duten estamentuek pentsatutako eta diseinatutako lege eta proposamenen hartzaile hutsa ez izateko, parte-hartzea sustatzeko bi proposamen konstruktibo nabarmentzen dira: kontsulta-eskubidea, eta garapenari buruzko ikuspegiaren gaineko eztabaida piztea.
7. Nazioko zein nazioarteko tresna eta esparru legalen edukiak sakonago ezagutzea; halaber, teknologia jakin batzuk gehiago erabiltzea eta diziplinen arteko elkarrizketa sustatzea. Jakintza espezializatu horrek indartu egiten ditu komunitateak eta herritarrak, eta asimetria-egoera orekatzen laguntzen du, hein batean bederen. Diziplinen eta jakintza-esparruen arteko elkarrizketari esker, sendotu egiten da baliabideak kudeatzeko eta lurraldeak gobernatzeko ordezkotza ereduak proposatzeko ahalmena.

## 6. Zenbait hausnarketa etikaren eta justizia sozialaren ikuspegitik

- Argitalpen honetan jaso diren hiru esperientziek agerian uzten dute gizateria osoari eragiten dion zer hau: ekonomia ez da ari desmaterializatzen. Baliabide naturalen gaineko presioa gero eta handiagoa da, eta erauzketa-mugak ekoizpen- eta kontsumo-zentro handietatik gero eta urrunago dauden lurraldeetara ari dira zabaltzen. Azken hamarkadetako hedapen ekonomiko horren kostuak gizateriako talde ahulenak ari dira ordaintzen gehienbat, batez ere landa-eremuetan bizi diren Hegoaldeko herrialdeetako herritar behartsuak. Haietako asko herri indigenak eta pobretutako nekazari-komunitateak dira.
- Hiru esperientzia horiek gabetze- eta esplotazio-egoera nabarmenak erakusten dituzte, batez ere Ixcánekoak eta Katangakoak. Bestalde, leku horietako protesta sozialaren kriminalizazioa zuzenean ekiten die adierazpen-askatasunari eta partaidetza-eskubideari. Nazioarteko komunitateak eta elkartasun-erakundeek arreta handiz zaindu eta babestu behar dituzte eskubide horiek Ixcánen, Katangan..., nonprekarietatea, arriskua eta botere-asimetria diren nagusi.
- Gure eta gure ingurumenaren patua garapen-ereduari edo -ereduei zuzenean lotuta daude, baita –ondorioz– lurra eta baliabideak kudeatzeko hautatzen ditugun ereduei ere. ”Nor da naturaren jabea?” ez da, beraz, galdera erretoriko hutsa. Giza izateari buruzko galdera bat da, eta horren erantzunaren mende dago zer gizarte sustatzen den eta baliabideen zer kudeaketa egiten den. Mundu-ikuskera eta kultura bakoitzak desberdin erantzun diote galdera horri. Herri indigena batzuek zalantzan jartzen dute “naturaren jabetza” kontzeptua

- Mendebaldeko kulturari bi ikuspegi nagusitu dira naturaren jabetzari dagokionez. Lehengoaren arabera, baliabide naturalak gizaki guztionak dira. Bigarrenaren arabera, baliabide naturalak ez dira inorenak. Bigarren ikuspegi hori ohikoagoa da tradizio liberalean. Naturaz jabetzeko prozesua, ikuspegi horren arabera, lehiakortasunaren arabera da. Beraz, baliabide naturalak aurrea hartzen dituenarenak dira. Jabetze-prozesu hori gauzatutakoan, merkatuko bigarren legea jartzen da martxan: transferentzia askearen legea (salerosketa, adibidez).
- Guztion ongiaren ikuspegitik, jabetzaren gutxieneko baldintzak funtsezko elementua dira. Beraz, ikuspegi horretatik, jabetza pribatuak ez du izan behar inor ondasunik gabe uzteko modukoa, ezta beste pertsona batzuei bizitza duina izateko behar diren baliabideak eskuratzea galarazi behar ere. Horiek dira guztion ongia bermatzeko gutxieneko baldintzak. Bestalde, jabetzaren gaia ezin da banandu jabetza horri ematen zaizkion esanahitik eta erabileratik. Despota izan daiteke jabea, edo baliabide naturalen erabiltzaile adeitsua eta erantzulea.
- Aztertutako hiru kasuetan, jokabide indibidualistenen eta kolektibistenen edota komunitaristenen arteko tentsioa nabari da, baliabideen erabilera eta eskuragarritasuna dela eta. Mutur indibidualistenean, Katangako artisau-meatzariak daude; kolektibistenean, berriz, Ixcángo komunitate indigenak. Bi horien tartean, berriz, Gujarateko adivasiak daude. Leku bakoitzean ikuspegi bat edo bestea nagusitzea eragiten duten historia-, kultura- eta testuinguru-arrazoi sakonak arreata handiz aztertu behar dira.
- Parte-hartzea zeharkako elementua da baliabide naturalen gobernantzan. Gobernantza horren oinarria, ideal etiko eta politiko baten ikuspegitik, hau litzateke: eragile guztiek (gizarte zibileko erakundeak eta enpresak barne) parte hartzea, berdintasun-giroan, denon ongiaren definizioan, guztien berezitasunak kontuan hartuta eta, hasieran bederen, estatuaren oinarritzko koordinaziopean..
- Hiru kasuetan, zailtasun handiak ikusi dira lurraldearekin eta baliabide naturalekin lotutako erabakiekin lotutako herriek berdintasunez parte hartzeko. Agerikoa da Ixcáneko komunitateek lurraldean interes ekonomikoak dituzten eragile pribatuekiko botere-asimetria. Gauza bera gertatzen da Katangako artisau-meatzariek, eta are larriagoa bilakatzen du haien egoera meatzarien

ekintza kolektiboaren barne-ahultasunak eta Kongo EDko meatze-emakidak (artisansu- edo industria-ustiapenerako) erabakitzeko eragile pribatuen (bertakoak, nazionalak eta nazioartekoak) esku-hartzeak. Gujaraten kasuan, adibasiak Baso Departamentuarekiko duten asimetria-egoera lehendik zetorren, baso-eskubideen legea egoera orekatzen saiatzen bada ere.

- Guztien ongia definitzeko estatuaren koordinazio-lanean ere zailtasun handiak nabari dira. Guatemalako estatuak aurkako jarrera garbia du Ixcáneko komunitateekiko; Katangan, berriz, erabat ahula da estatua (“gatibu” dagoela ere esan liteke). Indian, baso-eskubideen legea onartzean, guztien ongia berrezarri nahi duen koordinatzaile gisa eta injustizia historiko baten berrezartzaile/konpontzaile gisa ari da agertzen estatua. Baso-eskubideak ezartzeari dago-kionez, ordea, anbiguoagoa da estatuaren jokabidea, erabakiak betearazten dituen erakundeetako bat (baso-departamentua) boikoteatzen eta galarratzen ari baita estatuak adibasiari itzulitako eskubideen gauzatzea.
- Herritarren parte-hartzea indartzeko edo errazteko gizarte zibileko erakundeen laguntzak, bestalde, hausnarketa etiko garrantzitsua sustatzen du. Alde batetik, herriekin agenda komun bat antolatzea zaila delako. Bestetik, zenbait ekintzak edo politika-proposamenek, behar den zuhurtziaz hausnartzen ez badira, herri horietan izan ditzaketen eragin kaltegarriengatik.
- Hiru kasuetan, helburu nagusitzat baliabide naturalen gobernantza hobe eratzeko da, baina, hiru kasuetan, “zuhurtzia-unea” da gaur egungoa. Izan ere, herrien gizarte-ekintza indartzea da eginkizun nagusia, gobernantza-subjektu izan daitezkeen zuzenean eragiten dieten lurraldeari eta baliabideei buruzko erabakietan parte har dezaten. Ixcán eta Gujaraten, egoera horretarantz jotzeko bideak eta estrategiak sumatzen dira, bi herri horietan zailtasun eta barne-ahultasun handiak dituzten arren. Katangako meatzarien kasuan, zuhurtzia-une hau erabat estrategikoa da, ikuspegi etikotik, baina baita ikuspegi politiko eta ekologikotik ere. Katangako artisau-meatzarien gizarte-ekintza indartzearen alde egiteak jarduera ekonomiko oso problematikoko bati eusten eta etikoki justifikagaitza (giza eskubideen eta justizia sozialaren ikuspegitik) den fenomeno bat txertatzen lagundu dezake.



## Bibliografía

- ALBOAN. (2011). *El desarrollo alternativo por el que trabajamos. Aprendizajes desde la experiencia*. Bilbo: ALBOAN Fundazioa.
- ALBOAN. (2011). *La participación: clave del desarrollo. Cuatro experiencias de participación ciudadana*. Bilbao: Adivasi Kethi Yojna, ALBOAN, Ccaijo, CIPCA, Entreculturas, INADES-Burundi.
- Acción Contra el Hambre: *Memoria de la represa Chixoy Río Negro. Una investigación participativa del Asentamiento Pacux, Rabinal, Baja Verapaz*. Guatemalako Hiria, 2005.
- ACTIONAID. *Ixcán: Factsheet*. Guatemala: ACTIONAID, 2010.
- ADIVASI MAHASABHA GUJARAT: Report. Ahmedabad-Gujarat, 2009. Argitaratu gabea.
- Alianza para el Desarrollo Rural Integral (ADRI): *Para COSECHAR presente y futuro. Ley de Desarrollo Rural Integral. Exijamos su aprobación*. Guatemalako Hiria, 2010.
- Álvarez Cantalapedra (koord.): *Convivir para perdurar. Conflictos ecosociales y sabidurías ecológicas*. Icaria argit., Bartzelona, 2011.
- Álvarez Cantalapedra, S.: *Aprender a convivir en tiempos críticos*. Fuhem/CIP Ecosocial, Madril, 2011.
- Amnesty International: *Guatemala: land of injustice?*, Amnistía Internacional, Guatemalako Hiria, 2006.
- Arana, J.L.: *Situation of the tribal community today*, Vyara, Gujarat, 2011 (argitaratu gabea).

- Association Africaine de Défense des Droits de l'Homme (ASAHDO/Katanga): *Mine uranifère de Shinkolobwe: d'une exploitation artisanale illicite à l'accord entre la RD Congo et le groupe nucléaire français Areva*, ASADHO, Lubumbashi, 2009.
- Baracytese, P.: *L'enjeu géopolitique des transnationales minières au Congo*, SOS RWANDA-BURUNDI, 2000.
- Bhubaneswar, S.: *Development-induced Displacement and Human Rights Violation in Orissa: An Anthropological Insight*, Social Action: A Quarterly Review of Social Trends, 60. liburukia, 2. zk, 2010.
- Botón Simaj, S.: *¿De qué sirve la luz, para quienes no quieren ver la luz? Un primer acercamiento para conocer el proyecto hidroeléctrico Xalalá y la identificación de las comunidades que posiblemente quedarían en el área de influencia directa*, Pastoral Social, Ixcán, 2007.
- CIFCA-Iniciativa de Copenhague para Centroamérica y México: *Xalalá. ¿Desarrollo para todos? Impactos y obligaciones en derechos humanos del Estado de Guatemala en la planificación y construcción de la hidroeléctrica y represa de Xalalá*, CIFCA, Brusela, 2008.
- CONAP: *Política de Asentamientos Humanos en Áreas Protegidas De Petén*, 2002.
- CONAVIGUA (Coordinadora Nacional de Viudas de Guatemala): *Diagnóstico situacional. Impacto cultural de la minería en las comunidades mayas kaqchikels de San Juan Sacatepéquez*, CONAVIGUA, Guatemalako Hiria, 2009.
- Corral, J.A.: *Los adivasis de Gujerat. Cultura aborigen y su actualidad en el siglo XXI*, Ediciones Mensajero, Bilbo, 2008.
- Council for Social Development: *Summary Report on the Implementation of the Forest Rights Act. Main Findings*, Council for Social Development, New Delhi, 2010.
- Dabhi, J.: *The Flipside of Vibrant Gujarat*, Indian Social Institute, New Delhi, 2007.
- Douwe van der Ploeg, J.: *Nuevos campesinos. Campesinos e imperios alimentarios. Perspectivas agroecológicas*, Icaria editorial, Bartzelona, 2010.
- El Observador: *Análisis alternativo sobre política y economía para la defensa de los recursos naturales*. 2. zenbakia, Ixcán, 2011.
- Enfoque. Análisis de situación. *En manos de quién estará la seguridad en el futuro gobierno del PP. Año 2. Nº 18*, 2011.



- Fernandes, W: *Forests, Deforestation and Tribal Identity in Norhteast India*. Social Action: A Quaterly Review of Social Trends. 6o. liburukia, 2. zk., 2010.
- FGARDA: *Informe de Situación General sobre las Violaciones a los Derechos Colectivos de Pueblos y Comunidades indígenas afectados y amenazados por la Construcción de Hidroeléctricas en Guatemala*, 2009.
- Gadgil, M.: *Asserting Community Forests Rights*, Social Action: A Quaterly Review of Social Trends, 6o. liburukia, 2. zk., 2010.
- Gaur, M.: *The Forest Right of Tribals*, Alfa Publications, New Delhi, 2008.
- Global Witness: *Faced with a gun, what can you do? War and the militarisation of mining in Eastern Congo*, Global Witness, 2009.
- Global Witness: *Ruée et ruine. Le commerce dévastateur des ressources minières dans le Sud du Katanga en République démocratique du Congo*, Global Witness, 2004.
- Government of Gujarat. *Socio-economic Review: Gujarat 2010-2011*. Gandhinagar: Directorate of Economics & Statistics, 2011.
- Government of India. *National State of Enviroment*. New Delhi: Ministry of Environment & Forests, 2009.
- Government of India. *Indian Human Development Report 2011: Toward Social Inclusion*. New Delhi: Planning Commission, 2011.
- Grandía, Liza: *Tz´aptz´ooqueb´: El despojo recurrente del pueblo q´eqchi´*, AVANCSO, Guatemala, 2009.
- Hainbat egile: *Background to the Forest Issue in Dangs District*, Dangs-Gujarat, 2010. Argitaratu gabea.
- Hainbat egile: *Reconstruction de la République Democratique du Congo. Le role de la Société Civile*, Cahiers de Droits de l´Homme et de la Paix en Région des Grands Lacs, 1. liburukia. 1. zk., 2004.
- Hazra, A.: *Development at the cost of Human Life*, Social Action: A Quaterly Review of Social Trends, 6o. liburukia, 2. zk., 2010.
- Hurtado, L.: *Las plantaciones para agrocombustibles y la pérdida de tierras para la producción de alimentos en Guatemala*, Actionaid, Guatemalako Hiria, 2008.

- International Crisis Group: *Working to prevent conflict worldwide. Latin America Report N° 39*, ICG, 2011.
- Iznardo, F.: *Militarización en el Ixcán: delgadas líneas rojas*, Envío aldizkaria, 2002.
- Kandji, L.: *L'exploitation manuelle du cuivre et du cobalt au Katanga. Décadence ou Progrès?*, Baobab, Lubumbashi, 2010.
- Lobera, J. Arrojo, P., Rivero, M., Garcia, E. *La conflictividad que viene*. Madrid: CIP-Ecosocial-FUHEM, 2011.
- Lobo, L. & Kumar, S.: *Land acquisition, displacement and resettlement in Gujarat (1947-2004)*, SAGE Publications India, New Delhi, 2009.
- Lobo, L.: *Changing Character of Forests and Tribal Livelihood in Eastern Gujarat (1947-2007)*. Vadora, Centre for Culture & Development, 2010.
- López Rodríguez, Victor Hugo: *Los pueblos mayas en el renacer de la historia. En Mundubat & Comité Internacionalista de Solidaridad de Zaragoza. Perspectivas indígenas para el siglo XXI*. Gakoa argit., Bilbo, 2009.
- María, J. & Devuyt, E.: *SGM, SGM, a Mining Company in Africa. The Role of Companies in Society. GOLDEN Project for Sustainability. A Case Study*. 2011.
- María, J. & Taka, M.: *Artisanal miners and mining companies in the DRC: from conflict to collaboration*, laster argitaratzekoa, 2011.
- María, J. & Taka, M.: *Artisanal miners' human rights in the DRC: the responsibility of mining companies*, laster argitaratzekoa, 2011.
- Martínez Alier, J.: *20 años de ecologismo en Guatemala. Una conversación con Magali Rey Rosa. Ecología Política. Cuadernos de debate internacional*, 2002.
- Martínez Alier, J.: *El ecologismo de los pobres. Conflictos ambientales y lenguajes de valoración*, 5. argitalpen hedatua, Icaria argit., Bartzelona, 2011.
- Martinez Anierte, J.C; Villagran García, C. (koordinatzaileak): *Conflicto por el uso de la tierra. Nuevas expresiones de la conflictividad agraria en Guatemala*, Instituto de Transformación de Conflictos para la Paz (INTRAPAZ), Guatemala, 2009.

- Morales, H.: *Cooperación internacional en Centroamérica. Mirada crítica desde los sujetos políticos regionales*, Movimiento Tzuk kim-pop. Sector Mujeres. Centro América por el Diálogo (CAD), Guatemala, 2010.
- Muhigirwa, F.: *Pour une bonne gouvernance dans le secteur minier en RDC. Congo-Afrique*, CEPAS, Kinshasa, 2010.
- Nouvelle Dynamique Syndicale, NDS: *Pour comprendre le nouveau code minier de la République Démocratique du Congo. Guide destiné aux populations locales*, NDS, Lumbumbashi, 2005.
- Palmieri Santisteban, M.; Delgado Valenzuela, H. L.: *Análisis situacional de la malnutrición en Guatemala: sus causas y abordajes. Cuaderno de Desarrollo Humano*, Banco Mundial, Guatemala, 2009/2010.
- Perks, R.: *Towards a Post-Conflict Transition: Women and Artisanal Mining in the Democratic Republic of Congo*, 2010.
- Pinto, S. *Land Alienation and consciousness among the vasavas of South Gujerat*. Surat: South Gujarat University, Social Studies Center, 1999.
- PNUD CONGO: *Province du Katanga. Profil résumé pauvreté et conditions de vie des ménages*, PNUD. Unité de lutte contra la pauvreté, Lubumbashi, 2009
- PNUD CONGO: *Rapport National sur le Développement Humain*. PNUD, Kinshasa, 2008.
- PNUD CONGO: *SYNTHESES PAYS 2010*, PNUD, Kinshasa, 2010.
- PNUD Guatemala: *Diversidad étnico-cultural y ciudadanía en un Estado plural*, Informe de Desarrollo Humano, PNUD, Guatemalako Hiria, 2005.
- Prabhu, P.: *Inclusion in Law and Exclusion in Praxis: The Scheduled Tribes & Other Traditional Forest Dwellers (Recognition of Forest Rights)*, 2006.
- Prasad, A.: *Capitalism, Forestry and Tribal Labour in Central India: A Contemporary History*, Social Action: A Quaterly Review of Social Trends, 60. liburukia, 2. zk., 2010.
- Ramnath, M.: *Surviving the Forest Rights Act: Between Scylla and Charybdis*, Economic and Political Weekly, 43. lib., 9. zk., 2008
- Sarin, M.: *Democratizing India's forests through tenure and governance reforms*. Social Action: A Quaterly Review of Social Trends, 60. lib., 2. zk., 2010.

- Savyasaachi: *FRA 2006: In who's interest?*, Social Action: A Quaterly Review of Social Trends, 6o. lib., 2. zk., 2010.
- Seay, L.E.: *What's Wrong with Dodd-Frank 1502? Conflict Minerals, Civilian Livelihoods, and the Unintended Consequences of Western Advocacy*, Center for Global Development. Working Paper 284, Washington, 2012.
- Solano, Luis: *En manos de quién estará la seguridad en el futuro gobierno del PP*. Enfoque, Análisis de situación, 2. urtea, 18. zenbakia, 2011.
- Spiegel, S. J.: *Governance Institutions, Resources Rights Regimes, and the Informal Mining Sector: Regulatory Complexities in Indonesia*, World Development, 40. lib., 1. zk., 2011.
- UN Security Council: *Final report of the Group of Experts on the Democratic Republic of the Congo*. December 2008, S/2008/773. Security Council, New York, 2001.
- UNOPS: *Guatemala Memoria del Silencio*, Comisión para el Esclarecimiento Histórico, Guatemalako Hiria, 1999.
- Vallejo Real, I.: *Ixcán. Configuraciones de una región multi-étnica: identidad, relaciones interétnicas y conflicto*, CIRMA, Centros de Investigaciones de Mesoamérica, Pastoral Social/ IBIS, Danimarka, 2000.
- World Bank: *Democratic Republic of Congo. Growth with Governance in the Mining Sector*, Oil, Gas, Mining and Chemicals Department, Africa Region, 2008.